

Goienkaria

2006ko urriaren 20a > Egubakoitza > VI. urtea > 261. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Hemengo enpresek ere igarri dituzte industria sektoreko arriskuak"

Eduardo Zubiaurre
Adegi > 09



G2a

Zeramika topaketak hiru herritan > 43

ARRASATE

Kultura etxe berriaren barruko argazkiak ikusteko aukera > 18

BERGARA

Haurreskola publikoa astelehenean zabalduko dute zortzi umerekin > 25

ARAMAIO

Bertso eskola lanean hasi da iaz baino ikasle bat gehiagorekin > 38

Etxebizitzen gaineko gehigarria

GOIENKARIAREkin batera, etxebizitzaren gaineko hamasei orriko gehigarria duzue.



ERREPIDEAK > ORDAINLEKUAK AUTOBIDEETAN

Bergara eta Zumarraga artean ordainlekua ipini nahi dute

KOKAPENA Bergara-Zumarraga tartean, autobidea egiten dutenean, ordainlekua non jarri oraindik ez du zehaztu

HIRU N-1, A-15 eta GI-632 errepideetan ordainlekuak jartzearekin ados daude EAJ, EA eta PSE-EE alderdiak

ONDORIOAK Ibilgailu guztiei ezartzen bazaie, zirkulazioa asko murriztuko dela dio Aldundiaren txosten batek > 04

GIZARTEA > TRUKARO

Denbora-banku proiektua

Trebetasunak elkar trukatzeko plana gizarteratu du Arizmendik > 02-03

ARRASATE > HARRI-JAUSIA

Istripuaren kontura, 60 salaketa

AP-1eko harri-jausia dela eta, 60 salaketa dago orain arte, eta kaltetuei ordain-saria agindu die Bidegik > 19



ITALIAN Aretxabaletako Aratz elkarteak Italiako hiri batzuk bisitatzeko aprobeztatu dute, Venezia, esaterako.

JOKIN ANTZIA

Hasiberrien film onenaren saria irabazi du Aratzek Italian

Bidaia baten ametsa filmarekin Italiako Gorgonzola hiriraino bidaiatu dute Aratz elkar-tekoak, hango film lehiaketan parte hartze-
ra, eta ametsa egi bihurtu da: izan ere, lan hari esker, hasiberrien film onenaren saria irabazi dute asteburuan.

Lehiaketako azken jardunaldia "oso hunkigarria" izan zela eta euren filma jendearen oso gustukoa izan zela dio Jokin Antxia Aratzeko arduradunak. Egonaldi osoa ere "zoragarria" izan zela dio. Aratzekoek oso pozik jaso zuten saria. > 33

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

SUPER AMARA

DENA GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

Audi A3 Sportback
Automobil hutsa baino gehiago.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

GIZARTEA > TRUKARO DENBORA-BANKUA AURKEZTU DUTE

Trebetasunak eta denbora, jendearen arteko lokarriak

TRUKARO Denbora-bankua da Trukaro, eta norbere trebetasunak eta aisialdia trukatzean oinarritzen da, hori guztia borondatez

EDOZEINENDAKO Arizmendik antolatu du eta zabalik dago Debagoien osorako: gazteak, erretiratuak, bertakoak zein etorkinak...

EGUNEROKOAK Ohiko trebetasunak eskain daitezke: jendeari laguntasuna eman, norbaiten loreak ureztatu, jostintza lan errazak egin...

LEIRE KORTABARRIA > ESKORIATZA
Edozeinek parte hartzeko moduko truke programa dago mar txan Debagoiengan. Trukaro du izena, eta beharretan eta trebetasunetan dago oinarrituta: elkarren beharrei elkarren trebetasunekin erantzutea da helburua, eta horretan parte hartzeko, nahikoa da borondatea eta norbere trebetasunak besteen zerbitzura jarzea. Trebetasunak bitxiak izan daitezke, espezializatuak; baina baita, edo batez ere, eguneroko trebetasunak ere: hala, Trukaron lekua dute, adibidez, Bach-en loreen bidez osatzen dakitenak edo beharra duen norbaiti admi-

nistrazioko bulegoetara, ospitalera, zinemara, gaixorik dagoen bitartean... lagun egitea, kanpoan dagoenean landareak ureztatzea edo etxean oinarritzko konponketaren bat egitea.

Trukaro proiektua denbora-banku proiektu bat da, beste leku batzuetan mar txan dagoena eta orain Debagoiengan ere ezarriko dena. Atzo, eguna, aurkeztu zuten Trukaro antolatzaileek, Arizmendiko Joxerra Elortza, Josu Velasco, Beñat Zamalloa eta Leire Aranak. Goienak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen dute. Hala ere, argi utzi gura dute Trukaro Arizmen-

Eskualdean Trukarok arrakasta izan dezakeela uste dute antolatzaileek, "elkarlanerako tradizioa dagoelako"

dik gizarteratzen duen zerbitzu dela, eta denendako dela: euskaldunenendako eta ez euskaldunenendako, bertakoendako eta etorkinendako, edadetu zein gazteenendako, eskola pribatu zein publikoko ikasleendako...

ELKARTASUNEAN ABERATSA
Antolatzaileek Trukaro bezalako proiektu bat aukerakoa ikusten dute Debagoienerako: "Kilometroak antolatu genituenean, dinamika politikak sortu ziren: parte-hartzea, elkartasuna, harremanak... Horiei jarraitzeko sortu da Trukaro. Gainera, Debagoiengan kooperatibismoaren esperien-

tzia sortu zen, eta elkartasuna eta elkarri laguntzeak tradizioa dute hemen. Enpresetan badagoen elkartasun hori eguneroko bizitzara ere eraman beharko genuke. Gainera, elkartasunean aberatsa den komunitate baten beste inizatiba batzuk sor daitezke etorkizunean", azaltzen du Joxerra Elortzak. Horrela, Trukaroren helburuak dira giza konpromisoa eta aisialdi solidarioa bultzatzea; gizarteari hain indibidualista ez izaten lagundu; edo partaideen autoestimua eta laguntzeko borondatea indartu.

Hortik abiatuta eta denboran oinarrituta, modu altruista baten norbere abileziak besteen esku jartzeko tresna da Trukaro. Hona-koak trukatzu hasiko dira: behar-erak -edadetuei edo gutxituei lagundu, etxeko mantenu lan txikiak egin, informatika lanak, errenta aitortpena egiten lagundu, e.a.-, ezagutzak -arabiar edo ingeles eskolak, eskola-laguntza, bibliografia bitxiaren kontaketa... -aisialdia -ipuin kontalariak, magia ikuskizunak, sukaldaritza eskolak, abentura eta bidaiak kontaketak... Horiek eta pentsa daitezkeen beste edozein behar, ezagutza edo trebetasun eskain ditzake norberak. Hau da, inork ez dezala pentsa jakintza oso espezializatuak izan behar dituenik: "Uste dugu eguneroko zerbitzuek eta laguntzek izango dutela eskatera gehien, baina hori denborarekin bakarrik ikusiko da", esaten dute antolatzaileek.

LAN EGITEKO MODUA

Trukaron parte hartzeko, bazkide egin beharra dago. Hori eta gero, elkarrizketatu egingo dute bazkide berria, eta hor azalduko

Josu Velasco > Trukaroko antolatzaileetako bat

"Adiskidetasuna sortzen bada, primerakoa izango da"

L.K. > ESKORIATZA

Josu Velasco da Trukaroko dinamizatzaileetako bat. Gasteizko edo Bartzelonako esperientzien berri jaso du hemengo antolatzaileak.

Zein izan daiteke Trukaroko bazkide?

Edozein. Izan ere, esperientzia hau Arizmendik gizarteratu egiten duen zerbitzu bat da. Hasieran, Leintz bai-

lara aldean zabalduko dugu, baina hori kanpo parte hartu gura duten debagoiendarrendako ere zabal-zabalik dago.

Erretiratuak oso bazkide garrantzitsuak izan daitezke. Debagoiengan, jendea goiz erretiratzen da, ezagutzak fresko dituzte eta horiei etekina atera diezaiekete. GKEetako jendea ere ikusten dugu bazkide moduan. Baina edozeini dago zabalik.

Zuen ustez, zein trebetasun izan daitezke eskatuena?

Ezin da alde aurretik jakin, leku bakoitza mundu bat delako. Jendeak edozein trebetasun mota eskain dezake, eta askotan, aurreikusitako ezinezko arrakasta izaten dute. Gasteizen, adibidez, biografiak idazten dituen pertsona bat dago, eta inork hala pentsatzen ez zuen arren, arrakasta handia dauka.

Doakoa da, ezta?

Bai. Trukaroren leloa da *Ordu bat=0 €*. Ordua da Trukaroren txanpona. Denbora, trebetasunak, laguntza... eskaintzen ditu norberak, eta hori ezin daiteke dirutan ordaindu.



L.K.

Norberak aukeratu du zeini eskatu laguntza?

Bai. Trebetasun jakin bat ematen duen hainbat lagun baldin badago, norberak erabakitzen du nori deitu. Esaterako, kanpoan zaudenean loreak ureztatzeko norbait behar baduzu, giltza eman behar diozu, eta horrek konfiantza eskatzen du. Horregatik, elkar ezagutzeko aukera izango dute bazkideek.

Adiskidetasun harremanak sortu izan dira beste leku batzuetan...

Bai, hala gertatu da Bartzelonan, adibidez. Hori lortzen bada, primerakoa izango da. Trukaro horretarako tresna izan daiteke.



Chevrolet Captiva

Europarako eksklusiboki 5 edo 7 eserleku dituzten bertsioak. 150 ZPko diesela eta 136 eta 230 ZPko gasolinazko motorrak.

Captiva gama **23.330€**-tik hasita.

Giauto 902 345 225

Otaola etorbidea, 27. EIBAR. Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g. OLABERRIA. Tel.: 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da



Prezio gomendatua Penintsulan eta Balear Uharteetan Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi 5 eserlekuko ibilgailuentzat. (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta gasolinazko Prever Plana barne). Hii amaiera arte baliagarria. Kontsumo mistoa (l/100 km): 7,4-11,5. CO2 emisioak (g/km): 197-264. Hiru urteko bermea edo 100.000 km bermeen legea aplikatzeko kalterik gabe: 23/2003.



ARDURADUNAK Josu Velasco, Joxerra Elortza eta Beñat Zamalloa, Trukaroko arduradunak.

L.K.

ANTOLATZAILEEK ESANDAKOAK

"Debagoieneko enpresetan badagoen elkartasuna eguneroko bizitzara ere eraman beharko genuke"

Joxerra Elortza

"Erretiratuak bazkide garrantzitsuak izan daitezke Trukaron, izan ere, jendea goiz erretiratzen da eta ezagutzak fresko ditu"

Josu Velasco

"Interneten bloga eta webgunea izango ditu Trukarok, eta hortik parte hartzeko aukera izango dute bazkideek"

Beñat Zamalloa

du bere trebetasunak eta zein egun eta orduetan dagoen truke-rako gertu. Gero, bazkide bakoitzak bi tresna jasoko ditu: bate-tik, txeke-liburuxka bat. Truke bakoitza -trukea eman eta jaso dutenen izena, zenbat denbora eman den trukean eta noiz izan den -hor apuntatu beharko da. Zerbitzua eman duenak denbora hori positiboa izango du, eta jaso duenak, negatiboa. Hala ere, "oso malgua izango da; helburua ez da ordu negatiboak eta positiboak kosta ahala kosta berdintzea", azaltzen du Joxerra Elortzak. Batik bat, antolatzaileendako neurgailua izango da: horrela jakingo dute zerk duen eskaera handiena, zer bultzatu beharra dagoen...

Bigarren tresna bazkideen zerrenda izango da: hala, norberak premia bat duenean, zerrendan aurkitu ahal izango du premia hori betetzeko gertu dagoen baten telefonoa, eta hari deitu.

Bestalde, Debagoieneko esperientziak berritasun bat du beste lekuetakoen aldean: Internetez ere funtzionatuko du. Izan ere, egunean, Trukaroren bloga ere aurkeztu zuten. Oraingoz, www.trukaro.org helbidean dago. Hor, antolatzaileek jendearen iritzia eta komentarioak jaso gura dituzte. Gerora, helbide horretan Trukaroren webgunea egongo da, eta blogak aurrera jarraituko du. Internetez moldatzen direnek on-line bete ahal izango dituzte txekeak, eta bazkideen zerrenda ere hor topatu. Horretarako, sarrera-gako bat jasoko du bakoitzak.

Oraingoz, bloga dago martxan; izena emateko epea zabal-tzen denean jakinaraziko dute antolatzaileek.

BEHAR ZEHATZAK ASETZEKO

Trukaro zer ez den ere garbi eduki behar dute bazkideek: ez da zerbitzu jarraia emateko modu bat, hori "lehia desleial" bihur daitekeelako, antolatzaileen esanetan. Hala, esate baterako, iturgintza konponketa bat egin behar bada Trukaroren bidez, momentuko zerbitzu izan beharko du, oso konponketa txikia, eta oso kasu zehatz baten; edo arabiera ikasi gura duenak uneko behar baterako jo ahal izango du Trukarora -adibidez, oporraldi baterako lau gauza ikasteko-, eta ez hizkuntza ikastaro baten bila.

Horietarako ez, baina beste gauza askotarako balio dezake Trukarok. Hala, Bartzelonan,

LABUR

> ZER DA TRUKARO?

Denbora, trebetasunak eta ezagutzak borondatez trukatzeko denbora-bankua.

> NORI ZUZENDUTA DAGO?

Gizarte osoari. Trebetasun orokorrak, denok egin ditzakegunak, eskain daitezke; edo oso espezializatuak, nahi bezala.

> FUNTZIONAMENDUA

Bazkide egin beharra dago. Zerrenda baten agertzen da pertsona hori, trebetasun mota eta telefonoarekin, eta beste kideek laguntza eska diezaioke.

> ZER EZ DEN

Ez da premiak modu jarraian betetzeko bidea, uneko premia konkretu bat baizik.

> NOLA PARTE HARTU


Azaroan izango da izena emateko aukera, 902 11 20 25 telefonon edo www.trukaro.org webgunean.

Elkarri entzutea, zerbitzu eskatuena Bartzelonan

Arizmendikoez Bartzelonako kasua aztertu dute, eta bitxikeria bat ere topatu dute, hots, zerbitzu guztien artean, elkarri entzuteko zerbitzua dela eskaera handiena duena: hori emateko gertu daudenek hala adierazten dute zerrendan, eta eurei deitzeko aukera dago kafe bat hartu eta norbere kontuak kontatzeko. Gasteizen ere, laguntza mota asko emateko gertu dago jendea: Jaurlaritzaren bulegoetara lagundu, edadetuei lagundu...

denbora-bankuaren bidez adiskidetasun harremanak sortu dira, eta jendea Trukarotik kanpo elkartzeko hasi da.

Batak bestea ezagutzen laguntzeko, topaketa informalak egin nahi dituzte: noizean behin bazkideak batu, bazkide berriak aurkeztu eta modu informalean elkar ezagutu. Hala, gerora elkarri deitzeko konfiantza hartzeko aukera izango da. Izan ere, elkarri laguntzea eta pertsonen arteko harremana sendotzea bultzatzen du Trukarok, eta horretarako, elkar ezagutzea ezinbestekoa da.



ION LEIHOAK


P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOA

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73





BITAN BAKARRIK AP-1 eta A-8 autobideen erabiltzaileek bakarrik ordaintzen dituzte bidesariak Gipuzkoan gaur egun.

GOIENKARIA

duenak ordain dezala" ereduaren oinarrituz, eta horretarako tasak eta ordainsariak ezarri. Erakundeek, beranduenez, 2012rako ordainsari horiek ezarri izan beharko dituzte. Beraz, datozen bi legegaldietan barrena ordainsari berriak ezartzea aurreikusi dute.

ORDAINSARI GARESTIAGOAK

Gaur egun, AP-1 eta A-8 autobideen erabiltzaileek bakarrik ordaintzen dituzte bidesariak. Ordainsari berriekin oreka lortuko litzateke gipuzkoarren artean, Zuriarrainen esanetan.

Foru Aldundiak aurreikusi du ordainlekuak N-1 eta A-15ean ipintzea, Etxegaraten eta Berastegin. Hirugarrena Bergara eta Zumarraga artean egongo litzateke, oraindik zehaztu gabeko toki batean. Ordaindu beharrekoari dagokionez, diote tarifak altuak izango direla. Hiru ordainleketan antzerako tarifak ipiniz gero, Gasteiz eta Beasain arteko errepidean bakarrik gutxituko litzateke trafikoa, ez gainontze-koetan. Beraz, N-1 eta GI-632 errepideetan tarifa kilometrikoa ipiniko lukete, eta ordaindu beharrekoa AP-1 autobideko Gipuzkoako zatiko ordainsaria baino %50 garestiagoa izango litzateke.

ERREPIDEAK > GIPUZKOAKO ORDAINLEKU BERRIAK

Bergara eta Zumarraga artean ordainlekua ipini nahi dute

Beasain-Durango korridorearen Gipuzkoako zatia amaitu eta autobide bihurtzen denean

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
EAJ-PNV, EA eta PSE-EE alderdiak bat datoz esatean ordainlekuak beharrezkoak direla oraindik ordain saririk gabekoak diren edukiera handiko errepideetan: N-1, A-15 eta GI-632 (Beasain-Durango korridorearen Gipuzkoako zatian egiteko geratzen dena).

Errepide horietan urtean nazioarteko garraioan jarduten

duen hiru milioitik gora kamioi eta milioika auto ibiltzen dira.

Ordainsaria nazioarteko garraioa egiten duten kamioiei ordainaraziko liekete, besteak beste. Era berean, erabiltzaile gipuzkoarrek deskontuak izango litzateke, gaur egun A-8 autobidean dituzten moduan.

Javier Zuriarrain Errepide Azpiegiturarako diputatuak

Batzar Orokorretan aurkeztu zuen ikerketa bat Gipuzkoako errepide sarearen kudeaketa iraunkor baterako eredu ezartzeko. Baina argi utzi zuen azterketa ez dela Foru Aldundiarena, eta eurek ez dutela ezer egingo horri dagokionez. Hala ere, jakinarazi zuen Europako Batasunak sustatuko duela eredu bat garraio iraunkorrerako, "erabili eta kutsatzen

GIDARIEN EZADOSTASUNAK

Txostenak jasotzen du, baita ere, zein abantaila eta kalte ekarriko duten tarifa sistema berriek. Honela, aurreikusi dute ordainsari berriak ibilgailu guztiendako badira, lehen ordaindu behar ez zutenen haserrea eragingo dutela; alderantziz, ibilgailu astunendako bakarrik badira, garraiolarietara egingo dutela protesta.

Tarifak ibilgailu guztiendako izanez gero, trafikoa gutxitu egingo litzatekeela dio txostenak; alderantziz, ibilgailu astunek soilik ordaindu beharko balute, ibilgailu kopuruak ez luke behar beste behera egingo. Gero eta gehiago dira eta izango dira ordainpeko errepideak. Neurriekin ez daude ados, batez ere, garraioa eta ibilgailuak bizibide dituztenek. Ondorioz, beste aukera batzuk eskatzen dituzte.

urriak 20-21-22

3. Mendi eta Eski Azoka

MENDIEXPO

2006

Tel. 943 66 77 88
<http://mendiexpo.ficoba.org>

PROIEKZIOAK,
STANDAK,
MARTXA,
IKASTAROKAK,
NAZIOARTEKO
BOULDER OPENA,
JARDUERAK,
eta abar...

Partenaire

Collaborateurs

> BERGARA

Jendea behar dute kilometroak 07 festa antolatzen hasteko

Aranzadi Ikastola hasi da datorren urteko kilometroak festa antolatzen eta batzordeak eratzten, eta jendea behar du. Laguntzeko gertu daudenek telefono zenbaki honetara deitu behar dute eta Unaiengatik galdetu: 695 78 93 77. Ikastolara bertara ere joan daitezke laguntzaileak.

> DEBAGOIENA

Urtero 350 bularreko minbizi antzematen dituzte Gipuzkoan

Aurrez antzematea da bularreko minbiziari aurre egiteko erarik onena. Mezu hori zabaldu gura izan zuten atzo, eguena, Bularreko Minbiziaren Nazioarteko Egunean. Gipuzkoan, 350 kasu berri antzematen dituzte urtero. 2007tik, 69 urte arte da prebentzio kanpaina.

> OÑATI

Euskara Batzordeen II. Topaketa egingo du Fagorrek Arantzazun

Fagorreko euskara batzordeek topaketa egingo dute bigarren urtez Arantzazun hurrengo egunean, urriaren 26an.

Gandiaga topagunean batuko dira. Fagorreko euskara batzordeetako kide guztiak elkartuko dira eta hainbat gai jorratuko dituzte: adibidez, azken bederatziru teetan euskara planak Fagor Taldean izandako ibilbidea errepatatuko dute. Aurtun, gainera, topaketarekin batera, kultur programa bat ere antolatu dute euskara batzordeek: mendi irteerak, diaporamak eta futbol txapelketak, adibidez.

PRESOAK > ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEKO BARAUALDIA

Presoen aldeko baraualdia hasiko dute Uarkapen bihar

Bailaraka egingo dute baraualdia Euskal Herrian Gabonak bitartean; Debagoiena da lehena

Baraualdiaz gain beste ekintza batzuk ere egingo dituzte, adibidez, manifestazioa urriaren 28an

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Presoen aldeko baraualdia egingo dute Arrasateko Uarkape pilotalekuan zapatutik hurrengo zapatua arte. Ekimena ez du inongo taldek deitu, Arrasateko herritar batzuek baizik, eta eskualde osorako izango da. Euskal Herri osoan egin gura dituzte presoen aldeko baraualdiak, bailaraz bailara, Gabonak bitartean, eta Debagoiena da egingo duen lehen eskualdea.

HIRU ALDARRIKAPEN

Ibaetako Foroak adostutakoa aintzat hartzeko aldarrikatu gura du, batetik, baraualdiak, eta egun presoek bizi duten egoera ere salatu gura dute.

Hiru aldarrikapen nagusi hauek egin gura dituzte, batik bat: gaixotasun larriak edo sendaezina dituzten presoak aske uztea -Debagoieneko bi herritar daude egoera horretan, Jon Agirre aramaioarra eta Josu Uribetxe-



Jon Agirre.

GOIENKARIA

barria arrasatearra. Bigarren aldarrikapena da zigorra beteta duten presoak kaleratzea, eta hirugarrena, euskal preso politikoak Euskal Herriratzea, ez bakarrik legeak dioelako, baizik prozesu politikoan presoek ere

parte hartu behar dutelako, estatus politikoa izan behar dutelako, diote antolatzaileek.

BESTE EKINTZA BATZUK ERE BAI

Baraualdiaz gain, beste ekintza batzuk ere egingo dituzte datozen egunetan presoen alde. Martitzenean, adibidez, kartelada egingo dute baraualdian daudenak Arrasateko Seberren. Egubakoitzean, kale agerraldi berezia egingo dute, eta zapatuan, urriaren 28an, manifestazioa egingo dute Uarkapetik abiatuta 18:00etan.

Baraualdia egiten dutenek atxikimenduak eskatuko dizkiete ibarreko sindikatu, alderdi politiko eta elkarteei. Bestalde, eguneroko bat idatziko dute eta komunikabideetara bidaliko dute Uarkapeko esperientzia.

POBREZIA > POBREZIAREN AURKAKO ASTEAREN BARRUAN

Zero Pobrezia plataformak kale agerraldia deitu du zapatuan Arrasaten

Pobreziaren gaiak jendearen kontzientzietara eramatea eta giza eskubideak eta guztiendako justizia aldarrikatzea dira deialdiaren helburuak

O.E. > BERGARA

Pobreziari aurpegia eman. Ekintza gehiago, hitz gutxiago. Mezu hori aldarrikatuko du Arrasateko Zero Pobrezia plataformak bihar, zapatua, Arrasaten egingo duen kale agerraldian, 19:00etan, udaletxe aurrean. Ibar osora zabaldu dute biltzeko deia.

KONTZIENTZIARA ERAMAN

Zapatuko elkarretaratzearen helburua da jendearen kontzientzietara eramatea pobreziaren gaia, asko entzungor bihurtzen direlako gai horri buruzko zerbait entzuten duten bakoitzean, plataformaren esanetan. Horrekin batera, giza eskubideak eta guz-

tiendako justizia ere aldarrikatuko dute kale agerraldian.

HELBURUAK, URRUTI

Orain sei urte, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Milurtekoaren Adierazpenaren Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuen. Zortzi dira helburu horiek: pobrezia larriena eta gosetea desageraraztea; denontzako lehen hezkuntza lortzea; sexu berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea; umeen heriotza-tasa jaistea; amen osasuna hobetzea;

hiesari, paludismoari eta beste-lako gaixotasunei aurre egitea; ingurumen iraunkorra bermatzea eta garapenerako mundu elkarte bat sustatzea. Hala ere, denbora horretan lortutakoa gutxi dela diote hainbat GKEK eta, bide berean jarraituz gero, 2015eko helburuek askoz ere luzeago joko dutela uste dute.

Gobernuz Kanpoko Erakundeek salatu dute goseak bizi direnen kopurua erdira jaisteko, 145 urte pasa behar direla, gizarteak jarrera aldatzen ez badu.

KIA MOTORS

KIA SORENTO BERRIA 170 zp

Ezagutu ezazu!

Tecnocar

Honda eta Kia banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g - Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38

Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04)
HONDA ACCORD 2.4 i-VTEC (06)
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
HONDA CRV 2.0 ES 4WD (00)
*Prever plana barne.

The Power of Dreams

HONDA CIVIC Hibridoa

- 100 ZP gasolina
- 15 ZP elektrikoa
- 1090 KM (50 litro)
- Herrian kontsumoa: 5,2

Ezagutu ezazu!

KIA SPORTAGE
%12erainoko DESKONTUA

KIA CARNIVAL BERRIA
Ezagutu ezazu!

HONDA CRV Diesela i CTDI
0 km (26.900 €)
Unitate mugatuak

HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*

ENPRESA > FAGORREN ETXETRESNA BERRITZAILEA MERKATUAN

Driron etxetresna berria salgai dago eta 10.000 ekoiztuko dituzte 2007an

Arropa lehortzen eta lisatzen duen Driron etxetresna berritzailea 1.600 eta 1.800 euro artean dago salgai. Fagor Arrasaten ekoizten dute

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Irailean aurkeztu zuen Fagor Etxetresnak kooperatibak Driron izeneko etxetresna berritzailea. Ingeleseko *dry*, lehortu, eta *iron*, lisatu, hitzetatik datorkio izena; izan ere, arropa lehortu eta lisatu egiten du Drironek, eta lan hori egiten duen etxetresna bakarra da, gainera.

USTE BAINO MERKEAGO

Esan bezala, irailean egin zuen Drironen aurkezpen ofiziala Fagorrek, Madril. Ordutik, salgai dago Espainiako estatuko salgoti handietan.

Bi kolore daude aukeran: zuria eta altzairu herdoilgaitzezkoa. Driron zuria 1.600 bat eurotan dago salgai; bestea, berriz, 1.800 eurotan. Aurrez ikusten zuten baino merkeago merkatu dute, azkenean; izan ere, orain dela urtebete Fagorrek etxetresna honen berri eman zigunean, 1.800 eta 2.000 euro artean salgai jarriko zuela aurreratu zigun.



AURKEZPENA Iraileko aurkezpenean Drironen funtzionamendua azaldu zuten.

FAGOR

EKOIZPENA HANDITZEKO ASMOA

Begiratu batera, hozkailu itxura dauka Drironek. 1,80 cm altu, 60 cm zabal eta 57 cm sakon da. Behin garbituta, arropa etxetresnan sartu behar da, modu jakin batean, tenkatuta. Horretarako, hainbat tresna ditu: kakodun perxak, mahuketan barrena sartzeko tentsoreak, kontrapisuak eta beste hainbat dauzka. Kaxoi antzeko bat ere badu arropa txikiarendako.

Datorren urteari begira, 10.000 ale ekoizteko asmoa dute proiektu berri honen arduradunek. Merkatuan ezagunagoa egiten den heinean, baina, salmentek gora egingo dutela espero, eta 2008an 40.000 ale ekoizteko asmoa dute. Ordurako, gainera, produktua estatutik kanporako merkaturara zabaltzea nahi dute arduradunek.

Proiektu oso garrantzitsua izan da Driron Fagorrendako;

sei milioi euro baino gehiago inbertitu du berrikuntza horretan, eta ikerketa eta garapen lanetan hiru urte pasatu dituzte arduradunek.

MUNDUAN BAKARRA

Fagor Etxetresnak enpresa aitzindaria izan da sektorean, izan ere, arropa lehortzen eta lisatzen duen etxetresna bakarra da mundu mailan. Arropa bustia zein lehortza lisatzen du;

DATUA

40.000

DRIRON 2008. URTEAN

Merkatuatu berri dute produktua eta 2007an 10.000 ale ekoizteko asmoa dute; merkatua zabaltu eta produktua ezagutarazi ahala, ekoizpena handituko dute. 2008an 40.000 ekoiztuko dituzte.

arropa bustia lehortzeko bakarrik ere erabil dezakegu eta arropa aireztatzeko aukera ere eskaintzen du, usain txarrak ezabatzen.

Oihal mota gehienak lisatzen ditu Drironek; zuntz naturalak zein sintetikoak lisatzeko prestatuta dago. Gainera, arropak ez dute bata bestea ukitzen; horrela, ez dago oihalak hondatzeko arriskurik.

EKOIZPENA, ARRASATEN

Fagor Etxetresnek Arrasateko San Andres auzoan duten lantegian ekoiztu dituzte aparatu berri hauek eta hantxe ekoiztuko dituzte aurrerantzean ere.

Driron etxetresna berriaren arduradunek espero dute, produktu berria merkatuan finkatzen eta ekoizpena handitzen doan heinean, lanpostu berriak ere sortuko direla. Dena dela, oraindik ez dute datu garbirik.

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Ikusteko 31 sukalde baino gehiago
Merkatuko prezio hoberenak
Europar marka hoberenak

Armeko
Sukaldeak Integralak


Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde eta bainuontzien erakusketa handiena



ONEKOA **YOSU THERMIK** ONEKOA
LEIHOAK ISOLATZAILEAK

Bisita ezazu leihoen erakusketa berria
Kalitate handiena
Gehienezko berma
Prezio hobeak

ERAKUSKETA BERRIA



Kataide Poligonoa, 4 pabiloia **ARRASATE**

943 770157

GIZARTEA > DEBAGOIENEN ODOL EMAILEAK

Ibarreko 79 odol emailek domina jasoko dute Arraten

Elgeta, Oñati, Bergara eta Antzuolako odol emaileak eta Debabarrenekoak batzartu egingo dira etzi, domeka, Arraten

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Urteroko ohiturari jarraituz, odol emaileen batzarra egingo dute domekan, hilak 22, Arraten. Hantxe elkartuko dira Elgeta, Antzuola, Bergara eta Oñatiko odol emaileak, Debabarrenekoekin batera.

Aurtengo batzarrean 79 debagoiendarrek jasoko dituzte Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak banatzen dituen dominak. Horietatik 56k 25 aldiz eman dute odol-

la; bostek, 40 aldiz; 15ek 50 odol emate egin dituzte; bik, 60 aldiz, eta badago 75 aldiz eman duen lagun bat ere. Bergarako odol emaileen artean, 43 laguni emango dizkiete dominak; horietatik bostek urrezko domina jasoko dute, 40 edo 50 aldiz odola eman izanagatik. Gainerakoek, 38 lagunek, hain zuzen ere, zilarrezko domina jasoko dute, 25 aldiz emateagatik. Antzuolarren artean, bi lagunek zilarrezkoa eta lauk urrezkoa; 75 eta 60 aldiz odola eman duten hiru lagunek, berriz, Emaile Handiaren domina jasoko dute. Elgetar batek zilarrezkoa eta bik urrezkoa jasoko dituzte; Oñatira, azkenik, 24 domina joango dira; horietatik 15 lagunek 25 aldiz eman dute odola, zazpi lagunek 50 aldiz eta bik 40 aldiz.

GIPUZKOA OSOAN BATZARRAK

Arratekoa, baina, ez da izango domekan egingo duten batzar bakarra. Izan ere, egun horretan, Gipuzkoako herrietako elkarte guztiek egingo dituzte batzarrak, bakoitzak bere eskualdean. Garai baten, denek batera egiten zuten, Gipuzkoako guztiek batzar bakarra, baina, emaile kopurua hazten joan ahala, bakoitza bere alde-tik egiten hasia erabaki zuten.

LEINTZ ALDEKOAK ARABARA

Esan bezala, Elgeta, Antzuola, Bergara eta Oñatiko odol emaileak elkartuko dira Arraten; ibarreko gainerako herrietara, Leintz aldeko herrietara, Arabako elkarteak etortzen dira eta herrialde horretarako ematen dute odola, ez Gipuzkoako odol bankurako.

Erosketak www.eroski.es helbidean egin daitezke.

GOIENKARIA

Tresna elektrikoak eta teknologia tresnak salduko ditu saretik Eroskik

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eroskik bi denda berri ipini ditu sarean: etxetresna elektrikoak saltzeko bat, eta teknologian espezializatua bestea. Euskal Herrian ipini dituzte abian oraingoz, baina asmoa da beste erkidego batzuetara zabaltzea.

Orain arte esnea, kontserbak, arraina, frutak... eros zitezkeen saretik; hemendik aurrera, internet bidez hozkailuak, aire girotu aparailuak, sakelako telefonoak eta ordenagailuak ere eskuratu ahal izango dira, besteak beste. Guztira, 650 produktu aurkituko ditugu etxetresna elektrikoaren denda; teknologia arloan, 3.600 produktutik gora daude.

Denda hauetan etxetik erosketak egiteko www.eroski.es helbidera jo behar da. Entrega-epea zazpi eta hamabost egun artekoa izango da. Erositakoa probatzeko, berriz, bi aste izango ditu erosleak.

EAE, euriborraren iguera gehien igarriko dutenetakoa

Euriborra %3,715era iritsi zen irailean; beraz, hipotekak kontratatuta dituztenek edo hauek berriz aztertu behar dituztenek hileroko kuotan iguera sumatuko dute, batz bestea 101,02 eurokoa, hain zuzen ere.

Hainbat autonomia erkidegotan, gainera, handiago izango da iguera: Madrilgo, Katalunian eta EAEn, esaterako. Horren arrazoia da hipoteken batz bestekoa handiagoa dela autonomia erkidego horietan. Euskaldunek 116,22 euro gehiago ordainduko dituzte hilean, eta 1.394,64 euro gehiago urte amaieran.

Bost bidaiarietatik bik janzten du atzeko segurtasun uhala

Segurtasun uhala erabiltzeko autoen arteko talketan %65ean zaurien larritasuna arintzen du, besteak beste burua eta toraxa babesten dituelako.

Uhala erabiltzea derrigorra den arren, Direct Seguros enpresak eta Real Automovil Club de Españak ikerketa bat egin du erabilera zenbatekoa den frogatzeko.

Ikerketaren emaitzen arabera automobiletako atzeko eserlekuetan jartzen diren bost bidaiarietatik bik baino ez dute janzten segurtasun uhala. Aurreko eserlekuetakoek %80an ipinita zuten uhala.

Fernando Idigoras > Bergarako delegazioko presidentea

"Egingo diguten omenaldia herriak jaso beharko luke"

A.I. > BERGARA

Fernandok 33 urte daramatza Bergarako Odol Emaileen elkartearen lanean. Elkartearen presidentea da gaur egun, eta Debagoieneko arduradun lanetan ere ibilitakoa da.



GOIENKARIA

Europarazko odol-emate maila askogatik gaitzen duzue Bergaran. Zein da, bada, maila hori?

Sortzen diren beharrei aurre egiteko, 1.000 biztanletik 50ek odola ematea komeni dela diote Europako erakundeek. Bergaran, 1.000 biztanleko 78 gara odol emaileak. Hori oso datu ona da eta, elkarteko presidente moduan, oso harro nago. Gainera, Gipuzkoan, odol emaile kopuruari dagokionean, hirugarren postuan gaude, Donostia eta Irunen atzetik.

Emaizta bikain horiek direla eta, omenaldia jasoko duzue laster, ezta?

Halaxe da, bai; oraindik ez dakigu ziur noiz izango den, baina uste dugu azaroan izango dela. Europak ezarritako maila gaitzen dugun delegazio guztiek jasoko dugu omenaldi hori. Dena dela, delegazioak bai-

beharrean gaude eta, beraz, herri osoak merezi du omenaldi hori.

Gazteak animatu nahi izaten dituzu beti. Gutxien inplikatzeko diren dira?

Bai; oso garrantzitsua da guretzako gazteen inplikazioa bultzatzea. Gazte gutxi dago era honetako alorretan lan egiteko gertu. Guk urte asko daramagu lanean eta gazteen hutsunea nabaritzen dugu.

Odol emateek gora egin dute azkenaldian honetan?

Zoritxarrez, ez; Gipuzkoan, gure helburua zen urtean 3.000 odol-emate gehiago lortzea, baina ez dugu lortu. Alderantziz, behera egin dute, gutxi baldin bada ere.

Zer egin behar du lehenengo aldiz odola eman nahi duenak?

Guregana jotzea nahikoa da. Hori bai, 18 urtetik gorakoa izan behar du. Gero, medikuak azterketa egingo dio. Herriar guztiak animatu nahi dituzte; beldurrak alde batera laga eta etor daitezela.

2. (BN/L) ...
... plos más antiguos, con sentido ...
eleberrigile. iz. Novelista.
eleberrigintza. iz. Novelística.
eleberriti. izond. (BN/L) Cuentista, chismoso, -a.
eleberritsu. izond. (BN/L) Cuentista, chismoso, -a.
elebide. s. Herritarren hizkuntz eskubideak bermatzeko zerbitzua.
fig. Elebitasunerako bidea.
Hizkuntzari bide egiteko zerbitzua.
Iñakik Elebidera jo zuen hizkuntz eskubide urraketa bat zela eta, kexa jartzera.
elebidun. adj./iz. Bilingüe.
elebitasun. iz. Bilingüismo.
...
... afrikar. (Zool.) Elefante

zure hizkuntz eskubideak babesteko



@ elebide@ej-gv.es

WWW www.euskadi.net/elebide

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ

012

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

gure artekoak

EZPELETA > Joakin Ezpeletak hasitako bideari jarraitu diote ondorengoek eta Oñatiko lantegian aterkiak egin eta merkaturatzen dituzte. Euritako arropa, terrazetako altzariak, eguzkitakoak... ere merkaturatzen dituzte.

Ana Mari Ezpeleta

"Gurean egiten duen klimarako ezinbestekoak dira aterkiak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Aterkiak egiten dituzte Oñatiko Ezpeleta lantegian; baita kanpotik ekarritakoak merkaturatu ere. Bertakoen kalitatea eta diseinua azpimarratzekoak dira. Arropak ere badituzte eta moda esparruan lekua hartzea da hurrengo erronka.

Nola hasi zineten?

Oñatin Enparantzak aterki fabrika bat zeukan eta gure aita hango langilea zen; gero, bere kontura ipini zuen lantegia, eta guk aitaren bideari jarraitu diogu.

Zergatik aterkiak?

Gurean egiten duen klima ikusita, beharrezkoa eta interesgarria zela pentsatuko zuen.

Aterkiez gain, egun beste produktu batzuk ere egiten dituzue.

Vigoko lantegian udako produktuak egiten dira: parasolak, lorategiko eta ostalaritzako produktuen merkaturatzea... Oñatin aterkiak eta euritarako arropa ditugu. Aurten negu eta udazkerako bilduma atera dugu.

Hedapena nola egiten duzue?

Neguko produktuak zuzenean dendetara zabaltzen ditugu. Publizitateko produktuen bila bezeroak zuzenean etortzen dira. Udako salmenta Vigotik egiten



Ana Mari, Karmentxu eta Ines aterki mota ezberdinekin.

I.A.

FITXA TEKNIKOIA

> LANGILEAK

Guztira 60 langile inguru daude Ezpeletan; Oñatiko lantegian, 12.

> TOLESGARRIAK

Gehien saltzen diren aterkiak tolesgarriak dira. Bestalde, aurten atera dute modelo bat euritarako eta eguzkitarako aproposa.

> EGURALDIA

Euren salmentak eguraldiak baldintzatzen ditu. Azken eguntako euriak direla eta, eskariak handitu egin zaizkie.

dute. Gure merkatua Espainian eta Portugalen dago eta pixka bat esportatzen dugu Europara ere.

Zenbat aterki mota dituzue?

Nagusiki hiru produktu ditugu: bertan egindakoa, Txinatik ekarritakoa eta Alemaniako etxe baten eskusiba ere badugu.

Hemen nola egiten dituzue?

Material gehiena Italiatik ekartzen dugu. Lehen armazoiak Oñatin egiten zen baina orain Txinatik ekartzen dugu. Hemen diseinutik hasi, muntatu eta banatu egiten ditugu.

begi-bistan



Zortzi ondo batean (Oñati) 2006/01/28

Argazkia: Oihana Elortza.
Testua: Irati Agirreazaldegi.

Onddo bolada da eta guretik asko joan dira perretxikotara bai Nafarroara eta baita inguruko mendietara ere. Oñatiar batek hartutakoa da onddo hau: sustrai beretik jaitako zortzi perretxiko ditu.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

etxeke leihotik



Aitziber Aranburuzabala > Arrasate Irratiko arduraduna

Eman aukera bat ezezagunari!

Musikazalea naiz. Irrikaz hartu dut aurten ere Danbaka musika lehiaketa. Egia esan, ez ditut talde gehienak ezagutzen. Hala ere, joateko asmoa dut, seguru nago-eta, guztien artean, aurkituko dudala gustukoren bat baino gehiago.

Jakin-mina ere badaukat. Ez nork irabaziko duen jakeiteagatik, taula gainean ikusi eta entzuteko daukagunagatik baizik! Aretoak segituan betetzen dira, izen handiko musikari eta aktoreekin. Lekua sobera egoten da, oster, cache baxuagoa dutenen emaldietan, nahiz eta kalitatea bermatuta izan.

Sarrerak merkeak izatea, duda barik, eskertu dut. Ez diot normalean sarreraren salneurriari begiratzen. Baina kultura garesti dago. Ez dut artisten soldata jaitsi nahi. Alderantziz, kultura subentzionatuko nuke, kultura gosea dutenek diruaren aitzakia izan ez dezaten. Tira, oraingo honetan gazte-txartela barikook ere sarrera merke erosi ahal izango dugu!

Eta Elgeta ez dago hain urrun. Seguru pasa den asteburuan kilometro gehiago egin ditugula!

> **Garai baten** Debagoiena musika estilo batekin lotzen zen, punk edo oi doinuekin. Egun, estilo askotariko taldeak daude. Horren erakusle, Danbaka musika lehiaketan dagoen menu zabala.

> **Tranpolin polita da** musikarientzako Danbaka musika lehiaketa. Begiratu besterik ez dugu, aurreko edizioako podiumeko taldeak noraino heldu diren. Aurtengo partaideei ere, zorte ona opa diet!

izen propioak



Iñaki Arriola

GARRAIO ETA LOGISTIKA KLUSTERRA


EAEn garraioaren eta logistikaren sektorean jarduten duten 39 enpresak Garraio eta Logistika Klusterra sortu dute Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Sektorean lehiakortasuna hobetu nahi duen talde horretako presidentea da Iñaki Arriola bergararra.



Edurne Eraña

MARGOLARIA

Edurne Eraña bergararrak pintura erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Eibarko Topaleku aretoan (Zuloagatarren kaleko 3. zenbakian). Erakusketa urriaren 29ra arte egongo da ikusgai. Aste barruan 19:00etatik 21:00etara eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.



Alejandro Franco

XAKE JOKALARIA

Nazioarteko maisu maila duen Alejandro Franco xake jokalaria madrildarrak irabazi du Arrasate Hiria Xake Txapelketa. Bigarren postua Fran Miguel aretxabalettarrarendako izan zen. Josu Tornay bosgarren postuan arrasatearrak onena izan zen.

Hiru hilabete egin ditu Eduardo Zubiaurrek Adegiko patrona-ko Jaz Zubiaurre enpresako gerentea ere bada eta aitortu duela agenda eta bizimodua pixka bat aldatu egin zaiola. Ego-ko Jaz Zubiaurre enpresako gerentea ere bada eta aitortu du orain lehen baino beteago duela agenda eta bizimodua pixka bat aldatu egin zaiola. Ego- kitze prozesuan ei dago orain- dik. Elgetan bizi da, eta egune- an birritan egiten du Eibarre- ra, lanera, joan-etorria.

Eduardo Zubiaurre > Adegiko presidentea

"Hemengo enpresek ere igarri dituzte industria sektoreak dituen arriskuak"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Altzairuzko hariarekin egiten dute lana Eibarko Jaz Zubiaurre enpresan. Lantokian zegoela egin digu kasu Eduardo Zubiaurrek, Adegiko presidentea. Ekonomiak egun duen hazkundea ona dela aitortu arren, kezka handiz begiratzen dio etorkizunari, globalizazioaren arriskuak hasi direlako nabaritzen hemengo enpresak ere.

Egia da sasoi ekonomiko onean gaudela?

Dударик ez. Ekonomian orokorrean ematen dituzten datuak oso onak dira, eta nabari da: jarduera tasak altuak dira, %4tik gora bai Gipuzkoan bai EAEn; langabeziak ere behera egin du eta hori ere adierazle ona da. Hala ere, aspaldian ari gara esaten badaudela arrisku eta mehatxuak etorkizunera begira, batez ere industrian.

Zergatik dago arriskuan industria sektorea?

Lehengaien prezioak oso altuak dira, azken bizpahiru urteetan ikusi dugun moduan; inflazioan ere, gure lehiakide diren herrietakoak baino tasa handiagoak ditugu; euroa ere oso altu dago eta interesak ere gorantz doaz, besteak beste. Industriak nazioartean, munduan, lehiatu behar du eta ikusten dugu zailtasunak gero eta handiagoak direla. Adibidez, esportazioak bilakera negatiboa izan du bigarren hiruhilabetekoan, eta industrian azken bizpahiru urteetan sortu dituzten lanpostu kopurua ere jaisten joan da. Eraikuntza eta merkataritza hazten ari dira, lanpostuak sortzen dituzte; industria baino hobeto doaz.

Debagoienean ere enpresa dezentek dihardute industria sektorean. Horietan ere nabari da arrisku hori?

Orain gutxi egin genuen bile- ra Debagoieneko enpresaburu-ekin, eta nabarmen gelditu zen eurak ere kezkatuta daudela.

Ze bide jarraitu behar dute etorkizun onaren bila?

Merkatua eta produktua ikusi- ta, bakoitzak asmatu behar du. Nire ustez, hiru ardatz nagusi daude edozein proiektu etorkizun-ean kokatzeko: pertsonen trebetasuna, prestakuntza, inplikazioa; teknologian eta ikerkuntzan egin daitekeen guztia egitea; eta hirugarrena, globalizazioa. Aukerak eta mehatxuak eskain-



Elgetan bizi da Eduardo Zubiaurre. Eibarrekoa da eta han egiten du lana.

ETA KITTO

tzen dizkigu globalizazioak, eta hor tokia hartzen jakin beharko du enpresa bakoitzak.

Enpresa zenbat eta handiagoa izan, arrisku gutxiago?

Handiek beheranzko inertzia dutenean hori aldatzea zaila izaten da: zarata handia ateratzen dute, txikiek egiten ez dutena. Pertsonen inplikazioa, adibidez, errazagoa izango da txikietan, baina teknologian eta globalizazioan neurri minimo bat behar da gauza askotarako, eta handiek abantaila dute hor.

Deslokalizazioa ere arriskuen artean dago?

Jakina. Deslokalizatzeo era- bakia hartzen denean eta lurraldean edo inguruan eragina baldin badauka, arazoa da, dudarik ez. Deslokalizazioa, azken baten, globalizazioaren ondorio bat da. Globalizazioak sortzen dituen egoera aldaketan aurrean har-

DESLOKALIZAZIOA

"Lehiakortasuna da enpresak irauteko bermea, eta horretara moldatu behar dira"

LAN ISTRIPUAK

"Enpresaburuok, sindikatuek eta langileek, batera, ekidin behar ditugu arriskuak"

ADEGI-SINDIKATUAK

"Egungo harremana ez da ona, baina konpondu egin beharko dugu, inori ez dio onik egiten eta"

tzen dituzten neurriak dira deslokalizazioak, eta askotan izaten dute zerikusia enpresaren lehiakortasunarekin. Dena dela, hori orokorrean gertatzen da, eta kasu bakoitza aztertu behar da, zehatz, iritzi bat emateko.

Justifikatuta dago deslokalizazioa, helburua lehiakortasuna baldin bada?

Irauteko bermea da lehiakortasuna, eta hain azkar aldatzen ari den egoeran lehiakor izateko, enpresak ere egokitu eta moldatu egin behar du. Hori eginez gero, multinazional batek nahiz enpresa txiki batek etorkizuna izango du.

Enpresa baten helburua da merkatuaren aurrean lehiakorra izatea, errentagarritasun minimo bat izatea eta lanean ari diren pertsonen ongizatea bermatzea. Lehiakorra izan barik, enpresak ez du etorkizunik izango ez epe motzera ez luzera.

Egungo egoerak lagundu du sasoi ekonomikoa ona izaten?

Momentuz ezin da zuzenean hori neurtu. Hala ere, indarke-riak kalte egin zion bezala, bake prozesuak on egingo dio jardue- ra ekonomikoari.

Zer eskatzen dio Adegik bake prozesuari?

Denok ditugun helburuak lor- tzea: bakea, normalizazioa eta adiskidetzea.

Beste hiru langile hil dira aste honetan lanean ari zirela. Nola aurre egin lan istripuei?

Arazo larria da eta denon artean ekidin behar dugu, elkar- lanean. Beherantz doa tasa, bai- na oraindik oso altua da eta nahi-koa da langile bat bakarrik hil- tzea egoera oso larria izateko eta ahal den guztia egiteko.

Istripuak gertatzen dira arris-kuak daudelako, eta arriskuak aurkitzeko, zehazteko eta neurri prebentiboak jartzeko lana denon artean egin behar dugu, lankide- tzan. Hori ez da iskanbilak eta gatazkak sortzeko gaia.

Nola ekidin daitezke, bada, lan arriskuak?

Eraikuntza da lan istripu gehien izaten ari den sektorea. Lan arriskuen aurrean jarrera ezberdinak dituzte sektore eta enpresek, baina istripuen aurka-ko jarrera guztiok izan behar dugu, enpresaburuok, sindika- tuek eta langileek.

Ze harreman ditu Adegik sindikatuekin?

Ezin daiteke esan onak dire- nik, eta hori ez da batera lagun- garria ekonomiarendako eta enpresendako. Hori da dugun beste arazo larri bat eta guztion artean konpondu behar duguna.

Ari zarete konpontzen?

Ez, ez. Lan harremanen kon- tseiluan eta duela egun batzuk Hobetuz-en gertatu zena horren adibide batzuk dira. Baina kon- pondu beharko dugu, egoera honek ez du onurarik inorenda- ko eta.

Nola ikusiko dira praktikan enpresak euskalduntzeko planak?

Lana euskalduntzea erronka polita da baina baita potoloa ere, eta denborarekin gaintitu beharre- koa. Hezkuntzan 20 urte behar izan dituzte egungo maila izateko, eta lan mundua atzeratuagoa da.



zabalik

Inazio Arregi

Foroa

Hondamendia hitzak definitzen ei du ondoen gizateriaren etorkizun hurbila. Ez da lehen aldia klima aldaketaz, negutegi efektuaz edo energia fosilen agortzeaz idazten dudala eta aurrekoti onak ez dut lehen baino optimistagoa izateko arrazoirik aurkitu.

Batzuek diotenez, aldaketarako tendentzia ez da hain garbia. Urteetako datuak beharko dira gai hauetaz serio hitz egiteko. Bitartean, bakoitza bere autoan lanera, eraikitzen —hondatzen, behar bada— ari garen etorkizunaz jabetu gabe. Datu ofizialek diotenez, 1990-2003 epealdian, garraioaren ondorioz eguratsera igorritako CO2-ren kopurua %58,3 gehitu da. 2003an, CO2-ren isurketa guztien %32,5 garraioak eragindakoak izan ziren eta %24,4 errepide garraioarenak, hau da, gutariko bakoitzak gure lanera, oporraldietara edo onddo bila goazenetan isuritakoak.

Testuinguru honetan, txalotzeko da Arrasateko Udalak garapen jasangarriko plana egiteko hartutako bidea. Foroak eman ditu bere lehen iritziak. Nola konbentzitu orain gure herrietako jendea autoa garajeen utzi beharraz, edo ateratzekotan beteta eramateko izan behar duela? Nola konbentzitu garapen jasangarriaren klabeetan antolatutako behar dugula gure etorkizuna?

Badute lana Udalean dauden alderdiek. Euren arteko adostasuna behar-beharrezkoa dugu honekin aurrera jarraitzekotan. Datorren udaberriko botoen errentagarritasuna albo batera utzi beharko dute. Herritarren foroak landutako txostenaren inguruko erabateko adostasuna ezinbestekoa da urratsak ematen jarraitu ahal izateko. Beste edozein erabaki herritarren partaidetzari iruzur egitea litzateke.

Halere, ez da nahikoa izango egun Udalean dauden alderdien onspena jasotzea. Batean batek lortu beharko du une honetan Udalean ordezkariarik gabe dagoen mugimendu garrantzitsu baten konplizitate, planak guztien oniritzia izan dezan. Bestela, jaiotzeko dena maitasun gabeziaren batekin etorri daitekeelakoan nago.

"Nola konbentzitu jendea autoa garajeen utzi beharraz?"

"Alderdien arteko adostasuna behar-beharrezkoa da honekin aurrera jarraitzekotan"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Sailetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziertra Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berebizbar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

herritarrek galdezka

TELEBISTA KATEEN SEINALEAK OÑATIN

Hainbat oñatiar kexaka dabil azkenaldian, telebista seinalea ez duelako ondo jasotzen. Hori kexu hori heldu zaigu geuri ere. Erantzuna Oñatiko Udalak eman digu ohar baten bidez. Hemen azalpenak:

"Oñatiko zenbait bizilagunen kontsulta eta kexak jaso ondoren, eta ahal den neurrian arazoa konpondu nahian, behar den erakundeekin hizketan aritu gara.

Zehazki, honakoa jakinarazten dugu: Itelazpi enpresa dela behar den kalitatearekin ETB1 eta ETB2ren programak eskaintzen dituena eta Abertis, berriz, TVE1, TVE2, A3, T5 eta La Cuatro kateen programez arduratzen dena.

Abertis-ek, Euskal Herriaren %80ko estaldura bakarrik duelako gertatzen da arazoa, eta nonbait ez du intenziorik urrutit dauden eta biztanle gutxi dituzten herrietaraino iristeko.

Abertis-en hutsune hori konpondu nahian, hainbat gastu sortzen dira eta lehen Eusko

Jaurlaritzak eta orain Itelazpi hartzen ditu bere gain koste horiek, nahiz bere egitekoa izan ez. Hortik dator, beraz, betidanik Oñatin ere arazo horiek jasatea.

Prentsaren bidez jakinarazitako urrats horiez gain, Itelazpi-tik honako ahaleginak egin dituzte telebista-programen kalitatea hobetu nahian:

Antena 3 (A3): Joan den astean Belar-go errepikagailuan A3

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

digitala (TDT) jasotzen duen ekipoa ezarri da, ea sarrerako interferentziak ezabatuz, betiko kanalak ondo ikusteko aukera dugun.

TVE: kasu gehienetan sumatu diren akatsak telebista Belarreko errepikagailuarekin berriz sintonizatuz konpondu dira eta ez Gorostiaga mendikoarekin.

Ondoren agertzen dira Belaren jasotzen diren kanalak, behar bezala sintonizatuz. ETB1: 51; ETB2: 49; TVE1: 45; TVE2: 47; T5: 25; A3: 57; Cuatro: 40.

Programa guztiak neurtuko dira sarreran eta irteeran interferitutako beste kanalen bat dagoen ikusteko eta beharrezkoa balitz aldaketaren bat egiteko.

Honainoko azalpenekin uste dugu hobetu egin litekeela egoera; seinalea jasotzerakoan arazoren bat dagoen kasuetan, 901 64 06 50 telefonora deitu dezakezue eta handik deituko zaio dagoen zerbitzu teknikoari".

Oharra ez du aipatzen Goiena Telebista zein kanaletan sintonizatu daitekeen. Honetan: UHFko 28. kanalean.

marrakiz

Alex Ugalde



Tenporek txarra iragarri dute

Txetxu Urbietta
www.uztarria.com/blogak/txetxu

Pello Zabala lagunaren beharrik ez dut izan zalantza guztiak argitzea. Tenporek Anoetarako giro txarra iragarri dute. Tenporena gezurra bada hobe.

Hotza naizela diote, pragmatikoa. Bakero hitz eta pitz, esan eta jardun, baina gero zelaian ezebez. Zelaian zerbait egiten dutenean hasi bedi goizuetarra oraingoz saldu ezina dena saldu

nahian. Hotza naiz baina nik ere badut nire bihotztxoa. Eta futbola niretzat sentimendua denez, bihotz horretan Realak badu bere lekutxoa. Horregaitik min egiten dit partidua hasi aurretik gure jokalaria txistukatzea. Neuri buruari harrika aritzeak ez du zentzurik.

Modak dira eta moda izaten jarraituko dute. Reala Anoetara joan zenean, "lo chic" Realeko bazkide egitea zen. Orain kapitalean "lo chic" zezen plazara saskibaloia ikustera joatea omen da. Inor ez dago soberan baina Anoetan ez dira faltan botako.

Nafarroa inbaditu genuen

Mikel Irizar
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Nafarroa garai aldera jo dugu egunotan, aspaldiko partez: Lizarra, Tafalla, Artaxoa, Tuter, Bardeak... Paraje eder asko ikusi dugu, patxadaz; tokatzen zenean, noski, bapo jan eta edanez. Gozatu galanta hartu duguna.

Hausnarketarako puntua jarri dit Nafarroa garaiko ondare historikoak. Hemen jo

plazara

Bake prozesuaz, gaur egun bizi dugun egoeraz, alderdien mahaiaz, gehiengoaz, Batasunaren legeztatzeaz... eta batik bat itxaropenaz dihardu EAJko ordezkariak iritzi artikuluan. Bere garaian Agirre lehendakaria izan zen moduan, gaur egun eta hemen, itxaropena Ibarretxe lehendakaria dela dio, batzuen eta besteen interes partikularren gaintik dagoelako.

Karlos Ormazabal *

Itxaropenak Ibarretxe du izena

1936ko urriaren batean onartu zen historiako lehen Euskal Estatutua Gorte errepublikanoetan. Urriaren 7an, Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako Lehendakari izendatua izan zen Gernikan. Ordutik 70 urte igaro dira oraintxe. Estatu berri baten esperantzak (bere moneta, ejertzi-toa, kanpo politika, justizia administratza, unibertsitatea eta baita polizia ere —Ertzaintza— izan baitzuten) bederatzi hilabete iraun zuen. Franco boterera eramanean zuen guda zibilak 40 urteko diktadura suposatu zuen, eta baita Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde traidoreen foru eskubideen galera.

Izan zitekeena eta izan ez zena. Eta izatera iritsi daitekeena.

Orduan Agirre Lehendakaria esperantza zen bezala, orain esperantzak Ibarretxe du izena.

Hala eta guztiz ere, batzuek gaurko esperantzari balio ahulagoa eman nahi diote. Esaldi berak, hamar segundo baino gutxiagotan adieraziak, esperantza sortzetik esperantza galtzera pasarazi gaitzake: euskaldunek askatasunez eta demokratikoki erabakiko dute zer izan nahi duten (esperantza) beti ere indarrean dagoen legedia errespetatzen badute (esperantza galtzea).

Egia esateko, Espainiako Gobernuak Lehendakaria den Zapaterok esandako esaldia, "esperantzak zutik dirau", egiten zaigu arrotza, urrunekoa, hirugarren pertsona esandakoa. Orain, esperantza: Zapatero. Geroxeago, esperantza: Batasuna. Esperantza bat bestearen aurka. Eta bakoitza bere esanahiari erantsita ondo datorkiolako, besteari errua leporatuz,



MIKEL ARROIABE

prozesu baten amaiera gaizki bukatzeko arriskua ikusten badute.

Zapaterok, sozialistek, Batasunaren esku uzten dute legeztatua egon dadin beharrezkoak egin ditzan, eta, gainera, sozialistek Batasuna legeztatua ez dagoen bitartean mahaian eseriko ez direla esateak, alderdien mahaia atzeratu besterik ez du egiten. Badi-rudi legeztatua izateko baldintzak ez direla egokienak momentu hauetan.

Nahiz eta itxarongarriak ez izan, alderdien mahaia osatzeko baldintzak aurreikusten ari gara: beharrezkoak diren gehiengoak erabakiak hartzeko. Sozialistek, sentsibilitate ezberdinen arteko alderdien akordioak eskatzen

"Zer itxaron daiteke, hemen, demokraziaren muina bera —gehiengoa— ezeztatzen dutenengandik?"

"Halere, Indarrak edo botoak zatitzeari dagokionez, nahikoak gara gu geu bakarrik"

dituzte. Zer itxaron daiteke, hemen, demokraziaren muina bera —gehiengoa— ezeztatzen dutenengandik? Gehiengo hitza alderdikeri interesaren baitan dago? Edo hurrengo hogeitertan buru makur jarri beharko gara gutxiengoaren diktaduraren aurrean?

Bitartean, sozialistak "eskuin muturrarekin" adostasun bikainak sinatuz. Horrek balio du, beraientzat, baina, badi-rudi Euskadin bakarrik. Baita Nafarroan ere, non sozialista hautesleak ez dien muzin egiten eskuin minduarekiko akordioei.

Baina, euskal nazionalisten arteko adostasunak lortzeko modua aurreikusten dutenean, orduan zeharkako adostasunei buruz hitz egiten hasten dira (beraiekin, noski).

Hala eta guztiz ere, sozialistek ez dute beharrezkoa euskal nazionalismoa banatuko duen kataluniarren itxurako estrategia bat.

Indarrak edo botoak zatitzeari dagokionez, nahikoak gara gu geu bakarrik, kontrakoa nor den ikusteko gai ez garenean. Lehen, argi eta garbi ikusten zen, elefante bat ontzitegi batean bezala. Orain, besterik gabe, ez da ikusten edo batzuek bai, baina, nola-baiteko bakezale gisa ikusten dute.

Ez dezagun ahaztu batzuen eta besteen helburua berbera dela egiteko modua ezberdina den arren.

Eta garbi eduki behar dugu zein izen-abizen duen gure esperantzak

* EAJko Gipuzkoako Erki Batzarreko kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Zubiaurre kasuan, Realak du arrazoa?

BAI	%77
EZ	%23

> ZEINEK BA?

Talde batekin kontratua daukan jokalaria bat beste talde batekin aurkeztia? Noiz ikusi da hori? **Realzale**

> LAMIKIZ ERRUDUN

Lamikiz izan zen errudun; Lamikiz eta Zubiaurre. **Patxi**

> REALAK EZ DU LOTSARIK

Realak ez dauka lotsarik. Lau txakur handi ordaintzen diot jokalaria bati 33 milioi euroko etete klausula jartzen dio. Ez da bidezkoa! **Gari**

> ORDAINTZERA!

Bilbotarrak, ordaintzera! Zubiaurre ez duzuela utziko bakarrik? Joka dezala Bilbon berak hala nahi badu, baina bilbotarren ordain dezatela. **Dibi**

> REALAK GARBI EZ

Realak ez du garbi jokatu eta jokalaria gazte bati sekulako *putada* egin dio. Realak da erruduna. **Mikel G.**

DATORREN ASTEKOA: Gustatu zaizu Bergarako Agorrosin gune berria?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ta fuego gabilta gure herrien 650-750 urteurrenak ospatzen eta han, berriz, edonon daude X-XI mendeetako eraikinak eta gertakizunak, txukun asko gordeta.

Esan nahi dut: inon egotekotan, han dago iragane-ko enborra, gu adaskak gara. Areago, nafar bandera gorria izanda erresuma zaharren ikur, berak behar luke balizko euskal estatuarena, Nafarroa izeneko estatu independentearena. Zertan gabilta gu ikurriñak eta aberri izenak asmatzen?

Juan Kruz Alliri irakurria diot zer nolako eraso kirtena

izan zen 1977ko Askatasunaren Ibilaldia. Estatu frankista desegiten ari zela, non agertzen diren baskoz osatutako jende andanak Araba eta Gipuzkoatik Nafarroara, ikurriñez lepo eta Nafarroa Euskadi da! etengabe oihukatuz. Zaila da eraso inperialista bat hobeto antzeztea; eta hau lotsa propioz diot, han bainintzen Arazurin, ikurriña eta lelo haien pean.

Txarrena da jardun baldarrak iraun egin duela, modu askotan. Sanzek ez du izan meritu apartekorik, gure aldetik laguntza itzela jaso du.

Eta, hala ere, nafar jendarteak erakusten du behin eta berriz esparru komunak nahi dituela mendebaldrorok, haiek errespetatzen baditugu. Azken adibide garbia izan da gobernuaren inkesta batek Iruñerrian nabarmendu duen jarrera, euskararen alde.

Denbora asko eman dugu norabide okerrean aurrera baina, nafar askoren zintotasunari eta Nabaralde moduko ekimenei esker, hasi gara beste ikuspegi batzuk gureganatzen. Nafartasunean eta euskararen elkartuko al gara euskalerritarak!

koplak

Irati Agirreazaldegia

Jende pila perretxiku bila

Goizean goiztar ohetik jaiki eta perretxiku bila, gauean denok afal dezagun ondo zurien tortilla.

Pago azpian zein pinudian bilatzeko egokia, baina biltzaile onak sekula ez du esaten tokia.

Naparren altxor preziatuenak saskiratzen badakigu, ta Robasetas izena beraz guri hortik datorkigu.

Onddo zurik zein ondo beltzak bestela gibelurdinak, asebate ta gozatzen ditu sarri asko moko finak.

Hala ta ere guk itxurari erne ipini arreta, pozointsuekin kontuz ibili traizionero dira-eta.

Asteburuan bete goraino basoren baten otzara, eta zapatuan afal orduan gu inguratuko gara.

Guk gaur, Jaurlaritzak lau urte barru

Fermin Lazkano (Kontseilua)
Euskal Herria

Nola egingo duten ez badakigu ere. Hori edo Patxi Baztarririk edo Miren Azkaratek edo haiek ordezkatzeko dituztenek erabakiko dute. Hori bai, EAErentzat bakarrik, dirutza gastatuz, azpikontratatu eta ideiarene asmatzaileari edo urtetan horretan jardun duenari zipitzik galdetu gabe. Zergatik erabaki dugun guk gaur, euskaltzale bitxiok, hurrengo legegintzaldian egingo dutena? Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak gaur egin duelako bere aldiroko bilera eta bertan euskararen aldeko estrategiaz hitz egin dugulako, abian ditugun asmoak berrikusi ditugulako eta berriren batzuk asmatu ditugulako.

Eta, jakina, Jaurlaritzaren Kultura Saila eratu zenetik beti jakin dugulako eta hutsik egin gabe. Izan ere, herri mugimenduak aurretik asmatu eta egin dituelako gauzak. Sarri. Sarriegi. Eta egingo ez dutena ere badakigu jakin. Baina hori beste baterako utziko dugu.

Oraingoan Patxi Baztarririk erakutsi du erabakia: "Euskararen erabileraren kalitate-ziurtagiria" sortuko dute alor sozio-ekonomikoan enpresa bakoitzak duen euskararekiko jarrera baloratu eta erakusteko. To! Ez zegoen, bada, orain lau urtetik *Bai Euskarari* ziurtagiria, Euskal Herri osoan hedatua ehunka eta ehunka erakundek lortua? Bai, hasi denda txikie-

Antzuolako gauzak

Mikel Aristi Gabilondo > Antzuola

S agastiko parkearen auzia dela-eta, azaldu diren pintaketei buruz, bai Dina Mujika alkate ordeak, baita Irati Agirreazaldegik kazetariak GOIENKARIAN sinatzen dituzten idatziak irakurri ondoren, bai batean bai bestean ez da azaltzen pintaketen edukia. Nik ikusi nituenak hau esaten zuten: "Jose Angel herriari entzun". Egia da gure etxe azpian inori ez zaigula gustatzen horrelakoak ikustea, baina hortik irainak eta mehatxuak izan direla esatea gezurra eta gehiegikeria hutsa da.

tatik eta galantetan eta denon ezagunak diren enpresa handietan amaitzeko. Hiru maila dituen ziurtagiria: *Bidean, Zerbitzua euskaraz eta Lana eta zerbitzua euskaraz.* Ziurtagiriaren banaketan era guztietako pertsonak izan dira babesa ematen, euskaltzaleak, sindikatuak, enpresariak, elkartek, diputatu nagusiak... Baina ez; ziurtagiri hori Kontseiluak sortu, hedatu eta babestu du eta hori euskararen aurkakoa dela iritzi diote Kultura Sailean. Beraz, beste bat sortu behar, ofiziala, EAEkoa, azpikontratatu...

Eta artikulua izenburuan lau urte barru egingo dutena badakigula esan dugu, hogeita sei urtez berdin egin dutelako. Hurbiletik ezagutu ditudan eta esanguratsuenak diren bakan batzuk aipatzea-rrin:

- AEK udal euskaltegiak sortzen hasi udalen lankidetzaz (Laudio, Eibar, Tolosa...) eta Kultura Sailak Udal Euskaltegi publikoen sarea muntatu, AEK baztertuz, zegoen tokietatik ere.

- AEK-k Euskal Herrian erakundetzeko urratsa egin eta Kultura Sailak HABE

erakundea sortu (non ote orain hura?)

- *Argia* eta euskaltzale batzuek euskarazko egunkari bat sortzeko deia egin eta Kultura Sailak egunkari *publiko* bat egin behar zela, ez besterik. Beno, besterik bai, boikot latza herri mugimendutik sortu zenari.

- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari Herrietan deritzan udalentsako hizkuntz plangintzak abiatu hainbat eta hainbat udalekin batera, eta Kultura Sailak Euskara Biziberritzeko Plana abiatu, aurrekoa ordezkatzeko.

- Euskararen Kontseiluak lan mundua euskalduntzeko asmoak erakutsi, planak egin eta eragile sozialak bildu lan munduko euskalduntzerako hitzarmena egiteko eta Kultura Sailak beste hitzarmen bat egin bat-batean eta arrapaladan.

Noiz izango dira egia, errealitate, hainbeste aldiz esaten direnak? Alegia, euskararen berreskurapenez instituzioak eta herri mugimenduak elkarrekin pentsatu, elkarren laguntzaz jardun eta norabide gutxi-asko berdin-

tsuan joan behar dugula esanez eten barik entzuten ditugunak? Asmo estrategiko bakoitzaren aurrean? noiz biderkatuko ditugu elkarren indarrak zatitu beharrean? Eta orain *Bai euskarari* ziurtagiria gutxietsi (gaitzetsi ez esatearren) eta beste paralelo bat sortu.

Ba, hasieratik esan duguna: badakigu zer egingo duten. Orain hiruzpalau urte asmatu eta sortu genuen Hizkuntz Eskubideen Behatokia. Ospea, eraginkortasuna eta babes soziala lortu du... Ba, horixe da datorren urtean, Baztarrikaren legegintzaldia amaitu baino lehen, egingo duten hurrengo "euskararen aldeko urrats estrategikoa": Behatokia bikoiztu.

Oraingoan Baztarrika izan da, baina ez da pertsonalizatze kontua. Arregiren garaitik badira batzuk ardura horietatik igaro direnak, baina, unetxoren batean izan ezik, beti egin dute berdin. Berdin jarraituko ote du Baztarrika jaunak? Azkarate andereak? Eusko Jaurlaritzak? Hurrengo legegintzaldian etorriko diren berriek? Kultura Sailak estrategiarik ez duela dirudi. Beno, bai. Herri mugimenduak sekulako izerdiaz sortutako batzuk hainbat urtetako atzerapenez egitea da beren estrategia. Besteak beste.

Ez da zeharo txarra. Badu alde onik. Hori jakinda, gaur, eta bihar eta etzi, Euskararen Kontseiluan eta beste hainbat tokitan, Jaurlaritzaren hizkuntz politika erabakitzen dihardugula pentsatuko dugu eta erantzukizun horrekin ere landuko ditugu estrategiak, hori gertatuko dela jakinda eragingo ditugu eragileak, eta *bultzada* hori etorriko dela

jakinda bizkortuko ditugu gordeta eta baliabide eskasiegatik abiatu gabe ditugun asmoak.

Badu alde txarrik, ordea. Guztion arteko erabakiak hartu beharrean, Kultura Sailak urte batzuetako atzerapenez hartzen ditu erabakiak, eta hori euskararen aurka doa. Euskararen normalizazioaren erlojuaren aurka.

Baliabideak alferrik xahutzea eramaten gaitu, bai herri mugimendua, baita instituzio publikoak ere, eta guztien arteko alferrikako gatazkak sortzen ditu non-nahi, ekiditen eta gainditzen zailak direnak (besteak beste, bat gainditu eta beste bat pizten delako).

Hain konponbide erraza edukita, ez dakit zergatik ez den egiten. Gaurko bileraren akta pasatuko diegu lau urte barrukoa gaurtik egiten has daitezten. Ironiak alde batera lagata: noiz demontre izango dira egia, errealitate, hainbeste aldiz esaten direnak? Alegia, euskararen berreskurapenez instituzioak eta herri mugimenduak elkarrekin pentsatu, elkarren laguntzaz jardun eta norabide gutxi-asko berdintsuan joan behar dugula esanez eten barik entzuten ditugunak? Asmo estrategiko bakoitzaren aurrean, noiz biderkatuko ditugu elkarren indarrak zatitu beharrean?

Asko gara, eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua ere bai, nik dakidala, gure azterketak, estrategia-ustek, iritziak eta baliabideak Kultura Sailari jakinarazteko prest gaudenak, elkarren artean lan egiteko. Doan, mugarik gabe, borondate onez eta pozik. Buruan duten hurrengo bikoizketaren aurretik izango ote da.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



URDONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



*Gipuzkoar batek ahal zuena
baino jende gehiago hartzeko
asmoa izan zuen.*

*Eta bi pertsona gehiagoren
irudia sartu zuen bere obran.
Gaur, gipuzkoar guztion artean
gizarte solidarioagoa ari gara eraikitzen.*

*Gipuzkoarrok asmoak
eraikitzen ditugu.*





Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Kultura etxe ikusteko bisita gidatuak egingo dituzte > 18



> **BERGARA**
Erretiratuen kultur hamabostaldia eta Udazken Kulturala abian dira > 26



> **ESKORIATZA**
40 kilometroko ibilaldia egingo dute domekan, bizikletan > 34



> **ANTZUOLA**
Danbakan gaur lehiatuko den Klakson taldeari elkarrizketa > 36

ANTZUOLA > LARRU ONTZEAREN GAINEKO INTERPRETazio ZENTROA EGIN NAHIAN

Larrugintzaren nondik norakoak batu eta museoa egin nahi dute Antzuolan

AURKEZPENA

Proiektua egunean aurkeztuko diete herritarrei, 19:00etan, Olanan jauregian

AITZINDARIAK

Antzuolarrak aitzindari dira larru ontzearen proiektu honekin

GARRANTZIA

Berebiziko garrantzia izan zuen ogibide horrek Antzuolan

UBANE MADERA > ANTZUOLA

Datorren egunean egin dute hitzordua larru ontzearen interpretazio zentroaren egitasmoa jendaurrean aurkezteko. Ekitaldi horretan izango dira, agintariekin batera, egitasmo hori lantzen dabiltzan Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe etnologo donostiarrak.

Hala, iragarri dute proiektuaren nondik norakoak herritarrei aurkezteaz gainera, Antzuolan batutako larrua ontzeko gaineko tresnen erakusketa txiki bat eta antzuolarren testigantzetako batzuk entzungai ipiniko dituztela. Argazkiak ere erakutsiko dituzte.

Hori guztia 19:00etan hasiko da, Olanan etxean. Antzuolar guztiei zabalik dago eta gonbidatu dituzte, baita ere, testigantzak eman dizkietenak.

ANTZUOLA, AITZINDARI

Aurkezpenean azalduko dute zein asmo duten interpretazio zentro horrekiko. Gauzatuz gero, Antzuola aitzindari izango da.

Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe iaz hasi ziren Antzuolako larru ontzearen gaineko aztarnak batzen. Altxorra zuten larrua ontzen jardun zuen Telleria fabrikari; haren atek itxi zituztenetik, 1965etik, fabrika



TELLERIAN Asier Agirresarobe eta Jose Tellabide etnologoak Telleria fabrika egon zen etxearen aurreko aldean; Udalak kokagune hori nahi du zentroarendako. U.M.

hartan inork ez du-eta ezer ukitu. Telleriatarrek Udalarari eman zioten material dena, dohaintzan. "Guk egin duguna da hori jaso, garbitu eta katalogatu", esan dute etnologoek.

Zera gaineratu dute: "Nahi dugu egin errekonstruzio historikoa Antzuolako jarduera horre-

taz. Telleria fabrika zegoen lekuan, eraikina bota eta etxebizitza berriak egin behar dituzte. Proiektua da hori egiten dutenean beheko solairuan muntatu larruaren interpretazio zentroa, lehengo jarduera hori berreskuratzeko asmoz eta antzuolarrei eta gipuzkoar guztiendako sortzeko zentro bat

jarduera hori zer zen esplikatzeko. Proiektu hori lantzeko bidean gabiltza, orain elkarrizketak grabatzen, larruarekin eta Antzuolarekin zerikusia duten guztiei. Horretaz gain, bideo bat ere egin nahi dugu. Gure helburua da jardunbide hori berreskuratzea, gaur egunera ekarrita. Gipuzkoan ez

dago halakorik egiteko beste aukerarik. Hortaz, Gipuzkoan eta akaso Euskal Herrian bakarra litzateke eta antzuolarrak izango dira aitzindari".

Bien bitartean Udala tratuan dabil Telleria familiarekin, interpretazio zentroarendako kokagunea lortu nahian.

Antzuolan berebiziko garrantzia lortu zuen larrua ontzeko jardunbideak

XVIII. mendearen amaieran hasi ziren larrua ontzen Antzuolan. Baina, batez ere, XX. mendearen hasieran sekulako indarra hartu zuen jardunbide horrek herrian: "Batez ere, gerran indarra hartu zuen, orduan egiten zutelako soldaduendako materiala. Baina denetik egiten zuten, garai batean larruz egindako materialaren izugarriko beharra zegoen-eta: behiendako uhalak, zaldiendako, diligentziendako...".

Antzuolan larrugintzan jarduteko bost fabrika izan dira historian: Bareño, (aurrenekoa, 1790ekoa), Galartza Arbulu, Olanan (handiena, Beasainen dago orain), Telleria eta txikiago bat: Arresenekoa. Baina, denborarekin, eta bereziki, industrializazioarekin, ixten joan ziren guztiak. "Jarduera gaur egun ia galduta dago. Gelditzen zaizkigun erreferentzia bakarrak Gipuzkoan dira Olanan (Beasainen) eta Montes (Hernanin), eta zenbait artisau".

de Curtidos @ JOSÉ TELLERIA @ ANZUOLA (GUI)



la más antigua de las más acreditadas lo que se refiere a la 'oyunda' para abaracas, desde hace algunos

años dedicase también factorio resultado, a silleros y vaquetas y guarnicioneria, en cuyo zado ya muy buen cr

Telleria fabrikaren gaineko propaganda.

'ANTZUOLAKO LARRU ONTZE' liburua

kale inkesta

Otalora kalea guztiz berrituko dute. Badauka beharrik?



Iban Cabero
Langilea
Aretxabaleta



Rosi Gonzalez
Langilea
Aretxabaleta



Roberto Fraile
Langilea
Aretxabaleta



Ruth Otadui
Langilea
Arrasate



Juan Ortega
Langilea
Aretxabaleta

Herriko kale zaharrenetako delakoan nago, eta bai, badauka beharra. Espaloiek, esaterako, oso zabalera txikia daukate. Bestalde, bidegorria konpondu beharko lukete, Coprecitik gora behintzat.

Bai, badauka beharra, baina ez kale horrek bakarrik, beste leku batzuek ere bai: lorategiek eta beste askok. Inbertsioak egin ditzatela, herritarrok ordaintzen ditugun zer-gak nora doazen ikusteko.

Bai, neure ustean, behar handia. Zahartuta dagoela iruditzen zait, eta gainera, automobilak oinezkoen oso hurbiletik pasatzen dira tarte batean. Espaloiak zabaltzea behintzat ondo legoke.

Aretxabaletan egiten dut lan eta ez zait gustatzen Durana kalea ordu batzuetan oinezkoentzat izatea eta beste batzuetan ez. Hori ez dezatela egin Otaloran, espaloi egokia jarri edo bestela guztiz itxi.

Badauka, bai, beharra. Automobilentzat ez dago ondo eta oinezkoentzat ere ez, espaloiak oso estuak direlako. Ume aulkarekin joanez gero paretik datorrena errepi-dera jaitsi behar da.

txaloak eta txistuak



IÑAKI BARRUTIA

Otalorako eskultura batere zaindu barik



Arrasateko irakurle batek salatu du Otalora kalean dagoen eskultura baten egoera. Kontatu du gutxienez hiru hilabete daramatzala eskultura horrek inguruko obretako materialarekin nahastuta edozein modutan. Hala, errespetua eskatu du artelanendako.

usteak uste

Ubane Madera

Kalitatezko zerbitzuak behar ditugu

Banator atzera ere Lurraldebusaren kontu horrekin. Orain dela bi aste pozik genbiltzan Sorluzen, egoera konpunduko zutela agindu zuten-eta Diputazio-tik. Pentsatu nuen: "Txarreako denean, laster idazten ditugu gure kritikak; bada onerako denean ere idatzi beharko dugu zerbaite". Eta zutabetxo honetan zer idatzi pentsatuta eta guzti neukan.

Ah, baina zela aldatu daitezkeen gauzak aste batetik bestera, lagunok!

Diputazioak bi aste epea eman zuen urbanoaren zerbitzua hobetzen hasteko. Pasatu dira, eta egoerak lehengoan segitzen zuela ikusita, autobusaren aldeko Sorluzeko taldekoek Diputazioa jo dute, erantzun eske. Eta hara! Oraingoan esan diete abenduan egingo dutela zerbaite.

Antzuolar bati baino gehiagori ere entzun diot ez daudela konforme zerbitzu berriarekin. Geraleku bakarrarekin utzi dituzte eta autobusen maiztasuna jaitsi egin dute. Oñati aldean ere entzuten dira kexuak.

Agintarien lana da duten diruarekin ahalik eta zerbitzu gehien ematea. Ez da erraza. Baina agintarien lana da, baita ere, herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea. Abenduaren zain geratuko gara, beraz.

5 galdera...

Clemente Domingo

Praktikantea
Aretxabaleta

1. Lanean 27 urte daramatzazu; orain, lehen baino indizio dezente gutxiago ipiniko dituzu, ala?

Askoz gutxiago. Tratamenduak emateko formak aldatu egin dituzte. Laborategietako aurrerapenei esker, medikamentu guztiak indizio bidez ipintzekoak izan beharrean, asko xarabe moduan, konprimituetan... ematen dituzten.

2. Pertsona nagusiak txintxo ibiltzen dira eta gripearen txertoa eurek eskatzen dute?

Gehienek eurek eskatzen dute. Ez da ohikoa nahi ez izatea. Baina batzuk interpretatzen dute kalte egiten dietela. Gertatzen dena da nahastu egiten dutela gripea hotzeria batekin, esaterako.

3. Eta horren ondorioz, hurrengo urtean txertorik nahi ez dutenei zer esango zenieke?

Esango nieke txertoak ez dela horren kulparik.

4. Txertoa aurten bestetan baino gogorrago dator?

Gogorrago ez. Egiten dutena da urtero ikertu, batez ere, Asiako herrialdeetan (handik dator gripea) dauden anduiak (cepak). Eta hona zein etor daitekeen estimatzen dute. Dezente asmatzen dute, baina badago arrisku portzentajea. Dena den, txertoa ipintzeak dakartzan mesedeak beti dira gehiago kalteak baino. Pertsona nagusiengan edo arrisku faktoreren bat dutenengan onurak ditu txertoak: gripea hartuz gero, samurragoa da eta ondorio txikiagoak ditu. Hortaz, guk beti aholkatzen dugu txertoa ipintzea. Behartu ez da inor behartzen, baina aholkatu, bai.

5. Hemendik azaroaren 30era bitartean zenbat txerto ipiniko dituzu?

Batez bestekoaren arabera, biztanleen %70ari ipiniko diogu. Hortaz, Aretxabaletak baldin baditu 6.000 biztanle ipiniko diegu 4.200 laguni: pertsona nagusiei eta gaixotasun kronikoak edo beste arazoren bat dituztenei.



asteako datua

48

Durango azokarako atzera-ko kontaketa gaudela esanenez, izan ere, dagoeneko 48 egun besterik ez dira falta abenduaren 6rako. Hala, gure ibarreko artistak hasi dira azokarako lanak prestatzen. Aurten, 41. edizioa izango du azoka horrek.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

OBRAK > KULTURA ETXE BERRIA

Kultura etxea barrutik ikusteko aukera eskainiko du Udalak urrian

Urriaren 25ean udal agintariek bisitatuko dute; herritarrak hurrengo egunetik aurrera sartu ahal dira

Azaro-abenduan itxi egingo dute eraikina, ekipamendua sartu eta Monterongo materiala hara eramateko

UBANE MADERA > ARRASATE

Obrak bukatu dituzte eta dena dago txukun-txukun eta berri-berri frantziskotarren komentu zaharberrian, kultura etxea izango dena hartzeko zain. Hain justu ere, egoera hori aprobetxatu gura dute kultura etxearen eraikin berriua bere osotasunean herritarrei erakusteko. "Orain, eraikina jantzi barik dagoela, bazter guztiak bere osotasunean ikus daitezke eta horixe da herritarrei erakutsi gura dieguna. Izan ere, gero, ekipatuta dagoenean zenbait espazio herritar guztiak ezingo dituzte ikusi, gure bulegoak esaterako, edo liburutegiaren gordailua...", azaldu digu Kultura Saileko teknikari-buru Jon Garaik. "Eta modu horretan, azken lau urtetan egindako lana ikusiko dute".

BISITA GIDATUAK: INDIBIDUALAK

Lehenengo, udal agintariek bisitatuko dute kultura etxea. Hurrengo astean, urriaren 25ean.

Herritarrek, berriz, urriaren 26tik aurrera izango dute eraikina bisitatzeko aukera. Bi modu daude horretarako: egin daitezke bisita indibidualak edo taldekoak.

Bisita indibidualak egiteko, txanda hartu beharra dago. Biztanleen Arreta Zerbitzuan (BAZ) egin behar da hori. Datorren aste-



KLAUSTROAK Espazio handia irabazi dute klaustroetan, sabaileihoari esker. u.m.



ARKUAK Klaustroen bueltan erakusketak ipiniko dituzte. u.m.



HEMEROTEKA Liburutegiaren ondoan ipiniko dute hemeroteka. u.m.



MODERNOA Itxura modernoa eman diote barruko aldeari, argia aprobetxatuta. u.m.

lehenean, hilaren 23an hasiko dira txandak ematen.

Bisita horiek gidatutakoak izango dira. Arantza Otadui his-

torialari arrasatearrak gidatuko ditu, "asko jota 20 laguneko taldeak antolatzea aurreikusi dugu eta bisitak hiru ordu laurdene-

koak izango direla", zehaztu du Jon Garaik, "hasieran ikus-entzuzko proiektio bat emango dugu. Eraikinak historian zehar zein

erabilera izan dituen, obren nondik norakoak... ikusiko ditugu. Horren ostean, berriz, eraikineko espazioak bisitatuko ditugu. Esaterako, liburutegian espazioa ikaragarri irabazi dugu eta klaustroak ikusgarri geratu dira, guk buruan dugun lehengo irudiarekin konparatuz".

Gainera, herritarrek euren iritziak helarazi ahal izango dituztela ere kontatu du Kultura teknikari-buruak, "aukera emango zaie eta iradokizunak egiteko".

TALDEKO BISITAK

Herriko taldeei dagokienez, berriz, Udala ipiniko da haiekin harremanetan eta bisiten hitzordua orduan lotuko dute.

Kultura etxearen barruan hainbat zerbitzuak aurkituko ditugu

Kultura etxe berriak Azoka kalean izango du sarrera nagusia. Sartu eta berehala, lapurretak kontrolatzeko makina dago. Horrez gainera, harrera, maileguak egiteko gunea, egoteko gune bat, kontsultetarako beste bat eta komun nagusiak ere badira.

Beheko solairuan, berriz, Haur liburutegia izango da, haurtxoteka eta guzti. Erabilera askotariko areto bat ere izango da solairu berean.

Eta lehenengo solairuan liburutegi nagusia aurkituko dugu, apalak aretoaren erdian eta jarlekuak

leihen bueltan dituela. Ikasteko gela bat izango du eta Internet erabiltzeko ordenagailuak ere bai. Liburutegiaren ondoan, berriz, bideoteka eta hemeroteca izango dira.

Bigarren solairura iritsi gara dagoeneko. Tokiko bilduma gordeko dute hor; hau da, Arrasateko pertsona ezagunen eta ospetsuen dokumentu eta bestelakoak.

Bukatzeko, gorengo solairuan informatika eta margo gelak ipiniko dituzte.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

GAK

Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak

Era guztietako garbiketak

Zuen komunitateko administrazioa

Konponketa orokorrak

Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.

Tel.: 653 70 45 47 OÑATI



AP-1EKO ISTRIPUA > EZTANDAK KALTETUTAKO HERRITARREN SALAKETAK

Oraingoaz 60 salaketa jaso dituzte ertzain-etxean

Bidegik lasaitasun mezua helarazi gura die kaltetuei: "Guztiek kobratuko dute kalte-ordaina"

UBANE MADERA > ARRASATE

Eibar-Gasteiz autobideko lanean izandako eztanda kalteak kontabilizatzen jarraitzen dute oraingo astean.

Kaltetuak dabilta Bergaroko ertzain-etxean salaketak ipintzen, 943 53 47 20 telefonon edo bertara joanda. GOIENKARIA-n batutako azken datuen arabera, eguaztenean, 60 salaketa zeuden ipinita: "Gehienak dira automobiletan eragindako kalteen gaineko salaketak; teilatuetan eragindako kalteengatik ere izan dira batzuk eta baita establezimenduetan eragindako kalteengatik ere", hala adierazi digute ertzain-etxeko argiketari sailetik. Zera ere gai-

neratu digute. "Salaketa gehienak joan den astean jaso genituen; oraingoan, gutxi batzuk gehiago jaso ditugu".

Bestalde, azaldu digutenez, salaketa ipini eta berehala atesatua zabalitzen dute eta hori guztia Bergaroko epaitegira bidaltzen dute gero,

Hortik aurrera, istripu gehienetan gertatzen den moduan, aseguru etxeak arduratuko dira kalte-ordainak emateaz, perituek egindako azterketaren ostean.

LASAITASUN MEZUA

Horren harira, API autobidearen ardura duen Bidegik lasaitasun mezua helarazi gura die kalteren bat jasan zutenei:

"Kalteren bat izan dutenen artean, inor ez da kobratu barik geratuko, denetariko aseguruak ditugu-eta; beraz, lasai egon daitezela. Bestalde, nabarmendu beharra dago istripu hori oso ezohiko gertaera dela; hau da, oso-oso gutxitan gertatzen direla halakoak", adierazi du Bidegiko bozeramaile Oskar Recalde. Kalte ordainak noiz kobratuko dituzten, berriz, ezin izan digu zehaztu, "hori aseguruaren esku egoten da-eta".

BATZAR OROKORRETARA

Horrez gainera, jakinarazi digu istripuaren gaineko argibideak ematera joango direla Bidegiko Batzar Orokorretara "logikoa den moduan, legebiltzarri-dei esplikatu behar diegu gertatutakoa. Laster izango da hori, aste bi barru-edo".



PRENTSAURREKOA Luis Miguel Alvarez, Mapak Kokatzeko Zerbitzuko kidea. J.E.

ZERBITZUAK > KALE IZENDEGIA

Arrasateko kaleen izendegi digitala abiarazi du Udalak

Izendegia erabilgarri dago Udalaren web orrian

J.E./U.M. > ARRASATE

Kale izendegi digitalaren bitartez, Arrasateko kaleak zehatz-mehatz non dauden, zenbateko luzera duten eta beste hainbat datu geografiko jakin ahal da. Are gehiago, hari esker, herritarrak udalerriko edozein toki-

ko mapa eta ortofotoa (satelite-ateratako argazkia) ikustea gainera, mapan zehar nabiga dezake eta inpresioak, bilaketa eta kontsultak ere egin ditzake, eremuka.

Mapak Kokatzeko Zerbitzua enpresa kontratatu du Udalak kale izendegi digitala egiteko. Datu geografikoak argitaratzeko Udalak duen asmoaren lehen pausoa da; Egitamu Orokorraren interaktiboa egin gura dute datorren urterako.

POLITIKA > PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Ziega bat ipiniko dute Seberren, Gabonak arte

Bigarren eskuko jantzien azoka antolatzen hasi da Portaloira Elkarte

U.M. > ARRASATE

Gaurtik, egubakoitzea, Gabonak arte, asteburu ziega bat ipiniko dute Seberren. Portaloira Elkarteak bideratuko du ekimena, presoaren egoera salatu, haien eskubideak aldarrikatu eta presoaren egoera gizarteratzeko.

Presoen eskubideen aldeko Ibaetako dokumentua oinarri hartuta, asteburu egoera jakin bat irudikatuko dute. Oraingoan, osasun egoera larrian dauden presoaren egoera salatuko dute. Ziegan pertsona bat izango da eta kanpoan, berriz, gaia-ekin zerikusia dutenek informazioa banatuko dute: medikuek, masajistek eta halakoek.

Bestalde, elkartetik jakinarazi digute bigarren eskuko azokarako jantziak batzen hasi direla. Iluntzera edo Iratira eraman behar dira, azaroaren 30era arte.



ROMAN LOPEZ

Mus txapelketan 1.000 euro jokatuko dituzte

Bihar, zapatua, 16:00etan egin dute hitzordua 1. Sekulako Mus Txapelketa jokatzeko. Izenematea, ordubete lehenago egin beharra dago. Parte hartu gura duen bikote bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu. Lehen saria, berriz, 1.000 eurokoa da, "mus txapelketetan, inguruko garrantzitsuenak", nabarmendu du antolatzaile Roman Lopezek. Garaikurriak eta txapelak ere izango dira. Txapelketa Sampry tabernan jokatuko dute, Kontezino kalean, "tabernaren bigarren inaugurazioa bailitzan".

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

arbolapeta

beinke

arrasate

MUSIKA > GOIKOBALU ABESBATZA ARGENTINAN IZAN DA

Goikobalu abesbatza, argentinarrak hunkitu ostean, bueltan da Arrasaten

Goikobaluko lagunek lau emanaldi egin dituzte Buenos Airesen eta Cordoban

Argentinarek eta Euskal Etxetakoek besoak zabalik hartu dituzte arrasatearrak

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Goikobalu abesbatza bigarren aldiz izan da Argentinan, eta orain dela urte batzuk lortutako arrakasta gainditu dutela jakinarazi du abesbatzako presidente Jesus Mari Arzek.

Urriaren 6an, Maritxu Kajoi egunean bertan, abiatu ziren Argentinarentz, txikiteroen jaiari kale egingo ziotelako penaz, baina itsaso bestaldean zuten erronkaren ilusioarekin. 44 lagunek jo zuten hara eta guztira lau emanaldi egin zituzten: Buenos Airesko Diego Torres auditorioan lehen; Cordobako Euskal Etxean



IGUAZU Goikobaluko lagunek Iguazu inguruko paisaiak aprobetxatu zituzten, atseden hartzeko.

GOIKOBALU

bigarrena; eta Villa Maria eta Jose C. Pazen azkeneko biak.

Hango euskaldunak desatzen zeuden euskal kantuek

entzuteko. Horrez gain, Goikobalukoek argentinarrak ere hunkitzea lortu zuen, *Alfonsina* eta *La Tucumana* kantuekin.

Areto guztiak bete zituen abesbatzak, eta Kolonbiara eta Kanadara joateko gonbidapenak ere jaso dituzte.

OROIMEN HISTORIKOA

'Amets gorrien taupadak' erakusketa

Mila lagunetik gora ikusi dute Monterronen jarritako erakusketa

I.B. > ARRASATE

Intxorta 1937 Kultur Taldeak Monterronen jarritako erakusketak arrakasta handia izan du. Mila lagunetik gora joan dira *Amets gorrien taupadak* ikustera.

Ikerketa lan handia egin dute urriko iraultzaren gaineko erakusketa egiteko. Sasoi hartako gertaerak azaltzeko 18 panel jarri zituzten.

ZEZIAGAREN BOTILAK

Horrekin batera, Argentinan bizi den Rafael Zeziaga arrasatearrak sei botila ekarri ditu. Mezu iraultzaileak dituzten sei artelan oso ikusgarri.

Antolatzaileek Institutuari eskerrak eman dizkiote, ikasleak bisitan ekartzeko gonbiteari erantzuteagatik.

ARGITALPENA > ON JOSE LUIS IÑARRA

On Jose Luis Iñarraren biografiaren aurkezpena

Gaur, egubakoitza, egingo dute San Juan Bataiatzailearen parrokian, 19:45ean

I.B. > ARRASATE

Eusebio Iñarrak eta Josemari Velez de Mendizabalek *Jose Luis Iñarra, Mondragueko parrokoa* liburua egin dute. Iñarra parrokoaren biografia batu dute haurtzarotik Arrasaten hil zen arte. Aurkezpen ekitaldia gaur, egubakoitza, egin-

go dute San Juan Bataiatzailearen elizan, 19:45ean. Han izango dira On Jenaro Lekuona parrokoa, Inazio Lakuntza alkatea eta liburuaren bi egileak, Josemari Velez de Mendizabal eta On Jose Luis Iñarraren iloba Eusebio Iñarra. Arrasatear guztiak gonbidatuta daude eta gerturatutako lagunei liburu bana emango diete.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Eusebio Iñarrak prestatutako ikus-entzunezkoa ere emango dute. Parrokoaren irudi eta grabazioak jaso dituzte.

'Esferaren aztarna' da aukeratutakoa

Paco San Miguelek egindako *Esferaren aztarna* da kooperatibismoarekin lotuta Biteri plazan jarriko duten eskultura. Arrasateko alkate Inazio Lakuntzak, Fagorreko Errektore Kontseiluko buru Javier Gantxegik eta Artiumeko zuzendari Javier Gonzalez de Duranak osatu dute epaimahaia.

San Miguelen beste lan bat Maiatzaren 1a plazan jarrita dago.



UDALA



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebeldun hizkiak



KONTRATAK

IRVROK S.L.

ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

3 megako Banda Zabala



Deiak Telefono Finkoetara
24 Orduz
hileko telefono-kuota barne



Proba ezazu etxean 3 hilabetez

hilean **1€**
ordainduta*

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa hilean beste 10 € bakarrik ordaintuta.

ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
☎ 943700369

Maalako Errebala, 8
Arrasate
☎ 943712781

*Sustapen honek 2006ko abenduaren 31ra arteko kontratazioentzat balio du. Sustapenaren epea amaitu ondoren, produktu guztiak kontratatutasegitukodute, bezeroak besterik jakinarazten ez bada. Telefono finkoetara 24 ordutan egindako deiak, Ahots Tarifa Finkoaren baldintzen arabera. Ez dira sartzen nazioarteko deiak, tarifa gehigarrikoak, sare adimenduna eta mugikorak. Gehienez, hilean 5.000 minutu. Epea amaitu ondoren, produktuen prezioak hauek izango dira: kuota 15 €, Ahots Tarifa Finkoa 13 € eta Internet 3 Mega 39 €. Zeharkako zergak ez daude sartuta. Sustapen honek lehen hiru hilabeteetan balio du. Kontsultatu sustapen honen baldintzak.

Euskaltel

-en Banatzaile Ofiziala



**NEURRI HANDIETAN
ESPEZIALISTAK**
*48 eta 64 bitarteko
neurriak aukeran*

Elena Jantzi denda

Bizkaia Etorbidea 1

ARRASATE

Tel.: 943 77 14 24



Sistemas Prados

Otalora lizentziatua 12, behea
ARRASATE
943 79 83 07
e-maila: mondragon@sistemasprados.com
www.sistemasprados.com

ZABALDU BERRIA!!!



Informatika-Hardware

Banaketa, muntaketa eta ekipo informatikoen zerbitzu teknikoa

- Ekipo informatikoak
- Ordenagailu eramangarriak
- Pantailak
- Inprimagailuak
- Sareak, komunikazioak eta interneta
- Hari gabeko sistemak
- Aholkularitza informatikoa
- Mantentze-kontratuak

Informatika- Software

Gestiorako softwarea: enpresak, ostalaritza eta komertzioa

- Biruskontrakoak
- Sistema eragileak
- Neurri egindako programazioak
- Laguntza eta mantentzea

Osagarriak

- Kontsumigarriak
- Faxak
- Paper-biribilkiak
- Inprimagailurako tintak
- Etiketak

Kutxa erregistratzaileak

Edozein negozioarako kutxa erregistratzaileak

Gestiorako ekipoak

- TPV-ak
- Ukimen-ekipoak
- Ukimen-pantailak
- Tiket-imprimagailuak, sukalderako imprimagailuak
- Barra-kode irakurgailuak
- Txanponak gordetzeko kaxak
- Bisoreak
- Etiketagailuak
- Baskulak
- Fakturagailuak



CASIO.

OPTIMA[®]
GERMANY

acer

SAMSUNG

EPSON[®]

Metrologic[®]

sage **SP**

nstart
informática s.l.

intel[®]

TOSHIBA

METO

hp
invent

bote prontuen

Haroa Rodriguez > Import Arrasateko komunikazio arduraduna

"Mendiexpon eukiko dou ze erakutsi"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gaur bertan zabalduko daue Mendiexpoko atiek, Irunen. Eta, ferixa horretan mendixen egin ahal dien kirolen gaiñeko dana egongo da: boulder txapelketak, berbaldixak, mendi irteerak... Horrekin batera, hainbat kirol etxek mendirako material onena erakutsiko daue. Tartien egongo da Mondragueko marka bat: Ternua.

Aste bukaerarako dana gertu?

Baietz esango neuke, nahiz eta holakue-tan beti egoten dan azken momentuko zerbait. Mendiexpon hirugarren urtie da, baiñe neuretako lehenengue izengo da.

Ternuan erakutsi egingo dozue materixala, baiñe ez saldu.

Hori da. Mendiexpon ez dou ezer salduko, neguko denboraldiko arropa eta bestelako materixala erakutsi egingo dou, baiñe ez saldu. Jentiek erreferentziak hartu ahal izengo dau, eta komertzialak azalpen danak emuteko egongo die. Saldu, baiñe, dendetan egitten dou.

Eta, ze eruengo dau Ternuak?



Eukiko dou ze erakutsi. Neguko denboraldiko arropak eruetiekin batera osagarri-xek be eruengo dou: eskularruek, txapelak, motxilak... Eta hiru arropa linea eruengo dou: *Spirit*, *All Mountain* eta *Alpine*. *Spirit* kalien ibiltteko arropak die. *All Mountain* barruen materixal teknikuauae daukou, oiha berezixekin egindakue. Eta, *Alpine* barruen goi-maillako materiala daukou.

Horrekin batera, txamarra zaharrak jasoten be ibilliko zarie.

Bai, hori da Ternuak daukon kanpaña barrixe. Felix Inurrategi Baltistan Fundaziñuekin elkarlanien, pentsau geuen jentien txamarra zaharrak batu eta Pakistanera eruetie. Azkenien, baiñe, ikusi geuen hobe zala txamarra jaso, eta jasoten zien txamarran pisuen arabera Fundaziñuari diruz lagunketie. Holaxe, Ternuan txamarra zaharrak jaso eta %25eko deskontue egingo dou txamarra barrixe erosterako orduen. Kanpaña horren gaiñeko informaziño dana www.ternua.com helbidien izengo dozue.

bere ustez



Ander Etxeberria

Urriaren 25a; historia hurbila

Badaude egun berezi batzuk egutegian. Horietako bat urriaren 25a da, urte ezberdinetan politikarekin lotutako gertaerak ikusi dituen. 1839an hasten da seriea. Lehenengo gerra karlistaren ostean, Madriletik datorren eta data hori darman errege dekretu batek Hegoaldeko lurraldeen burujabetza hausten du: foruak onartzen dira monarkiaren batasun konstituzionalaren kaltetan ez doazen bitartean. Euskal gatazkaren hasieraren puntu gorena da Hegoaldean.

"Errege dekretu batek hegoaldeko lurraldeen burujabetza hausten du"

Ehun eta berrogei urte geroago, EAEn, Gernikako Estatutua onartzeko erreferenduma 1979ko urriaren 25ean egin zen. Itxura denez, kasualitatea izan zen. Ondoren, beste gertaera batzuk egun horretara ekarri dira. 1998an, adibidez, EAEko hauteskunde autonomikoak egiteko urriaren 25a aukeratu zen.

Gaur egunera salto eginenez, seriea amaitzeko, datorren asteazkeneko jazoera dago: urriaren 25ean burutu behar du Europar Legebiltzarra zabaltzeko bake prozesuari buruzko debatea. Eta kasu honetan seguru kasualitatea dela. Espero dezagun, nazioarteko babesa eta guzti, hurbil egotea 1839ko dekretua zuzenduko duen eguna. Urriaren 25 bat, adibidez.

Hau be badaukou


Hogeita zazpi lagun izan dira Val d' Aranen, mendi zeharkaldia egiten

Pilareko zubia aprobetxatu dute Besaidekoek Aran bailarara joateko, Pirinioetan. Lau eguneko mendi zeharkaldia egin dute, eta gutxi gorabehera 2.800 metrora dauden Ratera eta Montardo mendietan izan dira, besteak beste. Tartean, baina, kilometro mordoa egin dituzte, eta guztiak ez dira eroso-erosoak izan; mendian ibiltzeko zapatilekin joan zirenek arazoak izan zituzten, lehenengo egunean elurra bota zuen-eta. Mendiko botak zituztenek, berriz, komeria gutxiago. Anekdotak bat baino gehiago izanda, guztiak itzuli ziren onik eta ondo gozatuta; inor ere ez zen autobuseko biltegian geratu.



BESAIDE

PUB HAIZEA



Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LUDOTEKA > XIPIZARO ZABALIK AGORROSINEN

Umeendako ipuinak, jolasak eta margoak ditu Xipizaro ludoteka berriak

Hiru urtetik 12 urte bitarteko 40 umerendako tokia du Xipizaro ludoteka berriak eta izena emateko epea zabalik dago oraindik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Agorrosinen dago orain Xipizaro ludoteka, bigarren solairuan, tabernaren ondoan. Azaroaren 18ra arte, ate irekiak izango dituzte ume zein gurasoendako, toki berria nolakoa den ikusteko.

LEHENGOA BAINO EGOKIAGOIA

Gemma Hoyos da Xipizaron diharduten hiru begiraleetako bat eta bere esanetan lehengoa baino egokiagoa da oraingo ludoteka: "Komunak bertan ditugu,

zarata gutxiago dago, lehengoa baino toki argiagoa da, berotzeko errazagoa eta musika hobeto entzuten da, ez dago oihartzunik. Gainera, kanpoan terraza dugu eta horrek ere ematen dizkigu aukerak, eguraldi ona egiten duenean, behintzat. Egia da lehen herriaren erdian geundela baina igerilekura datozen umeek bertan dute orain Xipizaro. Gurasoek ere badute egoteko tokia, taberna ondoan dago eta. Toki berri-
ra ohitzea baino ez da falta".



JOLASAK Irakurtzeko eta jolaserako materiala dute umeek Xipizaro ludoteka berrian.

O.E.

Material aldetik ere erabat jantzita dago ludoteka berria. "Jolasak, liburuak, margoak eta psikomotrizitatea lantzeko gauzak ditugu, adibidez. Batzuk berriak dira eta beste batzuk lehengo ludotekatik ekarri ditugu", dio Gemmak. "Marrazkiak

egitea gustatzen zaie gehien umei, baita eskulanak ere, baina ipuinak gutxiagotan eskatzen dituzte. Ume batzuk, etxeko lanak ere egiten dituzte ludotekan", jarraitu du elgoibartarrak.

Umeak euskaraz jolas egitea nahi du Xipizarok eta baita esko-

len arteko harremanak bultzatzea ere. "Askotan ikastetxe bereko lagunekin bakarrik ibiltzen dira umeak eta hemen aukera dute beste ume batzuk ezagutzeko eta euren lagun egiteko", zehaztu nahi izan du Gemma Hoyos Xipizaroko begiraleak.



U.M.

Narbaizaren hutsuneak paisaia aldatu du

Mekolaldeko paisaia aldatu egin dela esan daiteke Narbaiza bota dutenetik. Enpresaren hutsunea nabarmena da. Abuztuan hasi ziren botatzen ehungintzan lana egiten zuen enpresa eta dena eraitsi dutenean, urte askotan hantxe egondako eraikina falta dela ikusten da orain errepidetik. Inguru garbitzen bukatzen dutenean, industria gune berria eraikitzen hasiko dira eta eraikinak ikusiko dira berriro gune horretan. Tornilleria Deba da horra joango den lehen enpresa.

> ERLIJOIA

Santa Marina parrokian umeendako katekesia irakatsiko dute hurrengo astetik aurrera

Santa Marina parrokian datorren astean hasiko dira umeendako katekesia irakasten. Lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko umei zuzenduta dago eta astean ordubetez irakatsiko dute, arratsaldeko bostetatik seieta. Astelehenean hasiko dira eta hau xe da egutegia: astelehenean, bigarren mailako ikasteak; martitzenetan, lehenengo mailakoak eta eguaztenetan, beste mailakoak. San Pedro parrokian, berriz, joan den astean hasi ziren.

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGUBarrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95ARANE
KRISTALDEGIAArtekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKÀ FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

BIZKOTKOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - 55

BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZAIturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
SalmentaArruriaga 11
686 943 918

HAURRESKOLA > MARTINEZ IRALA IKASTETXEAN DAGO

Zortzi umerekin zabalduko dute haurreskola publikoa astelehenean

Uda aurretik hasitako obrak luzatu egin direlako ez dute lehenago zabaldu

55 umerendako tokia du haurreskolak eta matrikulazio epea zabalik dago oraindik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Astelehenean zabalduko ditu ateak haurreskola publikoak. Lehenago zabalteko asmoa zuten "baina obrak luzatu egin dira eta lanek behartu gaituzte urriko hirugarren astean zabalteaz", dio Nagore Narbaiza hezkuntza teknikariak.

55 UME ETA HIRU IRAKASLE

Zero eta bi urte bitarteko umeak hartuko ditu haurreskolak, 55 guztira. Umeek hiru irakasle izango dituzte: Elena Guijarro arrasatearra, Sonia Laskurain soraluzetarra eta Eneritz Dorronsoro zumaiarra.

Hiru irakasleak pozik daude haurreskolaren egoitzarekin. "Oso ondo dago: ertzak borobilduta daude, berogailua zoruaren azpian dago, entxufeak goian jarri dituzte, ateak ere babestu-



IRAKASLEAK Eneritz Dorronsoro, Sonia Laskurain eta Elena Guijarro dira haurreskolako hiru irakasleak.

O.E.

ta daude behatzak ez harrapatze-ko eta kristal asko ditu, argia da. Gainera, kanpoko bi patio ere baditugu, Aranzadikoek erabiltzen dituztenez aparte" dio Eneritzek. Barruan lau gela ditu,

denak kolore biziz margotuak. "Gela bakoitzak bere sukaldea du, gainera, eta umeen tamainan jarritako bainuontziak eta konketak ere badaude, noski", azaldu du Sonia Laskurainek.

Hiru irakasleek, baina, azaldu nahi izan dute haurreskola ez dela umezaintza bakarrik. "Hezkuntza proiektua ere badugu, eskola bat da hau, eta horregatik, jostailuak ez ezik, material

didaktikoak eta psikomotrizitate eta zentzumenak lantzeko baliabideak ere baditugu", zehaztu du Elena Gijarro.

ORDUTEGIAK ETA KUOTAK

07:30etik 18:30era bitartean egongo da zabalik haurreskola eta zortzi orduz gehienegon ahal da ume bakoitza barruan. Egoitzapena ere eskaintzen du eta edozein guraso joan daiteke egoitza ikustera. Dena delakoa egiteko, hala ere, sarrera eta irteera orduak errespetatu beharko dituzte.

Kuotei buruz, berriz, hiru kuota ezberdin daude: bost ordu edo gutxiago egoteko, 135 euro hilean; bost ordu baino gehiago egoteko, 180 euro; 15 eguneko egokitzapena, 125 euro.

MATRIKULAZIOA ZABALIK

Guztira 55 umerendako tokia du haurreskolak eta "gela bakoitzeko haur kopurua txikia denez, oso ondo egongo dira", dio Sonia Laskurainek. Matrikulazio epea zabalik dago oraindik eta izena eman edo informazioa eskatu gura duenak, hona dei dezake: 943 77 91 60.

Bestalde, gurasoei gomendatu nahi diete irakasleek arropa erosoekin eramateko umeak haurreskolara eta, ahal dela, han ibiltzeko etxeko zapatila pare bat ere bai. Umeak etxetik eraman behar du janaria.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

DANTZA > AUKERAN TALDEA GAUR, UDAL PILOTALEKUAN

Erretiratuen Kultur Hamabostaldia eta Udazken Kulturala hasi dira

Erretiratuen kultur hamabostaldiaren X. ekitaldia da aurtengoa, *Alkarri laguntzen* leloarekin

EDU MENDIBIL > BERGARA

Alkarri laguntzen lelopean, erretiratuen kultur hamabostaldiari hasiera eman zitzaion martitzenean. Dagoeneko hamargarren ekitaldia da aurtengoa, eta urriaren 28ra bitartean hainbat ekitaldi iragarri dituzte San Jozepe elkarteok. Astelehenean, urriaren 23an, hainbat txapelketa jokatu dira erretiratuen egoitzan, 17:00etan hasita, eta martitzenean, ONCEko antzerki

taldearen emanaldia izango da bertan: *Terapia de grupo* antzezlan eskainiko dute, 17:00etan. Eguenean, Felix Garitano apaiz bergararrak hitzaldia egingo du Miguel Altunako aretoan, 20:00etan. Urriaren 26rako, berriz, Gasteizera irteera iragarrita dago.

UDAZKEN KULTURALA MARTXAN

Bestalde, Udazken Kulturalako egitarauaren barruan, gaur,



'BIDEAK' Aukeran taldearen ikuskizuna izango da gaur gauean, Udal Pilotalekuan.

egubakoitza, Aukeran dantza konpainiaren *Bideak* ikuskizuna izango da Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak, 10 eurotan

salduko dituzte. Eta bihar, zapatua, Landarbaso abesbatzak emanaldia egingo du San Pedro parrokian, 20:00etan.

Bartzelona aldean, primeran

Musika Eskolako lagunak primeran ibili dira zubian Bartzelona aldean. Andoni Sierraren zuzendaritzapean, Orkestrak emanaldia egin zuen Capelladeseko elizan eguenean eta trikiti taldeak ere giroa alaitu zuen. Era berean, Bartzelona ezagutzeko aukera izan dute eta zapatuan Capelladeseko udaletxean harrera egin zieten. Elixabete Irazabalbeitia Musika Eskolako zuzendariak eskerrak eman zizkien euren etxeetan hain ondo hartzeagatik. Agurtzean, *Agur jaunak* abestu zuten bergarrek. Erakutsitako musika maila eta izandako esperientziarekin pozpozik itzuli dira etxera.



MUSIKA ESKOLA

> ERAKUSKETA

Edurne Erañaren margo erakusketa Eibarren

Edurne Eraña bergararrak pintura erakusketa zabalduko du gaur, egubakoitza, Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren kaleko 3. zenbakian).

Erakusketa urriaren 29ra arte egongo da ikusgai. Aste barruan 19:00etatik 21:00etara zabalik dago Arrate Kultur Elkarteko Topaleku aretoa eta domeketan, berriz, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

> ERAKUSKETAK

Ormazabalaren argazkiak eta Puellesen grabatuak

Pedro Luis Ormazabalaren *Atzera begirakoa* argazki erakusketa zabalik dago Aroztegin, urriaren 29ra arte. Azken 30 urteotan argazkilari bergararrak egindako lanaren gainbegiratu da erakusketa.

Bestalde, Alfredo Puellesen Antolin artista debarraren grabatuak Nahikarin daude ikusgai. Teknika anitzen bidez egindako grabatuak jarri ditu Alfredo Puellesek.

> PINTURA

Altuna Akizuren erakusketa Miñaoko Parke Teknologikoan

Juanjo Altunaren *Espacios en construcción* izenburuko margo erakusketa ikusgai dago Miñaon, Arabako Parke Teknologikoan. Paper gainean egindako lan akrilikoak dira, 47 guztira.

Altuna Akizuren erakusketa abenduaren 31ra arte dago zabalik, astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 20:00etara.



Clinica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika

www.clinicarecalde.com

MIOPIA LASER - KATARATA EBAKUNTZAK

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55



Ez galdu Aukeran taldeak emandako aukera!

NOIZ: urriaren 20an, ostiralean, 22:30ean.

NON: Bergarako Udal pilotalekuan.

SARRERA: 10€.

SARRERAK SALGAI: Kultura Etxean eta Lazkano oinetako dendan *

* Sarrera guztiak aldeztu aurretik salduz gero, emanaldiaren egunean leihatilan ez da sarrerarik izango.



BERGARAKO UDALA
Kultura Saila

Agur-afariak.
Jai pribatuak
Enpresa-afariak.
Kontzertuak.
Antzerkia.



Eguneko menua.
Asteburuko menua.
Autore sukaldaritza.
Haragia txingarretan erreta.
Plater konbinatuak.

Zapatu gauetan,
"Afari musikalak".

illunlek

10/21: DJ Angi.
10/28: DJ Papi.
11/04: DJ Angi.
11/11: DJ Balza.



argilek

10/28: DJ Angi.
11/11: DJ Angi.



Egubakoitz gauetan,
"Afari kontzertuak".

11/03: Le fou (Katalunia).
Bilbao Hiria lehiaketako finalista

11/10: Col Panic + Hot dog.
(Hemengo rock & rola).



11/17: Omare.
(Flamenko-rumba).

11/24: Une. Disko berriaren aurkezpena.

Domeka gauean ere irekitzen dugu.
Bokatak eta plater konbinatuak.

Iragarki hau aurkeztuz gero, %40ko beherapena izango duzu
* urri eta azaroko domeketarako balio du promozioak.

Pedro Zafra > Labegaraietako areto futbol txapelketako antolatzailea

"Txapelketa serioa antolatu nahi dugu, arauak eta egutegia errespetatuko dituen"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bihar hasiko dute Labegaraietako areto futbol txapelketa. Txapelketa ez da berria, baina bai antolatzailer lanetan ibiliko den taldea. Hainbat aldaketa egingo dituzte, eta Pedro Zafra eman digu aldaketa horien berri.

Zenbat taldek eman dute txapelketan izena?

Hamabi talde izango dira txapelketan. Aurretik ere bagenekien kopuru txikia izango zela, baina hamabost talde-edo espero genituen. Azken baten, urtero jokatu izan duten bizpahiru taldek kale egin dute.

Horri ez diozue, baina, berebizi garrantziarik ematen.

Ez, argi geneukan sei talde izanda ere, aurrera egingo genuela. Txapelketa serioa antolatu nahi dugu, eta gogoz gabiltza horretan. Hala, seguru txapelketa ondo joanez gero, datorren urterako jende gehiago animatuko dela. Azken batean, hori da geure helburuetako bat.



Pedro Zafra.

duten. Hori bai, norgehiagoketako ordutegiak astero-astero jarriko ditugu, hori ez dago-eta gure eskuetan.

Egutegia zehaztuta, aldaketarako tarte txikia izango da.

Bai, talde bakoitzak badaki noiz jokatu duen, horrenbestez, ez dugu nahi azken orduko aldaketarik. Talde bakoitzak norgehiagoka bakararra atzeratu ahal izango du. Hala, www.bergarako-txapelketa.3a2.com webgunean jarriko dugu txapelketaren gaineko informazio dena.

Joko araudian, berriz, aldaketa nabarmenik ez.

Ez, ez da aldaketa nabarmenik egongo. Hori bai, araudia errespetarazi egingo dugu.

Epaileak ere, beti izango dira berdinak.

Halaxe da. Esperientzia duten 6-8 laguneko talde egin dugu eta horiek egingo dituzte epaile lanak. Gainera, federatutako epaileak ekartzeko asmoa ere badugu.

FUTBOLA > LEHENENGO ETA BIGARREN ERREGIONALA

Bergarak Beti Ona hartuko du zapatu arratsaldean

BTLS taldeak, berriz, Elgetaren kontra jokatu du bigarren erregionaleko derbia

Onari irabaziz gero, Bergarak jauzi handia egingo luke aurrera. Partidua, esan bezala, zapatuan jokatu da Agorrosinen, 16:30ean hasita.

BTLS-ELGETA DERBIA DOMEKAN

Bigarren erregionalean, berriz, BTLS eta Elgeta lehiatuko dira aurreko postuei heltzeko. Antzuola dabil kategoria horretan agintzen (13 puntu), baina atzetik gertu datoz bai BTLS eta baita Elgeta ere. Gainera, euren artean puntu bakarreko aldea baino ez dago. Derbia domekan Ipintzan, 17:00etan.

X.U. > BERGARA

Sanpedrotarra taldea 0-1 mendean hartu eta gero, Bergara hamargarren postuan dago 8 puntu erdietsita. Liderrak, baina, hiru puntu gehiago baino ez ditu eta horregatik da bihar-ko norgehiagoka garrantzitsua. Postu bat atzerago dagoen Beti



LIDERRA HIRU PUNTURA Estu-estu dago erregionaleko sailkapena. GOIENKARIA

> ESKUBALOIA

Territorial mailan Tolosa eta gazte mailan Ereintza; taldeak etorriko dira bisitan

Garrantzia handia izango dute Bergarako territorial eta gazte mailako taldeen norgehiagokek, nahiz eta oraindik bigarren jardunaldia baino ez den. Batetik, nagusiek denboraldiaren hasiera ona konfirmatu ahal izango dute Tolosaren kontura (domekan, 12:15ean, kiroldegian). Gazte mailakoek, berriz, Ligako talde indartsuenetakoa den Ereintza hartuko dute domekan (10:30).

Euskara planak jarri ditugu martxan lantegietan



LANA EUSKARAZ.

Lan-mundua da gizarteko esparru erdaldunena. Eta, oster, egundoko inportantzia du. Izan ere, ikasketak euskaraz egin arren, hizkuntza gaitasuna galdu egiten da gero bizitzan jarraipena ematen ez bazaio. Eta lana bizitzaren zati nagusietako bat da. Lan munduko sektore guztien inplikazioarekin dagoeneko sei enpresatan jarri dira martxan euskara planak eta beste batzuek ere azaldu dute interesa.

EBPN

euskara biziberritzeko plan nagusia, Bergara

Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66

 BERGARAKO UDALA

Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



12 urteko garantia
vegasa

Etxebizitzak

Egubakoitza / 2006ko urriaren 20a / **Arduraduna:** Leire Kortabarria / **Maketazioa:** Oxel Arrieta



ARGAZKILARIA : JUANMA BERRUETA / 'ARRASATE IRUDIAK' LIBURUTIK HARTUTA

4.000 berri



edertu

%**25**eko deskontua koltxoietan

Masterreka 9-11 / Barrenkale 23 BERGARA

MIKEL LASA, ASEGURU ARTEKARITZA

“Etxebizitza ondo aseguratuta izateko gakoak eskura jartzen dizkizugu”

Gaur egun, etxebizitza aseguru beharrezkoa dela ez du inork zalantzan jartzen. Dena den, aseguru kontratatu aurretik, hainbat faktore garrantzitsu kontuan hartu behar dira, baldin eta ezbeharren aurrean aseguruaren erabateko eraginkortasuna lortu nahi bada, ondasunei zein balio eman behar zaie jakin nahi badugu, eta abar.

Etxebizitza aseguru modu egokian eta bezeroaren beharretara egiteko, hainbat dira argitu behar diren zalantzak. Horiek denak argitzen laguntzen dizu Mikel Lasa aseguru-artekaritzak Axaren Hogar Seguro sortaren bitartez, egungo merkatu asegurtzailean dagoen eskaintzarik onenetarikoa baita. Etxebizitza aseguru honen arrakasta bezeroen ikuspegia kontuan hartuta egin izatean datza, uneoro aseguruaren garapenean eta sortzean parte hartuz euren iritzi eta iradokizunekin. Prozesu honek emaitza ezin hobeak ematen ditu, konfiantzan eta hurbiltasunean oinarritutako prozesua da-eta. Ezaugarri horrek, gainera, aseguru polizak era errazean eta argian idatzita egoitea ziurtatzen du.

Era berean, Axaren Hogar Seguro sortak aspektu guztiak hartzen ditu kontuan, etxebizitza mota bakoitzari egokitutako garantiarekin, bezeroak bere beharretara egokitutako aseguru aukeratzeko modua izan dezan. Urak, kristalek eta fenomeno atmosferikoek egindako kalteak dira estaldurarik ohikoenak. Eta sorpresak saihesteko, Axak berme zehatzak eskaintzen ditu, hala nola, Arrisku Oro Arte, Arrisku Oro Akzidentala, Zuhaitz eta Zuhaikei kalteak edo Babes Juridikoa. Ildo beretik, Axak eskaintzen duen Lapurreta bermeak, esaterako, ondoko egoerak hartzen ditu bere baitan: ekintza bandalikoak, etxe eta lorategiko altzariak, altzari profesionalak eta aseguratuta dauden bitxiak. Era berean, kalean gerta daitekeen diruaren, jantzien eta bestelako objektu pertsonalen lapurreta, kreditu txartelak bidegabe erabiltzea, eta giltzen eta sarrailen ordezkatzeta edo galtzea hartzen ditu kontuan, etxebizitzan modu errazean sartzea saihesteko eta zuhurtziaz jokatzeko.

Axa Etxebizitza Aseguru kontratatzerakoan bezeroak lor ditzakeen beste abantaila batzuk familiarentzat eta etxebizitzarentzat eskaintzen diren doako urgentziako zerbitzu ugariak dira. Izan ere, bezeroek etxebizitzaren zaintza eta babes izango dute baldin eta, ezbeharren bat dela eta,

etxebizitza babesik gabe gelditzen bada: urgentziako iturgintza zerbitzua, instalakuntza finkoen apurketaren ondorioz sortutako kalteak konpontzeko; urgentziako kristaleria, kanpoko itxiduran kristalen bat puskatzen bada eta etxebizitza fenomeno atmosferikoaren aurrean babesik gabe gelditzen den kasuetarako; urgentziako elektrizitatea, argindarra martxan jartzeko; eta urgentziako sarrailagintza. Ildo beretik, poli-

zaren titularra edo bikotea ezbehar bategatik mugitu ezinda geldituko balitz, etxe-ko lanetarako laguntzailea izango lukete. Gainera, errezeta duten botikak bidaliko zaizkie etxera.

Axaren Hogar Segurok eskaintzen dituen bestelako doako zerbitzuak hauexek dira: edozein hobekuntza edo erreforma egiteko profesionalak bidaltzea (Axak bere gain hartzen ditu desplazamendu eta aurre-

kontu gastuak) eta lorezaintzari eta igerilekuaren mantenuari buruzko zalantzak argitzen dituen informazio zerbitzua. Telefono dei baten bitartez lorategiko landareen egoeraz galde dezakegu, izurrien aurrean zer egin, landareak eriteko garaiaz edo zuhaitz eta zuhaixken inausketaz, igerilekuko uraren tratamenduaz, zein produktu kimiko erabili behar diren, erabileraren maiztasuna... Zerbitzu honetako telefono zenbakia ezbeharretarako edo bezeroari zuzendutako arreta zenbaki bera da. Zerbitzu hau urteko 365 egunetan eta 24 orduz egoten da martxan, aseguruari errentagarritasun handiena ateratzeko asmoz. Dei bakar batekin, Axaren Bezeroarentzako Arreta-zerbitzuak konpontzailerik eraginkorrenak bidaliko dizkizu, ur ihesak edota kristal apurketek sortzen dituzten egoera eza-tseginak berehala konponduz.

Axaren Hogar Seguro gamak edozein etxebizitzatoko beharrak asetzeko prestakuntza osoa dauka: etxebizitza tradizionalak, txalet atxikiak, independenteak, apartamentuak. Azken hauentzat, bereziki, produktu zehatza eskaintzen du: Hogar Seguro Tisket. Formula erraza eta ekonomikoa da, eta bere prezioa benetan lehiakorra da. Horretaz jabetzeko, ikusi ondoko adibidea:

90 metro koadro izango dituen etxebizitza berri baten inguruko adibidea:

- Kontinentea: 63.000 €
- Altzariak: 20.000 €
- Bitxiak: 1.200 €
- Prima osoa: 112,86 € urtean.

Prezio paregabea eskaintzeaz gain, aseguruaren estaldura ere halakoa da. Izan ere, urak, suak, leherketek, fenomeno atmosferikoek, kristalen apurketak, edo lapurretek egindako kalteen %100 estaltzen du.

Interesgarria da kontuan izatea, prezioaz gain, kontratazio erraza eskaintzen duela eta aseguruaren polizari dagokion dokumentazio guztia momentuan jasotzen duela bezeroak. Zentzu horretan, oso egoikia da hipoteka-kredituak dituzten pertsonentzat.



ETXEKO SEGURUA

Zure etxeak ematen dizun lasaitasunaz gozatu nahi baduzu

AXA-k zure etxea babesten duen seguru bat eskaintzen dizu, aukera hoberekin.



Bizitzan Fidatu

“Aseguru mota honek bezeroak bere beharretara egokitutako aseguru egiteko aukera guztiak ematen ditu”


MIKEL LASA, S.A.
ASEGURU ARTEKARITZA

Arriskurik gabe apustu egin

Otalora Lizentziaduna, 5 behea - 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel. 943712454 - Fax 943771074
Mail: mikellasa@mikellasa.com - Web: www.mikellasa.com

■ EGITEN ARI DIREN ETA EGINGO DITUZTEN ETXEAK

Etxe berriak Debagoiensean

Arrasate

AGERRE KALEA

- 82 etxebizitza aurreikusita
- 46 familiabakarrak
- 36 libreak

ATXABALPE

- 224 etxebizitza aurreikusita
- Erdiak libreak; bestek, finkatutako preziodunak

AZERI

Polmetasa lantegia dagoen lekuan

- 220 etxebizitza aurreikusita
- 154 libre, 66 babes ofizialekoak

GESALIBAR

- 25 etxebizitza libre aurreikusita

ELEXGARAI

Aita Menni ospitale alboan

- 16 etxebizitza libre aurreikusita

AKISOALDE

Garagartza

- 96 etxebizitza
- 38 libre, 58 babes ofizialekoak
- Etorkezunerako asmoa da

URIBARRI

- 1. eremuan 30 etxebizitza egiteko baimena badute, eta laster hasiko dira
- 3. eta 4. eremuetan 40 etxebizitza eta garajeak egingo dira

MEATZERREKA

- 28 etxebizitza aurreikusita
- Bifamiliakoak guztiak

ZALDIBAR

- 18 etxebizitza baina gehiago izan daitezke. Aurreikuspena da

ZABALGUNEA

- 1. eremuan 143 etxe, orubeak eta garajeak egiteko baimena emanda

URUBURU

Urribarriko elizaren alboan

- 74 etxebizitza aurreikusita
- Bifamiliakoak guztiak

ZERRAJERA

Ospitale alboan

- 476 etxebizitza, 200 babes ofizialekoak (hauek egiten ari dira)
- 276 Udalaren eskuetan geratuko dira aurrerago eraikitzeko

MAALAKO ERREBALA

- 20 etxebizitza egiten ari dira

MAALAKO ERREBALA (okindegia dagoen lekuan)

- 30 etxebizitza egiten ari dira; baita orubeak eta garajeak ere

LEGARRE

- 76 etxebizitza libre egiten

GAUXORI

- 70 etxebizitza egiten ari dira
- Libreak dira guztiak

GARAIA

- 6 etxebizitza egiten ari dira
- Familiabakarrak guztiak

Aretxabaleta

TUBOS DE PRECISION lantegi alboan

- 20 etxebizitza, babes ofizialekoak
- 2007an emango dituzte

DEBA IBAIAREN BESTE ALDEAN

- 428 etxebizitza 4 urtean egiteko. Lehenengoak 2007an hasiko dituzte.
- 100 babes ofizialekoak
- 185 Udalak finkatutako preziodunak; zozketa eginda dago
- 45 promotorearen eskuetan
- 80 libreak
- 18 familiabakarrak edo bifamiliakoak

CERRAJERA VALLE LENIZ lantegi alboan

- 121 etxebizitza libre
- 2007an hasiko dira eraikitzen

ARABA IBILBIDEA

San Martin inguruan

- 110 etxebizitza libre
- Ez dute datarik, baina 2007an behintzat ez dituzte egingo

Antzuola

KALEGOI

- 13 etxebizitza, libreak denak
- Egiten ari dira

EGUZKI AUZOA

- Udal promozioiko 20 etxebizitza
- Lanak hasita daude

SAILUENTE

- 8 etxebizitza familiabakar

BUZTINZURI

- 10 etxebizitza birgaituko dituzte. Denak libreak izango dira

Aramaio

PEDRO INAZIO BARRUTIA

- 44 etxebizitza
- Babes ofizialekoak izango dira guztiak. Jaurlaritzak eremua aztertu behar ditu, konponketak behar badira egiteko. Lanak hori eta gero hasiko dituzte

KALE BERRIA

- 11 etxebizitza hastekoak dira, elkarri atxikiak
- Libreak izango dira guztiak

Eskoriatza

INTXAURTXUETA

- 48 etxebizitza libre; bloke bat hasita

SANTA MARINA

- 145 etxebizitza
- Urbanizazio lanak egiten ari dira

ELORRETA

Bolibarrera bidean

- 50 txalet; batzuk egiten ari dira

GAZTAINADUI AUZOA

- 40 etxebizitza bukatzen ari dira

KUATRUENA

- 28 elkarri atxikitako etxebizitza
- Egiten ari dira

Leintz Gatzaga

- Oraingo ez dute egin behar

Bergara

ZUBIAURRE

- 16 etxebizitza
- Laster hasiko dituzte

SAN LORENTZO

- Bloke bat
- Guztiak libreak dira eta eraikitzen hasita daude

URTEAGA

- 20 etxebizitza
- Guztiak babes ofizialekoak
- Batzuk eginda daude eta beste batzuk egiten ari dira

URTEAGA

Mobilla lantegia egon zen lekuan

- Hainbat etxebizitza
- 100 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak
- Dokumentua egiten denean hasiko dituzte; laster, edozelan ere

AMATEGI-GABIRIA inguruan

- 60 etxebizitza, laster hastekoak
- Guztiak babes ofizialekoak

SAN LORENTZO

Tornilleria Deba lantegi inguruan

- Hainbat etxebizitza, laster hastekoak
- 40 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

SAN ANTONIO

Algodonera lantegia egon zen lekuan

- Hainbat etxebizitza, laster hastekoak
- 24 babes ofizialekoak
- Gainerakoak libreak

SAN ANTONIO

Kamineruaren etxea egon zen lekuan

- 32 etxebizitza
- Aldundiak finkatutako preziodunak

UBERA

- 8 etxebizitza
- Familiabakarrak guztiak
- Eraikitzen hasiak dira

ANGIOZAR

- 8 etxebizitza
- Familiabakarrak guztiak
- Azken ukituak ematen ari dira; orain, margotzen ari dira

Elgeta

TORREALDEA

- 76 etxebizitza
- 20 babes ofizialekoak: 2007 bukaerarako banatzen hasiko dira
- 56 libre: 3. blokea egiten ari dira

URIBURU

- 66 etxebizitza
- 10 familiabakarrak
- 20 bifamiliakoak
- 18 elkarri atxikiak
- 18 finkatutako preziodunak

Oñati

KALEGOIENA

- 85 etxebizitza bukatzen ari dira
- 69 libreak dira, eta 16 babesekoak

KURTZEKUA

- 60 etxebizitza egiten ari dira
- 12 babes ofizialekoak dira
- 48 libreak dira


UGARKALDE

- 300 etxebizitza
- 195 babes ofizialekoak
- 15 finkatutako preziodunak (180.000 euro inguruan)
- 30 bifamiliakoak
- 60 libreak
- Eraikitzen ari dira

SAN MARTIN

- 306 etxebizitza
- 12 finkatutako preziodunak
- 294 libreak
- Laster hasiko dira eraikitzen

centro



Jar ezazu martxan zure negozioa hilean 400 euroren truke!

DEI EZAZU 945 12 80 60 TELEFONO ZENBAKIRA ETA EROS EZAZU BETI GURA IZAN DUZUN LOKALA, BALDINTZA SINESGAIK BATZUETAN. RESIDENCIAL BEROAN (ARETXABALETAN).

■ HERRI TXIKIAK

Gazteak herri txikietara mugitu

ARANTZAZU EZKIBEL

Herri txikietara mugitzen ari da jendea etxe merke eta lasaitasun bila. Ibarrean, jende gazteak hartu du herriz aldatzeko ohitura hori. Etxebizitzak duten prezioa dela-eta, beste irtenbiderik ez dute ikusi gazte horiek. Antzuola, Aramaio eta Elgeta dira Debagoienean jende gehien hartu dituzten herri txikiak.

Debagoienean Antzuola, Aramaio eta Elgeta ditugu herri txikiak, Gatzagaren ondoren. Orain urte batzuk, herri horietan, etxebizitzaren prezioa beste herrietan baino merkeagoa zen. Hori dela-eta, gazte batzuk herri horietara bizitzera joatea beste irtenbiderik ez zuten izan.

ETXE BERRIAK ERAIKITZEKO ASMOA

Aramaion orain bost urte eraiki zituzten etxe batzuk. Orduan, herrira jende gazte asko etorri zela nabaritu zuten.

"Herrian jende berria ikusten zen, batez ere gazteak. Azkenaldian, baina, ez dugu etxebizitza berririk eraiki eta orain ez da

horrenbeste jende etortzen", adierazi du Aramaio Udalak. Aurrera begira, 44 etxebizitza egiko asmoa dago. "Babestutako etxebizitzak izango dira eta zozketa eginda dago. Etxeen erdia Aramaio jendea egokitu zaio eta beste erdia inguruko herrietakoei", esan digu Aramaio Udaleko Juditek.

Elgetan ere antzeko zerbait gertatzen da. Denetara, 142 etxebizitza egiten ari dira; horietako 104 libreak dira, eta erdiak bai-

no gehiago kanpoko familiek erosten dituzte: Elgetako alkaterean, Patxi Basauriren, esanetan, horietatik %70 Bergarako, Eibarko eta Arrasateko familiek erosten dituzte.

SEME-ALABAK

Herri txikietara mugitu den jendeak inguruko herrietan egiten du lan: "Gehienak bikote gazteak dira eta gure herrian ez dute bizitzarik egiten. Kanpoan egiten dute lan eta hona lo egitera bakarrik etortzen dira", adierazi digute Antzuolako eta Aramaio Udal arduradunek.

Hala ere, ez dute egunez hutsik geratzen diren lo-hiri bihurtzeko arriskurik. Izan ere, orain urte batzuk Aramaio, Antzuola edo Elgetara joandako gazteek, orain, umeak izan dituzte. "Orain ume gehiago ikusten ditugu herrian. Batzuk bertan geratzen dira, baina beste guraso batzuek umeak ibarreko beste eskola batzuetara eramaten dituzte", adierazi digute Antzuolako udalekoek.

Herri txikiei ondo etorri zaie biztanleriak gora egitea.

Herri hauek lo-hiri bihurtu dira bertara bizitzera joan diren gazteentzat

Ume kopuruan igarri dute aldaketa handiena: gehiago ikusten dira



Herri txikietara joan diren gazteek han izan dituzte seme-alabak.



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 

tu dira



UBANE MADERA

Etxebizitzaren prezioaren aldea berdindu egin da

Gure ibarrean Aramaio, Antzuola eta Elgeta dira etxebizitzaren arazo dela eta jende gehien hartu dituzten herriak. Beste herriekin alderatuz, etxebizitzaren prezioa baxuagoa da herri horietan. Hala ere, gaur egun etxebizitzaren prezioa nahiko berdintsua da. Orain urte batzuk Debagoieneko herri handien eta txikien artean zegoen prezioaren aldea jaitsi egin dela esan digute.

Gure ibarrak bizi duen etxebizitza arazo larria dela eta, gazte batzuek inguruko beste herrietara joatea erabaki dute. Etxebizitza merkeagoen bila doaz.

Debagoienean Antzuola, Aramaio eta Elgeta dira jende gehien hartu dituzten herriak. Orain urte batzuk hasi ziren jende mugimendua nabaritzen. Orain, baina, etxebizitzaren prezioaren aldea ez da horrenbestekoa.

JENDE MUGIMENDUA

Aramaion orain lau edo bost urte hasi ziren jende mugimendua nabaritzen. "Orain urte batzuk alde nabaria zegoen etxeen prezioen artean, eta orduan

jende mugimendua nabaritu genuen. Orain, ordea, prezioak nahiko antzerakoak dira", esan digute Aramaioko Udaleko arduradunek.

IBARREKO GAZTEAK

Antzuolan, Bustinzuri eta Sagastiko etxeak egin zituztenean iga-

rri zuten populazio aldeketa: "Bikote gazte asko etorri zen. Garai hartan, herriko biztanleriak bi mila pertsonako muga pasa zuen".

Lan kontuak direla eta kanpotik etorri eta Antzuola aukeratu dutenak ere badira, baina gehienak ibarreko gazteak dira.

Etxebizitzaren prezioa ez da askoz baxuagoa herri txikietan

Antzuolan, orain bi urte nabaritu zuten populazio igoera



Etxebizitzak egiten Elgetan.

IBAN ARANTZABAL

grupo amuebladora
mondragonesa

TRUKE OPERAZIOA

Ekar ezazu koltxoia
eta **100 €**-rainoko
deskontua izango duzu

FLEX koltxoietan.



Banataile
ofiziala:

FLEX

TEMPUR

SWISSFLEX
www.swissflex.com

BULTEX

pardo

**SWISS
confort**

Sealy

koltxoi
leku



Zigarrola 1, 6. pabilioia
Tel.: 943 77 14 92

www.grupo-aeme.com • grupoam@grupo-aeme.com

■ BIZIGUNE PROGRAMA

Bizigune programaren gainekeo zalantza nagusiak

• ETXE MOTAK

Edozein etxe sar daiteke Bizigune programan?

Ez. Etxe hutsak izan behar dira, Bizigunen sartzeko eskaera egiterakoan, gutxienez urtebete hutsik daramatenak. Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute etxeek; haien azalera 102 metro koadro baino txikiagoa izan behar da; etxearen errenta ezin da izan hilerio 660 euro baino garestiagoa. Eta etxebizitzak librea izan behar du, ez babes ofizialekoa.

• APURKETAK, MATXURAK...

Zer gertatzen da etxean zerbait apurtzen bada?

Maizterrak etxebizitza egoera onean itzultzeko konpromisoa hartzen du Visesarekin; Visesa arduratuko da maizterrak konpromiso hori betetzen duela ziurtatzeaz. Horrez gainera, etxetresna elektrikoak, instalazioak edo antzerakoak matxuratzeko direnerako, arrisku anitzeko aseguruua kontratatuko da.

• ERRENTA KONTUA

Zer gertatzen da maizterrak errenta ordaintzen ez

badu edo errentarako hitzartutako bost urteak bukatu baino lehen etxea uzten badu?

Aurreneko kasuan, maizterrak errenta ez ordaintzeak ez du eraginik izango jabeengan, haiek errenta berdin kobratuko dute-eta. Kasu honetan ere Visesa arduratu beharko da horrekin.

Eta maizterrak, berriz, etxebizitza lagatzen badu kontratua bukatu baino lehen, Visesak abiaraziko ditu mekanismoak etxebizitza hori ahalik eta lasterren atzera ere merkaturatzeko. Bien bitartean, Visesak ordainduko dio errenta etxearen jabeari.

• JOATEN EZ BADA

Eta, berriz, bost urteren ostean maizterrak etxetik joan nahi ez badu, zer?

Kasu horretan ere, Visesak hartu beharko ditu beharrek neurri legalak. Dena den, kontratuak berariaz adieraz dezake, kontratua formalizatzean, maizter-botatze demanda egiteaz arduratzeaz gainera, Visesak kalte-ordaina eman beharko diola etxearen jabeari. Hori bai, kalte-ordainaren

zenbatekoa ezingo da izan hilean errenta tasatuaren %150 baino handiagoa.

• ZERGAK ETA BESTE GASTUAK

Zeinen ardura da kontribuzioa ordaintzea? Eta gasa, ura eta halakoak?

Kontribuzioa eta komunitate gastuak etxearen jabearen ardura dira. Ura, argia, gasa eta halakoak, berriz, maizterrak ordaindu beharko ditu. Eta etxetxek elkarteko gastuei dagokienez, berriz, etxearen jabeak ordaindu beharko ditu. Horrez gainera, jabeari dagokio, baita ere, auzo elkarteko batzarretara joatea eta horietan parte hartzea.

• BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Bizigunek eskaintzen duen etxebizitza bat errentan hartzen duenak badu aukera babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzeko?

Erantzuna baiezkoa da. Hau da, nahiz eta Bizigunerekin etxe bat hartu errentan, posible da saltzeko edo alokatzeko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketan parte hartzea.



Hutsik dauden etxeak errentan emateko beste bide bat da Bizigune.

L.K.

• ERRENTAREN KALKULUA

Zela kalkulatu da errentan emango den etxearengatik zenbat ordainduko dioten jabeari?

Tasazio enpresa batek egingo du kalkulu hori. Horretarako kontuan izango ditu etxebizitzaren ezaugarriak: non dagoen kokatuta, zenbat urte dituen, zein egoeratan dagoen... Horrez

gainera, kontuan hartuko du, baita ere, etxe horrek birgaitzeko beharrik baduen edo ondo dagoen. Hala, merkaturatzen dagoen errentari kenduko zaizkio kudeaketa-gastuei dagokien ehunekoa eta birgaitzearen kostua. Kudeaketa-gastuak dira tasazioak, aseguruak eta guztia abiarazteko egin beharreko txostenak egiteko Visesak egin dituen gastuak.



INMOBILIARIA-AGENTZIA



Iñaki Arrieta
Iñigo San Miguel

ARRIETA & SAN MIGUEL

- Zure etxearen salerosketa errazten dizugu zerbitzu guztiak eskainiz.
- Aukera zabala industrialde eta pabilioietan.
- Finkak administratzeko zerbitzua eskaintzen dizugu.

www.arrietasanmiguel.com

Iturriotz 23 behea - Arrasate - 943-71 17 81
Ilargi Plaza 6 behea - Aretxabaleta - 943-53 40 00

“Kutxan ahalik eta erraztasun gehienak eman nahi ditugu”

Etxebizitza Zerbitzuaren arduradunak, momentu honetan, mailegu misto eta finkoak oso ondo baloratzen direla nabarmentzen du.



Nora Egañarekin elkarrizketa,
Kutxako Etxebizitza zerbitzuaren arduradunarekin

Zer da Kutxaren Etxebizitza Zerbitzua?

Etxebizitza bat saldu edo erosi nahi duten pertsonari eskaintzen diegun aholkularitza eta laguntza zerbitzua da.

Zergatik eskaintzen duzue? Ze helburu dituzue?

Etxebizitza baten salmenta edo erosketa familia edo pertsona batek egiten duen finantza-eragiketarik garrantzitsuenak da. Gure helburu funtsezkoena salerosketa prozesuan aholkulari lanak egitea da; eta, gainera, familia edo pertsonaren beharren arabera finantzazioa eskaintzea.

Ze mailegu eskaintzen ditu Kutxak?

Orain dela ez asko, bi finantziario modu zeuden bakarrik: finkoa eta aldakorra. Gaur egun, mailegu mistoen aukera zabala dugu. Horietan, interes

finkoa aldakorarekin konbinatzen dugu, interes taseen igoerek bezeroari ekar diezaioketen arriskua mugatuz. Pertsona edo familia bakoitzak bere egoera ekonomiko eta familiarak dituenaz, Kutxan, guztiei, ahalik eta erraztasun gehienak eman nahi dizkiegu. Horrela, aukera zabala eskaintzen dugu, eta gure bezeroak bere baldintza eta behar pertsonalei gehien egokitzen zaiona aukeratzen du.

Horietako zein gomendatzen duzue gaur egun?

Momentu honetan, interes tasek azken hilabeteetan izaten ari diren gorako tendentzia ikusita, gure bezeroek mailegu misto eta finkoak baloratzen dituzte. Aukera hau askok eskatzen dute, izan ere, interesen igoeren aurrean, beraien ekonomia babesteko aukera ikusten dute.

Eta aipatzen zenuen aholkularitza zertan oinarritzen da?

Aholkularitza fiskal on bat, eta garaiz egindakoa, oso garrantzitsua da. Foru Ogasunak gure ohiko etxebizitza erosteagatik 30.000 eurorainoko

kopurua erreperatatzeko aukera ematen digu. Eragiketa hasieratik aztertzea garrantzitsua da, errentagarritasun fiskal handiena lortu nahi bada. Erosketa egin baino sei urte lehenago has gaitzke dedukzio hauetaz baliatzen, eta mailegua ordaindu arte luza ditzakegu. Era berean, erosketari dagozkion gastuak jabearen eta etxebizitzaren ezaugarrien arabera alda daitezke. Esate baterako, ordaindu beharreko zerga kopurua ezberdina da, etxebizitza berria edo bigarren eskukoa izanda.


Horregatik guztiagatik, bezeroaren azterketa pertsonalizatu bat egiten dugu, erosleak ahalik eta abantaila guztiak izan ditzan.

Zeinek jaso dezake zerbitzu hau? Nora jo behar du?

Etxebizitza Zerbitzua, etxebizitza saltzen edo erosten dabilen edozeini zuzendua dago, edo epe laburrean edo ertainean asmo hori duenari ere. Beraien ohiko bulegora joan daitezke, eta oraindik ere Kutxako bezeroak ez badira, sukurtsal gertuenara edo Etxebizitza Zerbitzura, Donostian, Garibai kaleko 15. zenbakian.



Hipoteka egokienaren bila bazabiltza



AURKITU DUZU

Kutxaren Etxebizitza Zerbitzuan, merkatuko hipoteka guztiak baititugu: gerta litezkeen interes-gorakadetatik babesten zaituena; bere balioaren % 100 finantzatzen dizuna; gehien komeni zaizun epea ematen dizuna; kuota zure egoera ekonomikoetara egokitzeko aukera ematen dizuna... **Guzti-guztiak dituzu eskura. Ez da bakar bat ere falta.**

Bestalde, **Kudeatzaile Pertsonal** batek, zure neurriko finantzaketa diseinatzeaz gainera, erosketa-prozesu osoan lagunduko dizu. Hasi eta buka.



ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

■ BIGARREN ETXEBIZITZAREN 'BOOM'-A

Bigarren etxebizitza: aisialdia eta inbertsioa

EDU MENDIBIL

Azken datuen arabera, Espainian 23,4 milioi etxebizitza inguru daude. Horrek esan nahi du bi biztanleko etxebizitza bat dagoela, etxe salmentaren *boom*-aren datu adierazgarria. Kopuru horren % 68,5 lehen bizilekuak dira, eta gainerakoak, bigarren etxebizitzak.

Prezioek goraka jarraitzen duten arren, etxe salmentaren *boom*-ak badirudi ez duela amaierarik. Bigarren etxebizitza erostea askoren ametsa bilakatu da. Aisialdiaz gozatzeko aukera eskaintzeaz gain, inbertsio bikaina suposatzen du bigarren etxebizitza izateak. Hori dela eta, aurreztutako dirua, loterian irabazitakoa edo herentziaz jasotakoa inbertitzeko modurik onenetakoa hori izaten da, bigarren etxebizitza erostea, alegia. Interesak nola dauden ikusita, hobe izaten da

inbertsio ziurra, arriskurik gabea egitea. Honelako erosketen arrakasta merkatuak berak argi uzten du: zonalde turistikoetan %100etik gora handitu da etxebizitzaren balioa. Etxe-agentzietan, egunkarietan edo Interneten aurki daitezkeen eskaintzak ikustea besterik ez dago.

EUSKAL HERRIKO KOSTALDEA

Esan bezala, Espainian diren 23,4 milioi etxebizitza ingurutik, %31,5 gutxi gorabehera bigarren etxebizitza dira. Eta nora jotzen dugu debagoiendarrok bigarren etxebizitza eskuratzeko orduan? Etxetik gertuko lekuak aukera-

Zonalde turistikoetan %100etik gora handitu da etxebizitzaren balioa

tzen ditugu normalean, eta itsasoak mendiari hartzen dio aurre. Hainbat etxe-agentzietan kontsultatuta, Gipuzkoako kostaldea (Zarautz, Donostia, Zumaia, Hondarribia...), Bizkaikoa (Lekeitio, Urdaibai...), Pirinioak (Jaca aldea, batez ere) eta Kantabria dira arrakastatsuenak. Era berean, Errioxara, Mediterraneoako kostaldera (Valentzia, Castelló eta Alacant, nagusiki) edo Andaluziara askok jo dute. Beste datu bitxi bat: Madrilen eta Gaztela eta Leonen ere bigarren etxea dutenak dezente dira.

UDA PARTERAKO

Ohikoa izaten da uda partean etxeaz gozatzeko eta urtean zehar alokairuan jartzea, zenbait lekutan aukera hori erraza ez den arren. Zenbait herriren eskaintza eskasa da udako denboralditik kanpo.

Indarrean dagoen etxeen trukaketa etxeari errendimendua ateratzeko beste modu bat da.



ARTXIBOA

Bigarren etxebizitza Zarautzen erosi dutenak asko dira Debagoienean.

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA



Zu hemen zaude

● **HONDARTZA ORIO Bizitegi Gunea**

30 BANAKANO ETXEBIZITZA

Lehen mailako materialak. Terraza-solariumak
Iggogailua, txokoa eta garaje bikoitza
Orioko hondartza eta Kirol Portuaren ondoan
A-8 Autobidetik sarbide zuzena. Donostiatik 10 minutura eta Zarautzik 5era



Informazioa
943 81 24 62

Landeta Auzoa z/g. 176 Postakutxa - 20730 Azpeitia (Gipuzkoa) - Tel.: +34 943 812462 - Fax: +34 943 816619

www.antzibar.com



■ BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA EROSTEKO

Etxebide: etxebizitzarako sarrera errazteko bidea

IRATI AGIRREAZALDEGI

Visera Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako erakundea da. Euskal Autonomia Erkidegoan kalitatezko etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskuratzeko eskubidea bermatzea du helburu. Visera enpresaren baitan dago, hain zuzen ere, Etxebide: Etxebizitza Euskal Zerbitzua.

Etxebidek etxebizitzari buruzko laguntza programen gaineko zerbitzuak ematen ditu. Etxebideren bidez babes ofizialeko etxebizitzak erosteko edo errentan hartzeko eskatzaileen erregistroan eman behar da izena. Urte osoan onartzen dira eskariak; baina pertsona edo bizikidetz-unitate bakoitzeko bakarra.

ESKAERAK EGITEKO BALDINTZAK

Babes Ofizialeko Etxebizitza baten jabe egiteko frogatu behar da adin nagusia edo adingabe emantzipatua dela; etxea edukitzeko benetako beharra duela; EAEn erroldatuta dagoela; eta aurreko bi urtetan babes ofizialeko beste etxe baten esleipenduna ez dela izan.

Kasu bakoitza aztertuta, interesatuei jakinaraziko zaio eskatzaile



GOIENKARIA

Etxebideren zozketa bat Bergaran. Nahi duen guztia joan daiteke zozketak ikustera.

Urte osoan onartzen dira eskariak Etxebideren erregistroan

leen erregistroan onartu duten ala ez; ezezko kasuan, arrazoiak azalduko zaio eta hilabete izango du helegitea aurkezteko edo eskaera zuzentzeko. Erregistroan baja eman nahi bada, nahikoa da idatzi bat bidalita. Baina badira interesatuak eskatu gabe baja eragi-

Etxebizitza erosteko zozketak jendaurrean eta notarioarekin egiten dira beti


ten duten arrazoiak: babes ofizialeko etxebizitza baten esleipena edo erosketak; izena emateko unean betetzen ziren baldintzak orain ez betetzea; eta etxebizitza eskuratzeko egokitu eta gutxienez bitan uko egitea. Kasu horietan ezingo da alta eman berriz bi urtean.

ESPEDIENTE PARTIKULARRA

Behin eskatzaileen erregistroan sartuta, interesatuak espediente zenbakia jasoko du aurrerantzean bere prozesuaren bilakaera jarraitzeko. Horretarako biderik errazena www.etxebide.info atarira jo eta *jarraitu zure espedientea* atalera jotzea da. Bestalde, espedienteak eguneratuta egoteko, oso garrantzitsua da aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean Etxebideri idatziz jakinaraztea.

ETXEBIZITZEN ESLEIPENA

Erregistratuek automatikoki hartzen dute parte zozketetan. Zozketa beti jende aurrean eta notarioarekin egiten da eta nahi duena joan daiteke. Jasotako eskaeren kopurua etxebizitzena baino handiagoa bada, hasieran etxebizitzarik lortu ez dutenek itxaron zerrenda osatuko dute. Ondoren, epe bat zabalduko da helegiteak aurkezteko eta gero etxebizitza onartu edo ukatuko du esleipendunak.



 "la Caixa"

Garibai z/g
ARRASATE

Etxebizitzaren finantzaketa
Etxebizitza eroso estreina ezazu



**Aretxabaletako
Udala**

Otalora 1
Tel.: 943 71 18 62
Faxa: 943 71 18 64
www.aretxabaleta.com



Bizitza kalitatea badu izena Aretxabaletan:



Duplex zoragarriak espazioaz eta erosotasunaz gozatu dezazun bete-betean.
Duplexak terrazekin. Lau logelako etxebizitzak.

© I N T E R L I N E



Una promoción de



Informazioa eta salmenta
tel.: 943 31 12 17

Iragarki honetan azaltzen diren irudiak, planoak, eskemak eta datuak ez dira kontratuzkoak, bakarrik informatiboak. Etxebizitza ezberdinak direnez, apirilak 21eko R.D.515/1989ari erreferentzia egiten dion beste informazio guztia, jendarean aurkitzen da gure salmenta bulegoan. Progen, iragarki honetan azaltzen diren datuen eta espezifikazioen parte bat edo bere osotasunena aldatzeko eskubidea izango du.

LEHENGO ETA ORAINGO ETXEBIZITZAK

Asko aldatu da etxebizitzaren prezioa azken 40 urteotan

MIREIA BIKUÑA

Gaur egun etxeak oso garestiak direla gauza jakina da. Bada, etxea erosteko garaia iristen denean horrekin konaturatzen da jendea. Duela 40 urtetik hona, etxebizitzaren prezioa asko garestitu da, baina garai hartako erosleek izan zituzten eta gaur egungo erosleek dituzten buruhausteak oso antzerakoak dira.

Duela 40 urte etxea erosi zuen bikote batek hura ordaintzeko egin zituen kontuen artean eta duela gutxi babes ofizialeko etxea tokatu zaion gazte batek egin dituen artean, ez dago aldaketa handiegirik. "Gure garaian etxeak merkeagoak ziren, baina gutxiago irabazten genuen. Guk etxea Oñatin erosi genuen 1965.

urtean. Eta 340.000 pezeta ordaindu genituen. Gaur egungo gazteendako diru gutxi da. Baina ez pentsa, gure garairako diru asko zen. Eta kosta egin zitzaigun etxea

1965 urtean etxea erosteagatik 340.000 pezeta ordaindu zuen bikote batek

Gaur egungo etxeen prezioa, herrien arabera, 40 miloitik gorakoa da

ordaintzea", adierazi digu Oñatiko bikote nagusi batek. Zazpi urtetan lantegian aurreztutako guztia etxea ordaintzeko bideratu zuten eta, gainera, kreditua eskatu zuten. "100.000 pezetako kreditua eskatu genuen, bi urtean ordaintzeko" adierazi digute. 1965. urtean erositako etxea ordaindu eta gero, bigarren etxebizitza bat erosteko bidea izan zuten: 1998. urtean erosi zuten. "Bigarren etxea erosteko ez genuen krediturik eskatu: hamabost miloi pezeta ordaindu genituen hiru epetan", diote.

BATEKIN, NAHIKOA

Bigarren etxebizitzan pentsatzeko astirik ez duela aitortu digu babes ofizialeko etxea tokatu zaion gazte batek. "Bai zera! Nahikoa buruhauste ditut lehenengo etxea nola ordainduko dudan era-



Jesus Mari Heriz arrasatearrak 1983. urtean erosi zuen etxea. 24.000 euro ordaindu zuen etxea

bakitzin, bigarrenarekin pentsatzin hasteko", aitortu digu Mikel. Oñatiko Ugarkalde auzoan egokitu zaion babes ofizialeko etxe berriko giltzak datorren urte amaiera aldera jasoko ditu, erakuntzan atzerapenik ez badago. Ordura arte zubi-kreditua delakoa ordaintzen egongo da. "Giltzak jaso ondoren hipoteka-kreditua eskatuko dut". 120.000 euroko etxea tokatu zaio eta dagoeneko %20ko sarrera ordaindu behar izan du.

Gazte honentzat, babes ofizialeko etxebizitzak dira gazteek etxea eskuratzeko duten irtenbide bakarra: "Nire ustez, guztiak izan beharko lirakeke babes ofizialeko etxebizitzak; lehenengo etxea bai, behintzat. Etxea erosi gura duenak diru asko ordaindu behar du. Etxebizitza luxuzko artikulua izatea onartezina da", gaineratu du.

Beste iritzi batekoa da hiru seme-alaba dituen Jesus Mari arrasatearra: "Ez dut uste babes

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.

Elgetan (Torrealdea)

B blokea: 16 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2007ko apirila.

- 2 logeladun apartamentuak, garajearekin (bi leku): 215.000 €
- 3 logeladun etxebizitzak, garajearekin (bi leku): 239.000 €

C blokea: 24 etxebizitza eta apartamentu.

Bukaera: 2008 urtea.

Elgetako etxegintza SL Tel. / Faxe: 943 79 83 08 Aldai kalea 7, behea ARRASATE



Omega Elevator, s.a.

↳ Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan

↳ Gremioen koordinazioa

↳ Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ Tel.: 945 29 03 08 / Faxe: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com



IKER BARANDIARAN

Jesus Marik etxea 1983. urtean erosi zuen eta 24.000 euro inguru ordaindu zituen. "Kreditua eskatu genuen, 12 urtetan ordaintzeko. Etxea hipotekatu genuen eta lau abal-emaile behar izan genituen. Hasierako urteak nahiko gogorrak izan ziren. Lehenengo hilabeteetan, soldata bat kreditua ordaintzeko bideratzen genuen", azpimarratzen du Jesus Marik.

KREDITUAK

14.750.000 pezeta ordaindu zuen etxea erosteagatik Oñatiko bikote gazte batek: "1997. urtean erosi genuen etxea. Garajea ere erosi genuen. Garajeak beste prezio bat zuen: 1.500.000 pezeta", esan digute.

Hogei urtetan ordaintzeko zortzi miloi pezetako kreditua eskatu zuten. "Oraindik ere ordaintzen jarraitzen dugu. 360 bat euro ordaintzen ditugu hileror", azaldu zigun bikote gazte horrek.

Bigarren etxebizitza erosteko aukeraz galdetzerakoan, erantzuna oso garbi dute: "Guk oraingo ez dugu horrelakorik aurreikusten. Konformatuko ginatke zortzi urte aurretik eskatutako kreditua ordainduko bagenu. Gure gurasoek bigarren etxea erosteko aukera izan dute. Etxeak merkeagoak ziren, baina soldata ere txikiagoak ziren. Hala ere, garai hartan gutxiago irabazi arren, gehiago aurrezten zuten. Hortxe dago aldea", gaineratu digute.

Etxeak luxuzko artikulua dira

Bailarako etxebizitzaren prezioak kostaldeko etxebizitzek duten prezioarekin parekatu dira. Arrasaten etxea erostea Zarautzen eta Donostian erostea bezain garestia da dagoeneko. Badi-rudi, hala ere, 2006an etxebizitzaren prezioa ez dela 2005ean bezain beste igoko. Aurtengo, %5,6ko igoera aurreikusten da, 2005eko baino hiru puntu gutxiago. Askorendako, luxuzko artikulua dira etxeak.

Eta hori dena kontutan hartu behar da etxea erosterako orduan batez ere gazteek dituzten arazoak jakiteko. Haien irtenbidea babes ofizialeko etxebizitzak izan daitezke, prezioz merkeagoak direlako. Oñatiko Ugarkalde auzoan eta Elgetan, duela gutxi zozketatu dira babes ofizialeko etxebizitzak. Arrasaten, Gelman ere babes ofizialeko etxeak egin-gin dituzte; 131 hain zuten.

HELBURUA, KREDITUA ORDAINTZEA

Azken urteotan etxebizitzaren prezioak izan duen goranzko joera ikusita, bigarren etxebizitza bat erostea oso zaila egiten zaie. Kreditua eskatzen dutenek urte askotan euren bizitza baldintzatzen dute. Horregatik, helburu bakarra lehenbailehen kreditua ordaintzea da.

Gaur egungo gazteen gurasoek edo duela 30-40 urte etxea erosi zuten pertsonak, aldiz, aukera izan dute bigarren etxea erosteko. Batzuek erositako lehenengo etxea saldu dute; beste batzuek, aldiz, biak dauzkate oraindik. Gaur egungo gazteek hori ezinezkoa ikusten dute.

Orduko etxebizitzak merkeagoak ziren, baina soldata ez ziren oraingoak bezalakoak, txikiagoak ziren. Hilero 5.000 pezeta irabazita, 100.000 pezetako kredituak buruhauste asko sortzen ziren. Atera kontuak.

rengatik.

ofizialeko etxeak direnik gazteen etorkizuna. Ez daukat oso garbi babes ofizialeko etxeen kontua. Tranpa asko dago. Gainera, denbora gehiegi itxaron


behar da etxea izateko. Eta gero, noski, zozketa egiten denean zorte apur bat ere behar da. Nik behintzat nire seme-alaben etorkizuna oso ilun ikusten dut".

Babes ofizialeko etxeak dira gazte askorendako etorkizuna

Bigarren etxebizitza bat erostea oso zaila da gaur egun

ARRASATE

Azken aurrerapen teknologikoarekin egindako ETXEBIZITZAK URIBARRIN



UTE URIBARRI
sukia GEDI

■ BABESTUTAKO ETXE TXIKIAK

Etxe txikiak, adin eta egoera batekoendako aukera ona

ENEKO AZKARATE

Etxebizitza arazo da ez duenarendako: batik bat, gazte jendearendako eta diru baliabide urriak dituztenendako. Horiendako alternatiba dira gaur egun babestutako etxeak eta alokairuzkoak. Beste alternatiba bat izan litezke etxe txikiak, 30 bat metro koadrokoak, baina horiek, gurean, ez dituzte eraikitzen.

Europa iparraldean oso ohikoa da etxe txikiak eraikitzea. Segmentu konkretu batendako alternatiba erreala dira: gazteendako —bakarrik zein bikote moduan bizitzeko—, batik bat hirian bizi direnendako, etxean denbora gutxi ematen dutenendako, erretiratuendako... Tradizio handia dute han era honetako etxeek; izan ere, 40 urtetik gora daramate horrelakoekin. Salgai edo errentan jartzen dituzte.

Gurean, ordea, ez dira horrelakoak bultzatzen. Alternatiba erreal izan beharrean, "duintasunaren aurkakoak" direla esan dutenak ere badira. Etxebizitzen sektorean lanean diharduen debagoiendar baten iritziz, ordea, "administrazioak debekatu egiten



Bartzelonako etxebizitzaren azokan aurkeztu zituzten mikro-etxeak, jendeak barrutik ere ikus zitzen.

GOIENKARIA

du 30 metro koadroko etxeak egitea. Hori itsutasuna da. Etxeak moldatu behar du pertsonara, ez alderantziz. Etxe horiek une jakin baterako irtenbide puntuala izan daitezke". Espainiako Etxebizitza

Ministroa ere iritzi berekoa da eta orain dela urtebete horrelakoak eraikitzea proposatu zuen. Finlandiako etxebizitza politika zuen eredu. Asko izan ziren haren aurka agertu zirenak.

FINLANDIAKO EREDUA

Aldeko eta aurkakoak dituzte, argi da, era horretako mikro-etxeek. Baina, eztabaidatan sartu barik, merezi du ezagutzea Finlandian darabilten etxebizitza

Finlandian arrakasta handia dute 30 metro koadroko etxe sozialak

politika. Finlandian udalak dira babestutako etxeak eraikitzen dituztenak. Gobernuak ildo nagusiak eta arauak ezarri, eta etxegileei, udalei eta etxeen jabeiei laguntzak ematen dizkie. Udalek eraikitzen dituzte era honetako etxebizitza sozialak, gero errentan jartzeko.

Etxeak banatzerakoan, diru sarrerek hartzen dira aintzat. Merkatu libreko etxea galdu dutenek ere jaso dezakete era honetako etxeak. Etxe horiek, berez, merkatu librekoak baino merkeagoak dira, baina, horretaz gain, gobernuak dirulaguntzak ematen ditu hilean, errentari aurre egiten laguntzeko. Batik bat, gazteak eta langabezian daudenak dira etxebizitza sozial txiki horiek erabiltzen dituztenak. Eskaera handiak dituzte etxe horiek. Merkatu liberako ere eraikitzen dituzte, baina saltzeko, batik bat.



eskoriatzako
udala

Fernando eskoriatza plaza 1 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 44 07 / 943 71 45 32 Faxa: 943 71 40 42
udala@eskoriatza.net www.eskoriatza.net



Elgetako Udala

Mendizaleen plaza 1
Tel.: 943 76 80 22 / Faxa: 943 76 82 89
ELGETA
www.elgeta.org



Oñatin

AZKEN ETXE-BLOKEA SALGAI

Ikuspuntu onenatarikoan
kokatutako etxebizitzak

943 71 88 98

Oñatin auzo barrixa: Ugarkalde



Bergaran

LOKALAK ETA GARAJEAK
SALGAI - Arrizuri parkean

943 76 90 80



Eskoriatzan

ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK,
berezko lursailarekin

902 11 70 17



Euskadin bizitza kalitatea ematen dugu

Babes Ofizialeko 16.000 etxebizitza
1.300 milioi eurotik gorako inbertsioa zure bizi-kalitatea hobetzeko.

Eraiki ditugunak
5.513

Eraikitzen ari garenak
4.418

Eraikiko ditugunak
5.747



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

nire bidaia hura

Izaskun Arroio
Vietnam > 2006ko abuztuan**"Herrixketan emakumeak irekiagoak dira; harreman komertzialak eurek egiten dituzte"**

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Abuztuan hegoaldetik iparraldera zeharkatu zuen Vietnam 27 eguntan Izaskun Arroio. Antolatutako bidaia batean joan zen 24 lagun eta bi gidarirekin eta lekurik esanguratsuenak bisitatu zituzten.

Iaz egindako bidaia batean gomentatu zioten kideek Vietnam bisitaztea eta antolatutako bidaia batean joan zen udan.

Hegoaldetik iparralderako ibilbidea egin zuten lekurik esanguratsuenak bisitatu. "Ho Chi Minh-era (lehenengo Saigon) joan ginen lehenengo. Egun bat pasa eta gero, irteerak egin genituen. Irteera horietako batean Vietnamgo gerratean egindako tunelak ikusteko aukera izan genuen".

Iparralderako bidea hartuta hainbat herritan gelditu ziren; lotarako edo herriak ikusteko. "Autobusek 60 km/orduko abiadura muga zuten. Gogoan daukat 50-60 kilometro egiteko ia 12 ordu pasa genituela". Bidean hoteletan lo egin zuten gehienetan, baita itsasontzian eta trenetan ere.

IPARRALDEA ETA HALON BADIA

Gehien zer gustatu zitzaion galduta zentrotik iparraldera dagoen aldea aipatu du. "Guztia da polita, berdea, arroz-soroz betea, baina mendi ingurua, indigenak dau den tokia, asko gustatu zitzaidan".

Halon badia ere oso ikusgarria dela esan digu: "3.000 uhartetox osatua dago eta guk itsasontzian eman genituen bi egun han. Irla bat bisitatu genuen, bertan bakarrik bizi da jendea; besteak aldamenetik pasatu genituen. Itsasontzi asko zebilen eta kontrolatu egin beharko lukete hemendik urte batzuetara asko sumatuko baita kutsadura". Hondartzak ere handiak eta hondar zuri eta finekoak direla esan digu.

Saigon, esaterako, oso kaotikoa iruditu zitzaion. "Ziklomotore mordoak zebilen, bakoitzak nahi zuen moduan. Alperrik ziren semaforoak".



Izaskun Arroio.

"Saigon oso kaotikoa da; ziklomotore mordoak dabil bakoitzak nahi duen moduan"

"3.000 uhartetox osatutako Halon badian merezi du itsasontzian egonaldia egitea"

Baina ezagutu zuen Saigonen alde ezkutua ere: "Gidariak gomentatu zigun ibaiaren beste aldera ez pasatzeko, arriskutsua zelako. Baina taldean hara joan eta bertakoak bizi diren tokiak ezagutu genituen. Harrituta geratzen ziren turista bakarrak ginelako".

LURJAUSIAK BIDEAN

Bidaiatik gordetzeko moduko anekdota bat ere badu Izaskun Arroio. "Iparraldera gindoazela lurjausi batekin egin genuen topo eta autobusa ezin zen pasa. Oinez abiatu eta beste aldean kamioi bat zegoen ezin pasatuta; beraz, kamioian sartu ginen, baina beste lurjausi bat aurkitu genuen bidean; ez aurrera ez atzera geratu ginen. Beraz, oinez jarraitu genuen eta gure gidariak motor bat geratu eta laguntza eskatu zion. Kostata baina azkenean iritsi ginen".

Bertako jendea jatorra omen da baina apenas izan dira harre-

manetan eurekin. "Emakumeak irekiagoak dira, harreman komertzialak eurek egiten dituztelako".

Bestalde, jatekoarekin ere ongi moldatu da: "Denetarik dago: arraina, barazkiak, fruta, arroza, haragia... Arazo bakarra espeziekin izan daiteke baina eska daiteke ez botatzeko edo aparte ipintzeko. Janaria oso garbia da, koiperik apenas jaten dute".

Oroigarri moduan txapelak ekarri zituzten gehienek baina erosketak egiteko eman digu gomendiorik Izaskunek: "Hoi An herriari arropa neurritza josten dute egun batetik bestera. Turista asko joaten da orain. Lehen ez omen ziren gerturatzen, orain, gauzak saltzera etortzen ziren turiston aldamenera. Baina beste herrirako batean sartu ginen itxuraz turista gutxi joaten zena ze ez zuten lagatzen argazkirik ateratzen, eta umeak ere etxean ezkututzen zituzten".



Izaskun Arroio (ezkerretik bigarrena), Nha-Trang-Cham dorrean, bidaiari egindako lagun oiartzuar eta kataluniarrekin.

bere ustez



Jose Angel Mikeo

Kultura eta inkulturaren arira

Kultura gizakiaren ezauzgarri adierazgarriena da. Mendeetan zehar jakintza belaunaldiz belaunaldi pasatzeko ahalmena sortzen joan da, horrela aurrerabide ikaragarria lortuz.

Kulturaren bidez hainbat gauzari esanahi berezia eman diogu, sinboloak sortu ditugu. Horrela, harri bat edo zuhaitz bat, naturako zati izateaz gain, ez dira harri eta zuhaitz soilak gure begietara eta horien inguruan erlijio baten edo herri oso baten izaera adierazita ikus ditzakegu.

"Kulturaren bidez gauzei esanahi berezia eman diegu; sinboloak sortu ditugu"

Avilako herri batean, urbanizazio erraldoi bat egiteko asmoz, lau mila zuhaitz bota eta gero, lanak gelditzea lortu dute, teknikarien kontrako txostenen eraginez. Izan ere, ingurua babestuta zegoen, zikoina beltza eta beste hegazti batzuen bizilekua zelako.

Etxe aurrean, metro bete ziztrin kaminoa zabaltzeko, hirurehun urteko haritza bota berri dute, nahiz eta behin eta berriz adierazi ez zela zuhaitza bakarrik, bailarako bizidun zaharrena zela, antzinako muga, historiaren testigu... dena alperrik. Kasu honetan teknikariek ez dute aintzakoztat hartu ezer eta babestu behar zuenak ez du babestu.

Halakotan, "kulturadun" hitzaren aurrean "inkulto" hitz hutsak ez dakit egindakoak adierazten dituen.

EDEL

TAPIZ DENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



ALTUBE TAILERRAK S.L



- Estanpaziorako piezak eta tresnak
- Mekanizatzea eta artezteak

Urarte 22 BERGARA 94 posta-kutxa

Tel.: 943 76 22 74

Faxa: 943 76 04 99



Irrintzi kafetegia

Irala 3. BERGARA

Tel.: 943 76 48 26

ORDENANTZA FISKALAK > DATORREN URTEKO IGOERAK ONARTUTA

Zaborra %4,27 igoko dute eta baserritarrei kobratzen hasiko dira

Kirol etxeke abonuek %8ko igoera izango dute, banakako entrenamendu saioen prezioa bikoiztu egingo dute, eta gainerako jarduerak KPI igoko dira

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Udalak ematen dituen zerbitzuen igoera onartu zuen astelehenean udalbatzarrak. Ilunpean egin behar izan zuten ez ohiko osoko bilkura haizearen erruz argi barik geratu zelako Aretxabaleta, baina inork eragozpenik jarri barik onartu zituzten igoerok.

KPI-ARI 0,3 GEHITU BEHAR
Kontsumo Prezioen Indizea, KPI, zela geratu den azaro erdian jakingo dugu, baina Udalak dagoeneko onartu ditu zergen igoerak. Iaz, %3,4ko igoera onartu zuten urrian, baina KPI %3,7



ZABORRA Baserritarrei ere kobratu egingo diete zaborraren zerga, bilketa puntura duten distantziaren arabera.

M.A.

izan zen. Ondorioz, aurtengo indizeari 0,3 gehituko diote iazko desoreka konpentsatzeko. Ondasun higiezinaren gaineko zerga %2 eguneratzea aurreikusitako Aldundiak, eta Udalak onartu du

tipoak igotzea eskualdeko gainerako herriei bateratzeko. Horrez gain, KPIaren igoera aplikatuko diote.

Eraikuntza eta obren gaineko zergek KPIaren igoera

izango dute, eta hainbat kasutan hobariak jasoko dituzte: komunitateko obrak direnean, barne birgaitze lanak egitean, igogailuak jartzean eta beste batzuetan.

Kirol etxeke abonuek %8ko igoera izango dute, banakako entrenamendu saioen prezioa bikoiztu egingo dute, eta gainerako kirol jarduerak KPI aplikatuko diete.

Urats-Gain zaharren egoitzako igoera Arrasatekoaren pareira hurbiltzeko izango da, mendekotasuna dutenentzako tarifak kenduz eta Aretxabaletan bizi direnen eta ez direnen arteko desberdintasuna ezabatuz.

ZABORRA ETA URA

Zaborren etxeke abonuek bilketak igoera handia izan zuten iaz Mankomunitateak proposatuta. Aurtengo ordenantza bateratuaren proposamena egin du, eta %4,27 igoko dira. Gainera, baserritarrei kobratzen hasiko dira bilketa punturaino duten distantziaren arabera: 150 metrotik beherakoei herrian bezala kobratuko diote, eta 150 metrotik gorakoei zergaren %40 kobratuko diote.

Urari dagokionean, %4,92ko igoera izango du gutxieneko kontsumoak eta %4,92 gehi KPI gainontzekoek.

Karlos



Harategia

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
ARETXABALETA

Jon Díaz



Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABALETA

ELKARTASUNA > SAHARAREN ALDE

Sahararako dirulaguntzak biltzen dabilta ikasle batzuk

Astean Aretxabaletako udalbatzari aurkeztu diote egitasmoa, eta laguntza agindu die

Abenduan joango dira Saharara Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako ikasle eta ikasle ohiak



IKASLEAK Lide Mar, Jone Usobiaga, Gadea Errasti eta Garazi Azkoitia.

M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenean aurkeztu zien Arizmendi ikastolako ikasle eta arduradunek udalbatzarrari Sahararen aldeko proiektua. Laguntza materiala bidaltzeko dirua biltzen dabilta, eta abenduan eurek eramateko asmoa daukate. Aretxabaletako Udalak 600 euroko laguntza agindu die.

MATERIALA EROSTEKO DIRUA

Arizmendiko eta Oñatiko Txantxiku ikastoletako batxilergoko ikasle eta ikasle ohien artean egin dute proiektua. "Aita sahararra zuen Garazi etorri zitzaizgun Sahararen gainean berba egitera eta Sopelako ikasleek bizitako esperientzia azaldu zigun. Halaxe animatu ginen, eta urtebete atzeratu bada ere proiektua aurrera eroango dugu", azaldu

digu Garazi Azkoitia ikasle aretxabaletarrak.

Taldeak egin dituzte antolakuntza lanak erraztu eta dirua biltzeko. Eta ekintzaz ekintza ibili dira: txosnak jarri, pastelak eta zozketetarako txartelak saldu, dirulaguntzak eskatu erakundeetara eta orain kamisetak saltzen dabilta. Bildutako diruarekin materiala erosiko dute: eskolarako eta kirola egiteko materialak eta medikamentuak. Azken horiek Farmamundiren bitartez bideratuko dituzte. "102 mila euroko aurrekontua egin genuen eta erdia geuk egindako ekintzekin batu gura genuen, baina oraindik ez gara iritsi", diosku Garazik. "Horregatik herritarren batek dirua eman

gura badu hona kontua: 30350002140020044598".

ABENDUAREN 2TIK 9RA

Abenduaren 2tik 9ra bitartean izango dira Sahararen bi ikastoletako ordezkariak. 140 lagun joango dira: 78 Arizmendiko ikasleak, 47 Txantxikukoak eta 15 arduradun, tartean mediku bat eta Frente Polisarioko kide bat. "Bidaia antolatzeko asteberu honetan bertan Arabako Barrian elkartu behar gara 100 bat lagun. Hala, Saharara goazenok elkar ezagutuko dugu, eta Frente Polisarioko kideak etorriko zaizkigu zer eraman azaldu eta argibideak emateko", dio Lide Mar aretxabaletarrak. "Gainera, azken eguno-

tan berri kezagarriak datoz Sahararik, gerra kontuak eta antzekoak, eta oso urduri gabilta", gaineratu du Lidek.

Hegazkin osoa eurentzat izango da, eta eurekin batera eramango dute erositako material guztia. "Tinduffera joango gara. Lau kanpamendu daude bertan, baina gu bitan banatuko gaituzte. Eta haima bakoitzean bost ikasle biziko gara zortzi egunetan", esan digute ikasleek.

Hilabete eta erdi eskas gertzen zaie, eta azken kontuak lotu guran dabilta. Orain, azaro hasieran, Sahararen aldeko astea egingo dute. "Dirua biltzea baino gehiago gure herrietako jendea sentsibilizatzea izango du helburu", diote.

LEHIAKETA

Patxaran lehiaketa egingo dute hilaren 29an

Gastronomia eta Folklore Jaialdiko egitarauan dago, eta 12. ekitaldia da

M.A. > ARETXABALETA

Azken urteotan legez Gastronomia eta Folklore Jaialdi barruan Patxaran Lehiaketa antolatu du Udalak. Hurrengo domekan izango da, urriak 29. Herriko zein inguruko patxaran egileek egunean bertan aurkeztu beharko dituzte patxaranez betetako botilak Herriko Plazan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Bakoitzak bi botila baino gehiago ezingo ditu aurkeztu, eta botila bera ere beira gardena izatea eta orijinaltasuna kontuan hartuko dute epaimahaiko kideek. Hiru sari banatuko dituzte domeka arratsaldean, dirua eta garaikurra hirurentzat, eta patxaran botila. Irabazleak epaimahaiaren eskuetan geratuko dira. Gainontzekoak herri-tarrek probatzeko utziko dituzte Herriko Plazan.

Iaz 26 bat lagun aurkeztu ziren lehiaketara, eta Jesus Mari Herrasti aretxabaletarraren patxarana aukeratu zuten irabazle baita aurreko urtean ere.



MARIA JESUS
ARGAZKILARIA

ARGAZKILARIAK: MJ.Sanchez, Ion Arana



SORTZAILEAK; A.Arkeru, Iker Iturbe

AZAROAN

HERRIKO PLAZA
10ean

postalak
egutegiak
errifak
txartelak
loteria



EGUZKIGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



1979urtetik zure zerbitzura

KIROLAK > JARDUERA ESKAINTZA ZABALA

Taldeak osatzen dabilta kirol etxeko jarduerak lehenbailehen hasteko

Egubakoitz iluntzean lekua daukate batuca jardueran, eta konbat egiteko taldea sortuko dute eguaztenetan; stretch-pilateserako bi talde sortu dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Irailean jarri zituzten abian kirol jarduerak Udaleko kirol zerbitzuek Goiena Sport enpresaren bitartez. Eskaera handia izan dute jardura batzuek -batez ere arratsaldetakoek- eta talde berriak osatu guran dabilta.

BATUCA ETA KONBAT

Pili Muñagorri irakasleak gidatzen du stretch-pilates ikastaroa. Hasieran eskainitakoaz gain beste bi talde sortu dituzte oraintsu: martitzenetan, 09:30etik 10:30era eta eguenetan, 15:30etik 16:30era. "Azken hau merkatariekin gogoratuta antolatu dugu", dio Goiena Sporteko zuzendari den Bixen Calzonek.

Musika, dantza eta ariketa fisikoa batzen dituen batuca jarduerak ere arrakasta handia izan du eta beste bi talde sortu dituz-



TALDE BERRIAK Jardueretan izena eman ahala sortuko dituzte taldeak. M.A.

te. Egubakoitzetan, 19:45etik 20:45era, dagoen taldean oraindik lekua dago.

Konbat jardura eguenetan jarri zuten eta segituan bete zen taldea. Orain eguaztenetan ere abian jarri gura dute, 20:15ean, eta taldea osatu zain daude. Eta azaroan, helduentzat igeriketa ikastaroak hasiko dira.

Hirugarren adinekoentzat dantza ikastaroa izan da arrakasta gutxien izan duen jardura. Taldea sortu zain daude, eta ordutegia moldatzeko arazorik ez litzateke egongo.

Edozein jardueratan izena emateko deitu kirol etxera, eta ordutegiaren gaineko argibide guztiak ematen dituzte.

EUSKARA TEKNIKARIA

Lau lagunek aurrera, lanpostua eskuratzeko

Hamazazpi lagunek egin zuten euskara froga eta ez du inork gairitu

M.A. > ARETXABALETA

Urriaren 11n egin zuten lehen froga Udaleko euskara teknikari postura aurkeztutakoek. Laugarren hizkuntza eskakizunari dagokion azterketa zen, eta 23 lagunetik 19k zuten azterketara joateko deia. Gainerako laurak ez zeukaten egin beharrik egiaztatuta zutelako laugarren hizkuntza eskakizuna. Aipatutako 19tik 17 aurkeztu ziren Gasteizko seminariora azterketa egitera. Egin bai, baina inork ez du gairitu. Hala adierazi zioten azterketok zuzendu zituzten Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko kideek, HAEEkoek Udal idazkariari eguazten honetan bertan. Azterketa egin zutenek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Hurrengoa, ahozko azterketa, gaur egin behar zuten, baina idatzizkoa inork ez gairidituzan bertan behera geratu da.

HIRU FROGA ETA MEMORIA

Emaitza horien aurrean lau lagunek bakarrik egin dute aurrera euskara teknikaria postua lortzeko. Lau horiek hiru froga egin beharko dituzte, bat administrazio kontuen gainekoa, eta beste biak euskarari dagokienak. Oraindik datak zehaztu barik dituzte. Horretarako urriaren 26an, eguena, elkartuko da epaimahaia. Gainera, memoria bat aurkeztu behar izan zuten lanpostura aurkeztutako guztiak: *Aretxabaletan hizkuntza normalkuntzarako oinarrizko urratsak*. Azterketa guztiak gairidituz gero epaimahaiaren aurrean defendatu beharko dute aurkeztutako memoria.

bere ustez



Anjel Bergaretxe

SOS: preso politikoaren kolektiboa

Aspaldian ez dut izan orri hauetan agertze-ko aukerarik (globalizazioaren ondorioak), eta horri gehituz gero Euskal Herrian azken hilabeteotan zeri buruz hitz egin ugari dagoela, ez da batere erraza izan zein hariri tiratu erabakitzea.

Baina zerbaiti heldu behar, eta niretzat behintzat une honetan urgeteena dena hartuko dut: Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren egoera, hain zuzen. Eta kolektiboarena diot, guztiona dela-

"Presoen eskubideak berdinak dira su eten egoeran bizi edo egunero ekintzak egon"

ko larria, nahiz eta batzuenaren benetan kritikoa izan.

Asko dira azken egunotan edo asteotan, presoen eskubideen alde hitz egin dutenak, eguno egorarekin justifikatuz. Ba ez nago ados. Presoen eskubideak berdinak dira su eten egoeran bizi edo egunero ekintzak egon. Berez dagokien zerbait da, eta ez gara PSOE-ren borondate oneko keinurik eskatzen ari. Exijitzen gabiltzana eskubideen eta legeen errespetua besterik ez da. Ez dezatela legea euren komenientzien arabera erabili. Alde batera utz dezatela behingoz mendeku eta probokazioan oinarritutako politika hau.

Eta hortik aurrera, datozela keinuak.



Zenbaki Aholkulariak



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68

www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es



Loteria primitiboak
eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15

ARETXABALETA

**Mobiliario
ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Selaikua baserria
Apotzaga auzoa
ESKORIATZA

605 71 66 92 / 943 71 52 51



M.A.

Hasi dituzte Otalora kaleko lanak

Larrin plazan hasi eta Santutxu arte dagoen kalea goitik behera berritzea onartu zuen Udalak. Hala, saneamendu lanak egiteaz gain itxura berria emango diote. Amaral enpresak egingo ditu ia bi milioi eta erdiko aurrekontua duten lanak, eta esandakoa betez gero zortzi hilabetean bukatuko dituzte. Kalea luzea da, eta bost ataletan banatuko dute konpontzeko. Autoen zirkulazioak, gainera, aldatetarako izango ditu, baina guztiaren berri zehatza emango du Udalak.

> GAZTEAK

Eskulanak eta kirolak egingo dituzte Atxagazte gaztelekuan

Hainbat ekitaldi eta guztiz ezberdinak antolatu dituzte astebururako 12 eta 16 urte artekoentzat gaztelekuan. Eskulanak gustuko dituztenek izango dute zeregina gaur, egubakoitz, eta bihar. Izan ere, kolax lehiaketa egingo dute gaur arratsaldean; aldizkari zatiekin muralak egingo dituzte lehenengo eta gaztelekua apaindu gero. Bihar, zapatua, eskumuturreko, lepoko eta belarritakoko egiten saiatuko dira.

Domekan, oster, kirolari egingo diote tartetxo. Hala, futbol eta saskibaloitxapelketak jokatu dituzte gaztelekuan hurreratutakoek.

> EUSKARA

Teresa Lopez de Munain aktorearen bakarrizketa saioa

Hurrengo egubakoitzean, urriak 27, antzerki bakarrizketa eskainiko du Teresa Lopez de Munain aktoreak: *Ugaztun eme baten irrikak*. Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako ekitaldia da, eta udaletxe zaharrean izango da emanaldia, 22:00etan.

Bestalde, atzo, urriak 19, Beinke-Loramendi dantza ikastaroa hasi zuten. Beinke elkarrearen 20. urteurrena ospatzeko egingo dute dantzan abenduaren 15ean, eta dantza ikasi gura duenak oraindik badauka aukerarik. Eguenetan elkarrearen dira Basabeazpi ikastolan, 19:00etatik 20:00etara.

ZINEMA > 'BIDAIA BATEN AMETSA' FILM LABURRA

Film hasiberriaren saria jaso dute Aratzekoek Italiako Gorgonzolan

Egindako lanaren ordaina izan da Italiara egin duten bidaia, eta Gorgonzolako zinema jaialdian eman dieten ekiloreak borobildu egin du saria

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Italiara bidaia zen Aratzeko kideentzat filma egiten pasatutako ordu gogorren ordaina. Baina hori gutxi ez, eta sariarekin itzuli ziren domekan Gorgonzolako zinema jaialditik: film hasiberri onenentzat ekilorea.

BOST EGUN BIZI-BIZIAK

Bost egun zirrargarriak izan dira Aratzeko ia 50 lagunentzat. Ondo baino hobeto aprobetxatu gura izan dituzte, gainera. Monakon Grimalditarren jauregia, kasinoa eta luxuzko hotelak ikusi zituzten; Venezian San Markos plaza, Rialto zubia, eta gondolak; Veronan Julietaren etxea eta Milanen eskala eta katedrala beste batzuen artean. "Gorgonzolan antolatzaile eta Udaleko ordezkariak ongi etorria egin ziguten, eta zapatuan afaltzera gonbidatu gintuzten. 60 lagun



ARATZ TALDEA Ez dute berehalakoan ahaztuko Italia aldean bitzitakoa. JOKIN ANTIXIA

elkartu ginen eta giro bikaina sortu zen, kantuan eta guzti egin genuen", azaldu digu Jokin Antxia arduradunak.

Zinemaldiko hirugarren eta laugarren jardunaldiak ikusi zituzten Aratzekoek, eta egunero 500 lagun inguru elkartu ziren antzokian. Sari banaketa Emma-

nuela Folliero Italiako telebista-ko aurpegi ezagunak aurkeztu zuen zapatuan, eta *miglior film esorciente*-film hasiberri onenarenetarako zela esan zuen. "Hango salto eta poza. Berba batzuk esan, agurra dantzatu eta ekilorea jaso genuen", esan digu Jokinek.

Mitarategarai

Baserri turismoa eta taberna

**Areantza auzoa
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 17 51**



**ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK**

**ARTZUBI ETXETRESNA
ELEKTRIKOAK**

**Iparragirre kalea 4
ARETXABALETA
Tel.: 943 53 31 86**



**((112))
SOS DEIAK**

AISIALDIA > MIKOLOGIA JARDUNALDIAK

Perretxiko bilketa, erakusketa eta dastatzea egingo dituzte asteburuan

Perretxikoen gainean herritarrek gehiago ezagutarazteko hainbat bide jarriko dituzte asteburuan Luis Ezeiza gurasoen elkarteko lagunek

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Luis Ezeiza gurasoen elkarteak mikologia jardunaldiak antolatu ditu astean. Elkarteak hainbat urte darama jardunaldi horiek egiten eta oso harrera ona dute. Ekitaldiak atzo, eguena, hasi ziren. Amurrioko Cristobal Burgos perretxiko adituak gai horren gaineko diaporama egin zuen.

Luis Ezeiza gurasoen elkarteko ordezkariak jakinarazi digute jardunaldien helburua dela "herritarrei aisialdirako aukerak ematea, ingurumena ezagutzeko bidea ematea eta gurasoen



PERRETIXIKOAK EZAGUTU Bilaketari, klasifikatzeari eta dastatzeari esker perretxikoak hobeto ezagutu daitezke. **LUIS EZEIZA**

eta seme-alaben arteko harremana indartzea".

Modu berean, gurasoek azpimarratu zuten ekimen horiek

guztiak herriko lagun guztiei zuzenduta daudela.

Urtero moduan, bihar, zapatua, perretxikoak batzera joko

dute Hiruerreketara. Han Deba ibaia jaiotzen den lekuan, Leintz Gatzagan, landaretza oso anitza dago eta horren ondorioz perre-

txiko mota asko hartzen dituzte. Joan den urtean, esaterako, ehundik gora espezie batu zituzten.

AUTOETAN HIRUERREKETARA
Hitzordua 09:00etan egin dute herriko plazan, eta handik, ume eta helduak Hiruerreketara abiatuko dira autoetan.

Bazkal ordurako hirigunera bueltatuko dira eta jasotako guztia Luis Ezeiza eskolako jangelara eramango dute. Horren ostean, interesa duten guztiak 16:30ean batuko dira leku berean, jasotakoak klasifikatzeko.

DASTATZE BEREZIA
Jardunaldiak ondo bukatzeko, domekan, bezperan jasotako perretxikoekin erakusketa egingo dute herriko plazan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Horrez gain, egurrezko perretxikoak egiten dituen artisaubat eramango dute. Horrekin guztiarekin batera, Laudioko mikologia elkarteak perretxikoekin egindako hainbat jaki prestatuko ditu plazan.

KIROLA > XVII. MENDI BIZIKLETA IRTEERA

40 kilometroko ibilaldia egingo dute domekan bizikleta gainean

Ibarreko mendi bizikleta zaletuek hitzordu garrantzitsua dute domekan. 09:30ean irtengo dira herriko plazatik

I.B. > ESKORIATZA
Aurten, hamazazpigarren aldiz, Udaleko Kultura Sailak mendi bizikleta irteera antolatu du.

Domekan, hilaren 22an, egingo dute eta dagoeneko izenematea zabalik dago. Mendi bizikleta irteera horrek oso harrera ona du, eta urtero hainbat lagunek esku hartzen dute.


40 kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, hirigunetik Apotzagara, Kurutzetara, Jarindora igo, Txarrantxara jaitsi, Marisatik Urraxera igo, eta Karoi, Eraña eta Letetik barrena hiriguneraino berriro helduko dira. Antolatzaileen esanetan, komeni da aurre-

tik bizikleta gainean eta mendian ibiltzeko ohitura izatea, ibilbidea ez da eta makala.

FEDERATUAK ETA BESTELAKOAK
Federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte (txartela erakutsita). Gainontzekoek, berriz, 13 euro. Aurretik izena eman gura dutenek Euskadiko Kutxan dirua sartu beharko dute, eta kultura@eskoriatza.net helbidera mezua bidali. Bestela, domekan 08:30ean herriko plazan izena eman ahal izango dute.



IBILBIDE EZBERDINA Goitik behera aldatuko dute domekako ibilbidea. **GOIENKARIA**



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

KULTURA > IKUSKIZUN UGARI ASTEAN

Kontzertua, magia ikuskizuna eta argazki erakusketa aukeran

Umeendako eta helduendako musika eta magia ikuskizunak antolatu dituzte datozen egunetarako

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Datozen egunetan hainbat kultura ekitaldi izango dira herrian. Besteak beste, musika kontzertua, argazki erakusketa eta magia ikuskizuna izango dira aukeran. Gaur, egubakoitza, Bergarako Aitor Pedrejon bakarlariak kon-

tzertu akustikoa egingo du Garate musikariaren laguntzarekin. Aitzorrotz elkarteak eta Inkernu tabernak antolatu dute. Inkernu egingo dute, 23:00etan. Pop eta rock doinuak landuko dituzte.

ELBRUCE MENDIA ARGAZKITAN
Bestalde, Kaukasooan dagoen Elbruce mendiaren gaineko argazki erakusketa ikusgai dago Inkernun. Karmelo Oñatek egin ditu argazkiak, eta hilaren bukaera arte egongo dira tabernan ikusgai. Eguaztenean, hilaren 25ean, *Diario de un skin* filma emango dute, 22:00etan.

ERIZ MAGOA BIBLIOTEKAN
Bestalde, egunean umeendako moduko ikuskizun aproposa egingo dute Bibliotekan. Eriz magoak 4 eta 12 urte bitarteko ume eta gaztetxoendako magia ikuskizuna egingo du 18:00etan. Udaleko Kultura Sailak antolatu du ikuskizuna, Kutzaren laguntzarekin.

Erizek ordubete inguruko ikuskizuna egingo du euskaraz, eta umorea eta magia uztartuko ditu bertan. Hain zuzen ere, gezurretazko magoa denaren itxura emango du, baina azkenean erakutsiko die benetako magia egiten ere badakiela. Ikuskizunean ikusleek esku-hartze handia izango dutela jakinarazi digu Erizek.

Eriz 16 urterekin hasi zen magia ikasten, baina orain dela 5 urte arte ez zen hasi modu profesionalean zeregin horretan. Ordutik buru-belarri dabil.



MAGIA IKUSKIZUNA Eguenean Eriz magoa izango da liburutegian.

ERIZ MAGOA



AMAI A ZABALA

Aranburuzabalan etxea bota dute

Herenegun, eguaztena, Aranburuzabala kaleko 14. zenbakian zegoen etxea bota zuten. Santa Marina ingurune berria puntu horretan hasi eta Santa Ana alboko garbitokiraino helduko da. Aranburuzabalako puntu horretan lurjabeendako etxe batzuk eta Udalak egindako etxebizitza tasatuak egingo dituzte.

> ONDAREA

Azterketa arkeologikak Santa Marina inguruko esparruan

Aurrekoan iragarri genizuen Arantzadi elkartekoen Santa Marina ingurunean dagoen baserri-hiltegiaren inguruan azterketa arkeologikak egingo zituztela. Hala izango da, baina oraindik Aldundiak ez du agindua eman.

Bestalde, atzo, eguena, eta gaur, Arantzadiko adituek baserri-hiltegiaren gaineko txosten bat egiteko asmoa zuten.

> AISIALDIA

Amuskak abian ditu lau bat ikastaro kultura etxean

Amuska emakumezkoen elkar-teak hainbat ikastaro abiarazi ditu azken egunotan. Astelehenean, ehoziak ikasten dihardute; martitzenetan, olioak margotzen ibiltzen dira; eguaztentean, bestelako eskulanak egiten dituzte; egunetan, larrua eta bestelakoak lantzen dituzte; eta egubakoitzetan atsendena egiten dute. Ikastaro guztiak kultura etxean dira.

Kimua

Loradenda

- ◆ Lore natural eta artifizialez egindako konposizioak
- ◆ Etxera eramateko zerbitzua
- ◆ Teleordainketa
- ◆ Ezkontzak (elizen dekorazioa, ezkontzetarako lore sortak,...)
- ◆ Hilerrietarako lore koroak

**DOMU SANTU EGUNERAKO
ENKARGUAK JASOTZEN DITUGU.**

Araba ibilbidea 24 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 49 40



Jon Gurutz Biteri eta Mikel Urtzelai > Klakson taldeko musikariak

"Taldea bezala helmuga bat izan daiteke Danbaka, baina ez dugu lehia moduan hartu nahi"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, izango da Elgetako Espaloia aretoan Danbaka musika lehiaketaren aurtengo estreinako kontzertua. Klakson taldeak jardungo du eta bi taldekide antzuolarrak dira. Jon Gurutz Biteri eta Mikel Urtzelai.

Nola sortu zenuten taldea?

Jon Gurutz: Orain dela bi urte Legazpin jotzen zuten gaur egun taldeko baxu jolea eta gitarrak jolea direnek, bateria jole batekin. Ni eta orduko abeslaria, Xabi Vargas antzuolarra, sartu ginen taldean. Vargasek taldea utzi eta Mikel entsegu batera etorri eta ordezkatu egin zuen Xabi.

Zein musika mota egiten duzue?

Mikel: Ez zaigu gustatzen estiloa definitzea.

J.G.: Taldean estilo ezberdinak ditugu gustuko, beraz, zaila da mugatzea. Xabirekin rock&roll bertsoak egiten genituen.

M.: Gure abestiak sortzerakoan rocka da oinarri baina askotarikoak dira kantauak.

Zeinek egiten ditu abestiak?

J.G.: Musika denon artean egiten dugu; batzuek garrantzi gehiago ematen diogu musikari eta beste batzuek hitzei. Hitzak, batez ere, Pinillosek, baxu joleak idazten ditu. Euskaraz abesten dugu gehienbat; abesti bat badugu ingelesez eta beste bat euskara eta gaztelania nahastuz.

Danbakan aurkeztea nola bururatu zitzaizuen?

M.: Gure abestiak sortzen hasi ginenean maketa bat gertatzeko ideia izan genuen. Parean tokatu ziren maketa prestatzea eta Danbakara aurkezteko aukera. Beraz, probatzea erabaki genuen eta aukeratu egin gaituzte.

J.G.: Talde bezala helmuga bat izan daiteke guretzat. Danbaka aitzakiazat hartuta entseguak egiteko, taldea elkartzeko, arrazoi bat gehiago dugu.



Jon Gurutzek pianoa eta organoa jotzen ditu; Mikelek abestu egiten du.

I.A.

"Gure abestiak sortzeko rocka da oinarri baina askotarikoak dira kantauak"

"Gaztetxea bota zutenetik herrian kultura musikala galtzen joan da"

Zer espero duzue lehiaketatik?

M.: Espaloian jotzeko aukera izan genezakeelako ere aurkeztu ginen; hori zen gure nahietako bat.

J.G.: Ez dugu nahi lehia moduan hartzerik. Ondo jo eta datorrena datorrela.

M.: Herritarren aurrean ere itxura eman behar da, ze koadrilako lagunak joango dira. Gainera Antzuolan aspaldi ez dago musika talderik, eta bat agertuta jendea animatuko dela uste dugu.

Beste taldeak nolakoak diren webgunean entzun dugu eta oso estilo ezberdinak elkartuko direnez kontzertu berezia izango da.

Nolako musika giroa dago Antzuolan?

J.G.: Lehen baziren hainbat talde eta musikari baina urtetan ez da talderik irten herritik. Gaztetxean kontzertu asko egiten zen eta bota zutenetik kultura musikal hori galtzen joan da. Gazteagoak ginela taldeak ikusi eta gu ere zerbait egitera animatzen ginen; oraingo gazteek ez dute erreferentziarik.

Aurrez egin duzue emanaldirik?

M.: Lau kontzertu izan dira: Gasteizen, Urretxun, Antzuolan eta Santurtzin. Antzuolan jaietako egunean jo genuen eta berandutu egin zen arren esperientzia polita izan zen; hala ere, herrian jotzeagatik ni neu behintzat urduri egon nintzen.



EKINTZAK Eskulanak, irteerak, ikastaroak... egingo dituzte gaztetxoek. GOIENKARIA

AISIALDIA > GAZTE TXOKOA

Gaztetxoendako lokala asteburuetan Errekalden

12 eta 15 urte bitarteko neska-mutilek aisialdi ekintzak egiten dituzte hiru begiralerekin

I.A. > ANTZUOLA

Abian da berriz ere gazte txokoa. 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoak elkartzen dira Errekalden lokalean eta aisialdiko ekintzak egiten dituzte. Iaz 42 gaztetxok eman zuten izena eta aurten jadanik 20-30 neska-mutilek egin dute lokalera buelta. Begiraleak hiru izango dira: Jokin, Goretti eta Miren.

Asteburuetan egongo da zabalik gazte txokoa. Zapatuetan 16:00etatik 20:00etara eta

21:00etatik 23:00etara; eta domeketan 16:00etatik 21:00etara.

Urtean barrena askotariko ekintzak egingo dituzte: eskulanak, irteerak, ikastaroak...

GAZTETXOENI DEIA

Begiraleek gaztetxoak animatu nahi dituzte lokalera joateko. "Gaztetxoena, 12 urtekoak, etor daitezen nahi dugu batez ere. Lokala eta ekintzak ezagutzera etortzeko gonbitea egin nahi diegu", dio Gorettik.

> ADINEKOAK

Bergarako Mizpirualde zaharren egoitzara bisita egingo dute herritarrek zapatuan

Zapatuan urteroko bisita egingo dute herritarrek Mizpirualdera. Abesbatzaren saioa, merienda eta musika izango dira. Bestalde, Mizpirualdera astero joaten da emakume talde bat baina gero eta gutxiago direnez dei egin diete herritarrei. Prest daudenek hilaren 26an 16:30ean erretiratuen lokalean egingo den bilerara joan behar dute.

> IPUINAK

Egoitz Lasa ipuin kontalariaren saioa izango da zapatu arratsaldean liburutegian

Bihar, zapatua, Egoitz Lasa ipuin kontalariak saioa eskainiko du 18:00etan liburutegian. 4 eta 10 urte bitarteko umeendako ipuin proposak kontatuko ditu. 1,5 euro ordaindu beharko da sarrera. Egoitz Lasa aurrez ere egonda dago Antzuolan eta, besteak beste, *Wazemank* telebista saioan jarduteagatik da ezaguna.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



Jose
Gomez
Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

UDALA > ORDENANTZA FISKALAK

Zergak eta tasak 2007an %3 igotzeko proposamena egingo dute

Iaz ordenantza fiskalak eguneratzean igoera %3,7koa izan zen; beraz, aurten, gutxiago

Mankomunitatea arduratzen da zabor bilketaz eta igoera handiena tasa horrek izango du

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Eguaztenean, hilaren 18an, Hazienda, Pertsonal eta Zerbitzu batzordeko bilera izan zen udal-letxean. Han, besteak beste datorren urterako ordenantza fiskalen aldaketak izan zituzten eztabaidagai. 2007ko zergak eta tasak gaurkotzean, batez beste %3ko igoera egitea proposatu zuten. Oraingoz proposamena baino ez da. Izan ere, udalbatzak onartu beharko ditu aldaketak.

IAZ BAINO GUTXIAGO

Urtero egiten dute gora udal-zergek eta aurten ere horrela egitea da proposamena. Tasak eta Zergak gaurkotzean 2005eko irailetik aurtengo irailera bitartean KPIk izan duen igoera hartuko dute kontuan.

Beraz, tasak %2,5 igoko lirake Elgetaren kasuan. Iaz igoera %3,7koa izan zela ikusita, aurtengo igoera txikiagoa dela esan genezake.

Udaleko zerbitzu guztietan ez da igoera bera aplikatuko. Batzuek igoera handiagoa izango dute, beste batzuek, aldiz, txikiagoa, eta egongo dira inolako aldaketarik izango ez duten zerga eta tasa gutxi batzuk ere.

ZABOR BILKETA TASA

Igoerarik handiena izango duen zerga zabor bilketari dagokiona da: %4,27, hain zuzen ere. Izan ere, Debagoieneko Mankomunitatearekin finkatuta du Udalak tasa hau eta igoera zenbatekoa den ere Mankomunitateak zehazten du.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga %3 igoko da. Foru Aldundiak %2ko igoera egiten du kastroko baloreetan eta KPIaren igoerarekin berdintzeko Udalak %1 gehitzea proposatu du.

Ibilgailuen zergaren igoera %3 igoko da. Lur sailen gaineko zergak, berriz, %2,9 eta %3,6 artean igoko dira, zenbat urte dituzten arabera. Eta aktibitate ekonomikoaren zergen igoera ere KPIaren parekoa izatea proposatu dute.

Hilerriko tasak daudenetan mantenduko dituzte, iaz bi urterako adostu zituzten-eta.

KIROLDEGIA

Zergen igoerak edukiko du eraginik kiroldegiko tarifetan ere. Oraingoz, urtea amaitu bitarteko tarifak zehaztuta daude. Baina berrikuntzak izan direnez, baliteke zergen igoera ere handiagoa izatea. Hala ere, Kiroleta-ko batzordeak datorren martitzenean egingo du bilera eta bertan aztertuko dute gaia.

bere ustez



Alberto Telleria

Ura eta ardua, zein hobia?

Ura osasunerako edaririk onena ei da; hala ta be, askori ardua gehixau gustau. Ardauetan erreserbak, kriantzak, urtekuak eta Bergaran egingdakuak dira ezagun. Urak, berriz, metal-urak, uratsak, mineralak, gasdunak...

Ardauan negoziua aspaldi dago zabaldua munduan, zenbait kasutan diru ugari emoten ei dau. Errioxara joan eta ikusi besterik ez dago Calatravak, Gerhyk eta abarrek diseñau barri dittuen bodegak. Ura-aren negoziuak, ur-mineralarenak gehixenbat, majo egin dau

INGURUMENA > MENDIEN GARBIKETA

Egoarbitza inguruko Udal lurrak auzo lanean garbituko dituzte zapatuan herritarrek

Urriaren 29an Maya ingurumen taldeak irteera egingo du; zaborrak jasoko dituzte Asentzio eta Egoarbitzan



ZAKARRA Iaz Mayakoek jasotako zaborra plazan ipini zuten ikusteko. GOIENKARIA

I.A. > ELGETA

Zapaturako, urriaren 21erako, mendiak auzolanean garbitzeko hitzordua ipini du Udaleko Base-rritarren Batzordeak.

Egoarbitza inguruan Udalak berak dituen lur sail batzuk garbitzea da helburua. Batez ere ton-torrerako bidea garbituko dute, baita txabolaren inguruko sailak ere. Sail horietan Zuhaitz Egunean umeek arbolak landatu izan dituzte eta sail horiek garbi mantentzea da asmoa. Horretarako sasiak eta belar txarrak kenduko dituzte besteak beste.

Egoarbitza inguruan Udalak dituen beste lur sail batzuk dagoeneko garbitu dituzte. Foru Aldundiko diru laguntza bati esker adituek egin dituzte lan horiek.

Zapatuko garbiketa lanetarako ezinbestekoa da herritarren laguntza. Beraz, lanerako gertu daudenek plazan agertu beharko dute 08:30ean, handik Egoarbitzara abiatzeko.

Bestalde, Udalak boluntarioen eskura ipiniko ditu dauzkan tresnak, baina etxean mendia garbitzeko aproposak diren tresnak dituenak ere eraman ditzake.

Era berean, garbiketan parte hartzen dutenendako hamaiketakoa izango da Udalaren eskutik.

MAYAREKIN HURRENGO DOMEKAN

Bestalde, Maya ingurumen taldeak ere antolatu du irteera mendi inguruetakoz zaborrak batzeko. Urriaren 29an, domekan, izango da hitzordua, 09:00etan, plazan. Asentzio eta Egoarbitza inguruak garbituko dituzte ume eta helduek elkarlanean.

Iaz ere egin zuten zabor bilketa udazken hasieran eta besteak beste jaso nahi dituzte udan pilatutako zakarrak.

KULTURA

Umeendako txotxongilo saioa izango da domekan

I. A. > ELGETA

Domekan, hilaren 22an, *Erreka Mari* txotxongilo emanaldia egongo da Espaloian Udalak antolatuta. Saioa 17:30ean hasiko da eta sarrera doan izango da.

LAMIA BATEN ISTORIOA

Enkarni Genuak Euskal Herriko azken lamiaren istorioa kontatuko du ikuskizunean. Umorea eta samurtasuna erabiliko ditu horretarako. Taldeak gehien antzeztu duen istorioa da Erreka Marirena. Izan ere, maitasunaz, ingurumenaren zaintzaz eta errespetuaz hitz egiten du haurrek oso ondo ulertzeko moduan.

"Ardaun negoziua aspaldi dago zabaldua munduan, zenbait kasutan diru ugari emoten ei dau"

gora: azkenengo 20 urtian milla millioika litro saltzen ei da. 2000. urtian, 84.000 millioi dolarreko salmentak eduki ditu.

Arda askok bedeinkatuta ei daoz. Errioxan, ez dabe sekula ukatu hori; ardaurik bada- goen preguntau eta Ebrua ura dakarren bittartian, baietz erantzuten dabe trankil asko. Oin, sekula ez neuke sinistuko ura bedeinkatzen dabenik.

Holan ei da. Ura enboteilla- tzen daben enpresa haundixak kasu askotan ura saretik har- tu, mineralak bota eta saldu egi- tten dabe ur hori. Coca-Colak 2004ko martixan millioi erdi botilla erretirau zittuen mer- katutik hori dala-eta.

Bakotzak pentsau deixela zer dan osasuntsuena, Berga- ran egingdako ardua edo boti- lletako ur-minerala.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagatza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa
Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949



LUNTXA Bertso eskolaren aurkezpenean gazteek parte hartu zuten; luntxa eta guzti izan zuten.

ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

KULTURA > BERTSOLARITZA

Bertsozaletasuna hazten doala ikusi da bertso eskolaren aurkezpenean

2006-07 ikasturtean bertso eskolan jardungo duen ikasle taldea aurkeztu dute; iaz baino talde bat gehiago ibiliko da; gainera, nesken taldea da

UBANE MADERA > ARAMAIO

Aramaioko Bertso Eskolak osasuntsu dabilela erakutsi zuen aurtengo ikasturtearen aurkezpen ekitaldian. Iaz baino ikasle gehiagok eman dute izena, eta gainera, lortu dute neskaz osatutako talde bat sortzea. Pozik daude horrekin eskolaren bultzatzaileak: "Ona da hori, batez ere, eskolan alde horretatik genbiltzalako herren", esan digu Manex Agirrek, bertso eskolako irakasleetako batek.

Aurkezpen ekitaldian zehaztu zuten aurtengo ikasturtearen ordutegia (astero lau ordu) eta taldeak antolatu zituzten ikasleekin (lau talde).

Taldeen gidaritzari dagokionez, berriz, Manex Agirrekin batera jardungo dute beste bi aramaioarrek: Gillen Agirrek eta Lierni Altunak.

SARIKETAK

Bertso eskolak oraingo astean estreinatu du ikasturtea, eta jar-

dunean poliki hasiko den arren, dagoeneko iragarri dute eskolako gaztetxoek Arabako Eskolarteko Bertsolari Lehiaketan jardungo dutela, aurreko urteetan moduan. Hain justu ere, aurreko urteetan oso emaitza positiboak lortu izan dituzte: orain bi urte Xabi Igoa eta Mikel Serrato aramaiorrek gailendu ziren gaztetxo mailan eta iaz, berriz, Xabi Igoak errepikatu egin zuen garaipena.

Horrez gainera, aurreratu dute, baita ere, Gabonetara begira badabiltzala bertso eskolak urtero antolatzen duen bertso saioa antolatzeko asmoarekin. Udalak dagoeneko baiezkota eman dietela aditzera eman digute.

> KULTURA

Lagun Artean dantza taldearen urteurrenerako batzarra egingo dute

Lagun Artean dantza taldeak 50 urte bete dituela-eta, ospakizun ekitaldia antolatu nahi dute, udaberrian. Horren harira, 50 urteotan dantza taldeko kide izandakoei batzar baterako dei egin die. Datorren azaroaren 7rako egin dute hitzordua, udaletxean. Era berean, jakinarazi dute dantza taldeko argazki zaharrak batzen segituko dutela. Daukanak udaletxera eraman ditzala.

> OBRAK

Marisekako iturria konponduko dute, Diputazioak lagunduta

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, 143.311 euroko inbertsioa egingo dute Arabako zenbait atsedene-gune egokitzeko. Horien artean, iragarri dute Marisekako iturria konponduko dutela. Eta iragarri dute, baita ere, datozen hilabeteotan hasiko direla lanak egiten.

Arabak, guztira, 28 atsedene-gune daude; horietatik bi Aramaion: Mariseka eta Andra Mari.

> ZERBITZUAK

Datorren astean argindarra eten egingo dute hiru egunean

Transformazio zentroan egin beharreko zenbait lanek eraginda, argindarra moztuko dute ordu laurden inguruan datorren martitzenean honako auzoetan: Gantzagan, Etxaguenean, Labeagan, Untzillan eta Suñan. Eguaztenean, Arexolan, Ibabean, Uribarrin, Gureian eta Altzagan. Eta eguenean, berriz, ibar osoan etengo dute argindarra, 09:30etik 10:15era arte.

AZPIEGITURAK > AHT-REN AURKAKO TALDEA

Urriaren amaierara arte sinadurak batuko dituzte

Dei egin diete auzoetako bizilagunei auzoetako elkarteetan utzi dituzten orrietan sinatzeko

U.M. > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren aurkako taldekoek sinadurak batzen jarraituko dute hil honen amaierara arte; hala erabaki dute oraingo astean egindako batzarrean. Hain justu ere, Erretiratuen Egunaren osterara arte jardungo dute, urriaren 29ra arte, beraz. Are gehiago, Erretiratuen Egunean bertan mahaia ipiniko dute sinadurak batzeko. Asmoa da, gero, azaro hasieran udaletxera eramatea sinadurok.

Horrez gainera, urriaren 27rako dei egin die herritarrei plazan egingo duten kale agerlaldian parte har dezaten. 19:00etan da hitzordua. Eta haren ostean, DVD emanaldia

egingo dute. DVDaren bitartez erakutsiko dute zela Italian lortu duten Abiadura Handiko Trenaren obra bat geraraztea, herritarren mobilizazioen bitartez. DVD-a Sastiñan emango dute.

ATXIKIMENDUAK

Sinadura bilketari dagokionez, berriz, gaineratu dute urriaren 27ra bitartean herriko kultur taldeengana ere joko dutela, trenaren aurkako atxikimendu bila. Auzo alkateei ere eskatuko diete atxikimendua. Horrez gainera, deialdi berezia egin nahi diete auzoetako bizilagunei auzoetako elkarteetan utzitako orrietan sina dezaten. Eta iragarri dute tabernetan ere ipiniko dituztela orriak.



TRENA Aramaion, Burgosen (argazkian) duen eragin bera izango duela uste dute.

GIZARTEA > ERRETIRATUEN EGUNA

Herritarren parte-hartzea bultzatu guran dabil Udala

Urriaren 28an ospatuko dute Erretiratuen Eguna; azoka ere izango da

te hartzeko baldintza bakarra; izan daitezke berdurak, konterbak, gozoak, ogiak, kosmetika produktuak, egurrarekin landutakoak, artelanak... Edozer, beti ere, etxean egindakoak badira.

U.M. > ARAMAIO

Herriko pertsona nagusien omenezko eguna izateaz gainera, etxeko edo baserriko produktuen azoka eguna ere bada Erretiratuen Eguna. Hain justu ere, azoka horretan, bereziki, herritarrek parte har dezaten gura du Udalak, herriko produktuak bultzatze aldera. Eta dei egin die horretarako. Jakitera eman duenez, pizgarri moduan, parte-hartzaile bakoitzari 100 euro ordainduko dio Udalak.

Etxean egindako produktuak edo baserrikoak salgai ipintzea da azoka horretan par-

EGUAZTENERA ARTE

Hala, parte hartu nahi izanez gero, urriaren 25a, eguaztena baino lehen eman behar da izena. Udaletxera jo beharra dago horretarako.

Iaz, esaterako, Aramaioko 15 lagunek parte hartu zuen azokan. Haiekin batera, kanpotik etorritako artisau eta baserri-tarrak ere izan ziren; guztira, 30 saltoki.

Azoka goizez ipini ohi dute. Horrenbestez, eguerdira arte izango da produktuok ikusteko edo erosteko aukera, urtero moduan, trikitia doinuek eta kaleko jai-giroak lagunduta.

AIKIALDIA > LUDOTEKA

Hezitzailea behar du Gurelek ludoteka abian jartzeko

Egunean ordubete egongo dira umeak ludotekan, 17:00etatik 18:00etara, eta txikienentzat izango da zerbitzua, 3 eta 6 urte artekoentzat

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Oraindik ez dute hasi ikasturtea ludotekan, baina azarorako abian egotea gurako lukete Gurel elkar-terko gurasoek. "Eguraldiak

lagundu digu orain arte eta umeak kalean ibili dira, baina hemen-
dik aurrera beste kontu bat izan-
go da eta aspertzen hasiko dira
eguraldi txarra etorri gero.

Horregatik datorren hilerako zabalik egotea gurako gurek ludoteka", dio Itsaso Egin presidentea. Horretarako, baina, hezitzailea behar dute Garro jauregian dagoen ludotekan umeekin lan egiteko. 3 eta 6 urte bitartekoei egunean ordubeteko zerbitzua ematea aurreikusitako Gurelekoek, 17:00etatik 18:00etara hain zuzen. Inork interesik izanez gero aipatutako lanpostuan edo argibide gehiago gura izanez gero deitu diezaiola Itsasori: 943 71 53 32.

NAGUSIAK KZGUNERA

Bestalde, 6 urtetik gorako neska-mutikoak ludotekara gero eta gutxiago hurreratzen direla iku-

sita KZgunera bideratzea pentsatu zuten Gurelek egindako azken bileran. Horretarako, baina, begirale bat beharko lukete, eta oraindik ez dituzte zehaztu halako kontuak. "Labidea dendako Aitziber Gorosabelekin eta Jon Sasiain kultura zinegotziarekin egin behar dugu berba zela bideratu jakiteko", azaldu digu Itsasok. Izan ere, KZguneko gizona Labidean daukate, eta eurak arduratzen dira zabaldu eta ixteaz, baina neska-mutikoen begirale lanik egin beharrik ez daukate. "Ea astean bertan lotzen ditugun kontu guztiak, gazteak ere lehenbailehen hasteko lanean", gaineratu du Gureleko presidentea.

> LANPOSTUA

Mantenu lanak egiteko langileak hartuko du Udalak

Turismoarekin zerikusia daukaten eraikinetan mantenu lanak egiteko langileak gura du Gatzagako Udalak. Argiteria aldatu, instalakuntzak zaindu eta antzeko kontuak egingo ditu Jaurlaritzak emandako dirulaguntza bitarteko hartuko dute langileak. Lanpostuaren gaineko argibideak jakin gura izanez gero udaletxera jo behar da, baina kontu guztiak ez dituzte zehaztuta oraindik, zenbateko lan jarduna izango litzatekeen edo zenbat denborarako, esaterako.

Dagoeneko hainbat lagunek eman du izena, eta astean bertan berba egin gura dute Udaleko ordezkariak eurekin. Erabakia hartu bezain laster hasiko da lanean langileak.

> INTERNET

Posta elektronikoa erabiltzen ikasteko ikastaroa KZgunean

Datorren astelehenean, hilak 23, Komunikatu posta elektronikoa erabiltzeko ikastaroa egingo du KZgunean Aitor Madrid arduradunak. Outlook Express programarekin egin daitekeen guztia azalduko du: mezuak idatzi, agiritegiak erantsi, helbide liburuan kontaktatuak gehitu... 10:00etatik 12:00etara bitartean izango da, euskaraz.

Bestalde, azaroan ere egingo ditu ikastaroak Aitor Madridek. Hilaren 6an, *Euskara ziberespazioan* izeneko eskainiko du euskarazko hiztegi eta liburuak zela bilatu ikasteko, 18:00etatik 20:00etara izango da; eta azaroaren 20an, *Justizia ezagutu ezazu*, 18:00etatik 19:00etara.




M.A.

Zubian kanpoko jende asko ibili da herrian

Eguraldi bikaina lagun jende asko hurreratu zen Gatzagara joan den asteko zubian. Gatz museoa goiz guztietan zabaldu zuten, eta jendetxoak pilatu zen gatzaren gaineko kontuak ezagutzeko: "Oraingoan, kanpotik etorritakoak baino gehiago, Euskal Herriko bisitariak izan ditugu: Azpeitia, Donostia eta Bizkaia aldekoak, batez ere", esan digu Labidea dendako

Amaia Olabek. Museora etorritakoez gain herria bera ezagutu gura izan zuten Gironako lagun batzuk ere hurreratu ziren zapatu arratsaldean.

Herriko ostatuei dagokionean Aterbe landetxea guztiz beteta egon da, eta Gatzainuzketako mendi etxeak antzera: "Leidako lagun batzuk egon dira eta gainerakoak euskaldunak", esan digu Montse Valeriok.



BIARK STUDIO SL

Arkitektura proiektuak

Usaetxe plaza 1 behea Esk (Kopyprest parean)

ARRASATE

Tel.: 943 798033 Mug.: Asier (652755446) Aritz (679736329)

E-posta.: biark@arquired.es



Berriztapenak



Obra berriak



Hirigintza



Erreformak





OROBENGOATARRAK Iker eta Igor autoaren xasis barruan. Lan gaitzena egin dute, babes-hodiak soldatzea. Azken gainbegiratua, baina, soldatzaile profesional batek egingo die.

XABIER URTZELAI

AUTOMOBILISMOA > RALLYAK

"Rallyetan ez du merezi arriskatzea; berehala etor daiteke-eta istripua"

Igor eta Iker Orobengoa anaiek autoa apurtu zuten abuztuaren 27an izandako istripuan

Astebetera xasis berria erosi eta autoa muntatzen dabilta, zaharrak badu-eta zer aprobetxatu

XABIER URTZELAI > ARRASATE

"Treinta a derecha; dos a más a ras para cincuenta vista derecha; ojo arqueta; para izquierda dos a más por dentro; sesenta izquierda tres larga por dentro...". Horiek izan ziren Iker Orobengoa (1978) koplilotuak auto barruan (Seat Ibiza GT TDI) Igor Orobengoa (1975) anaia emandako azken aginduak.

Rally du Pays Basque lasterketako bigarren jardunaldian izan zuten istripua, Isturitz-Labastide lasterketa tarteko hirugarren kilometroan. Ezkerretara egiten zuen kurba 140 kilometro ordura hartu eta gero, autoaren kontrola galdu eta kolpe ederra hartu zuten: "Hiru urteko lana bi segundotan bota genuen kakatarra. Saillapenean 25. postuan geunden, eta gure kategorian 3. lekuan. Kasualitatea izango da, baina tarte horretan ez gindoazen arriskatzen, atzekoa bi minutu eta erdira zeterren-eta", esan digu Igorrek.

Zorionez, autoak eraman zuen kolpea, bi anaiek onik atera ziren-eta autotik: "Errepidera olio bota genuela ikusterakoan larritu egin ginen, eta atzetik zetozen autoei abisua ematen ahalegindu. Gero, autoa baztertu eta apur bat lasaitzeko ordua iritsi zen. Anaia epailei abisua ematera joan zen, eta ni zelaian eserita geratu nintzen, autoari

begira, amorratuta, negarrez", aitortu digu Ikerrek. Izan ere, urte askotako lana dago atzean, lana eta ilusioa.

ETA ASTELEHENEAN LANERA

Zapatuan izan zuten auto istripua, eta astelehenean lanean ziren bi anaiek: "Ni Ulma Forjara eta anaia Ulma Packaging-era", dio Ikerrek barrez. "Alde horretatik, inoiz entzun izan dugu lasterketetan ez dugula larregi arriskatzen, baina guk argi daukagu rallyetan ez duela merezi behar baino gehiago arriskatzea, berehala etor daiteke-eta kolpea. Harmailetan dagoenak esaten du hori, autoa apurtzeak zelako mina ematen duen ez

dakienak". Autoari edozein konponketa egiteko diru mordo xahutzeaz gain, hobekuntza txikiena lortzeko ere dirua gastatu behar da. Segundoak banan-banan gutxitzeko egiten dute ahalgina; ez ahaztu, baina, helmugara osorik iristea dela helburu nagusia.

MEKANIKO LANETAN

"Rallyetan bi modu daude autoa erosteko: dirua daukanak osorik erosten du. Eta bestela, piezak erosi eta autoa norberak muntatzea da bigarren aukera". Horretan dabilta Igor eta Iker: "Dagoneko egin dugu lan zailena, xasisari babes-barrak soldatzea". Eta, datozen asteotan egingo dute

autoa barrutik margotu, gurpil-len euskarriak jarri, kable guztiak lotu, direkzioa eta agintemahaia jarri, motorra eta motoreko konexio guztiak finkatu... eta autoa martxan jarri: "Egun berezia izango da hori, seguru". Baina, noizko auto berriaren estreinaldia?: "Ez dugu uste aurtentzako denik. Azaroaren 25ean izango da azken lasterketa, Balcon de Bizkaia rallya, baina argi daukagu lasterketa batera joateko ez duela merezi korrika eta presaka ibiltzeak. Hobe da autoa behar den moduan muntatu, probak egitera Mirandako zirkuitura joan eta gusturara geratzea".

Ikerrek eta Igorrek esku hartzen duten lasterketa guztiak grabatu egiten dituzte, auto barruan kamera eramaten dute-eta. Hala, istripuko irudiak ikusi ahal izan ditugu eta benetan ikusgarriak dira. Irudi horiek, baina, ez dituzte saltzeko: "Horrelako istripuak dira telebistan azaltzen direnak, eta horrek mesede txikia egiten die rallyei. Arriskua? Bai, egon badago, kirol askotan moduan. Gauzak, baina, neurritz egiten badira eta norberaren muga non dagoen jakinez gero ez da zaletasun horren arriskutsua. Azken batean, zenbat lagun hil dira aurtentzako mendian?".

ISTRIPUA

Segurtasun neurriei esker, ondo

Kolpe handia hartu bazuten ere, Iker eta Igor onik atera ziren autotik: "Serieko auto bat izango balitz, han geratuko ginatke, seguru". Hori bai, Iker bizkarreko minekin ibili zen hainbat egunetan: "Horrelakoe-tan, pilotua babestuago egoten da, bolanteari heltzen dio-eta. Koplilotuak egin dezakeen gauza txarrena zerbaiti heltzea izaten da; eskuak gorputzaren kontra eramatea da onena". Anaiek egindako azken opariak ere on egin zion: "Lepokoa oparitu nion, eta deserosoa bada ere, lepoa zaintzeko segurtasun neurri ona da".



IBIZA ZAHARRA Horrela geratu zen autoa.

I. OROBENGOA

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila

Aretxabaleta-Ordizia Domeka. 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Pasaia Domeka. 16:30. Azkoagain.
Mondra-Mutriku Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

Lehen erregionala

Bergara-Beti Ona Zapatua. 16:30. Agorrosin.

Bigarren erregionala

Aretxabaleta-Mondra Zapatua. 17:30. Ibarra.
BTLS-Elgeta Domeka. 17:00. Ipintza.
Gazteak-Antzuola Zapatua. 15:30. Eibar.

Ohorezko mailako gazteak

Amaikak Bat-Aloña Mendi Zapatua. 16:30. Deba.
Zumaiako-Mondra Zapatua. 16:30. Zumaia.
Kostkas-Aretxabaleta Zapatua. 15:45. Donostia.
Mariño-Bergara Zapatua. 15:30. Irun.

Lehen mailako gazteak

Soraluze-Antzuola Zapatua. 11:00. Ezozia.
Arizendi Aretxaba.-Arrasate Domeka. 11:00. Ibarra.
Eibartarrak-Bergara Zapatua. 15:30. Unbe.

Ohorezko mailako kadeteak

Arrasate-Bergara Zapatua. 11:30. Atxabalpe.
Antiguoko-Aloña Mendi Zapatua. 12:00. Berio.
Arizmendi Aretxab.-Kostkas Zapatua. 11:00. Ibarra.

Lehen mailako kadeteak

Bergara B-Eibartarrak Domeka. 11:30. Ipintza.
Anaitasuna-Arizmendi Aretx. Domeka. 16:30. Azkoitia.

Ohorezko mailako infantilak

Elgoibar-Arizmendi Aretxab. Zapatua. 13:00. Mintxeta.
Anaitasuna-Arrasate Zapatua. 11:00. Azkoitia.
Aloña Mendi-Ordizia Zapatua. 10:00. Ibarra.

Lehen mailako infantilak

Mutriku-Bergara Domeka. 16:30. San Miguel.

Infantil txikiak

Arizmendi Aretxab.-Zarautz Zapatua. 15:30. Ibarra.

Emakumezkoen Liga

BTLS-Gasteizko Aurrera Zapatua. 18:30. Ipintza

Aloña Mendi-Arizmendi Are. Domeka. 11:45. Ibarra.

Emakumezkoen F-8

Zaramaga-Arizmendi Arrasa Zapatua. 12:30. Gasteiz.

Emakumezkoen F-11

Beasain-Aloña Mendi Zapatua. 11:00. Igartza.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Liga

Kanikas Infraco.-Eskoriatza Zapatua. 16:15. Gorostiza.

Gipuzkoako Liga

Aloña Mendi-Clinica Dental Gaur. 22:30. Zubikoa.

Hirugarren Maila

Zaldibi-UDA Mercedes Goiko Gaur. 21:30. Zaldibia.

Gazte maila

Aloña Mendi-Deutsche. Zapatua. 19:15. Zubikoa.

SASKIBALOIA

Lehen maila

Mugarri Alkesa-Erro Eugi Zapatua. 18:00. Iturripe.

Gipuzkoako ligako senior maila

Ointxe Arrasate-Erroibide Zapatua. 16:00. Iturripe.
Katu Kale-Aloña Mendi Zapatua. 18:30. Eibar.

Gipuzkoako ligako senior maila (emakumezkoak)

Eskoriatza-Lasarte Oria Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.
Andraitz-Aloña Mendi Zapatua. 16:00. Legazpia.

Gipuzkoako ligako gazte maila (gizonezkoak)

Mugarri Alkesa-Cafes Aitona Zapatua. 10:00. Musakola.

Gipuzkoako ligako gazte maila (emakumezkoak)

Eskoriatza-Andraitz Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)

Ford Mugarri-Caldereria Zapatua. 16:00. Musakola.
Bera Bera-Eskoriatza Zapatua. 18:00. Donostia.

Infantil maila (neskak)

Leintz Eskola Kir.-BKL B Zapatua. 10:30. Musakola.
Aloña Mendi-LEK Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Leintz Eskola Kir.-BKL C Zapatua. 12:00. Arrasate.

ESKUBALOIA

Euskadiko Senior Maila

Ford Mugarri Arra.-Romo. Domeka. 11:00. Iturripe.

Lehen territorial maila

Hegialde-Arrasate Esk. Domeka. 11:15. Legazpi.
Tolosa-Bergara Domeka. 12:15. Usabal Kir.

Preferentea

Verkol Aloña-Basauri Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Gazte maila (gizonezko.)

Aloña Mendi-La Salle Domeka. 12:00. Zubikoa.
Bergara-Ereintza Domeka. 10:30. Labegariaiet.

Gazte maila (emakum.)

Verkol Aloña-Leizaran Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Kadete maila (gizonezko.)

Goierrri-Aloña Mendi Domeka. 10:00. Ordizia.
Leizaran-Gatz Museoa Jak. Zapatua. 11:30. Andoain.

Kadete maila (emakumezkoak)

Cocina Aiala-Arrasate Zapatua. 16:00. Orio.
Ereintza-Verkol Aloña Zapatua. 16:00. Errenteri.
Verkol Aloña-Cocina Aiala Domeka. 10:30. Zubikoa.

ERRUGBIA

Senior maila

Arrasate-Bilbo Zapatua. 16:15. Garagartza.

Gazte maila

Arrasate-Eibar Zapatua. 15:00. Garagartza.

PILOTA

Jaialdia Bergaran

Chafee-Nalda III Larralde-Lasa III
Juan Mtz de Irujo Berasaluze IX. (Lau t' erdiko txapelketa)

Domeka. 17:00

MENDIKO BIZIKLETA

Eskoriatzako 17. Mendi bizikleta irteera

Domeka. 09:30. Eskoriatzako plazan. Izenematea 08:30ean.

XAKEA

Arrasate Hiria amaierako partida bizkorreko txapelketa

Zapatua. 10:00. Altamiran.

Manex Beristain eta Jone Larrañaga > Euskal Soin Jarduerak

"Euskal jokoak bultzatzea, helburu izatetik heziketarako tresna izatera pasa da"

XABIER URTZELAI > BERGARA
Astelehenean aurkeztu zuten Bergaran Euskal Soin Jarduera egitasmoa. Kutzak antolatzen duen eta Ikasiker taldeak gauzatzen duen proiektua da, eta euskal joko eta jolasen bitartez ikasleekin hainbat helburu bete gura dituzte.

Eginiezaguzue helburu horien gainean berba.

Helburu bat baino gehiago dugu. Hasieran, euskal joko eta jolasak bultzatzeko asmoarekin hasi ginen lanean. Orain, baina, helburu izatetik tresna izatera pasa dira, ikasleen heziketarako baliagarriak diren tresna. Hala, Euskal Soin Jarduerak egitasmoak balio du, besteak beste, jokatzeko orduan neskek mutilekin bat egiteko, euskara sustatzeko, heziketa fisikoa lantzeko, ikasleen arteko harremanak sendotzeko... Eta, noski, ondo pasatzea ere helburu nagusienetako bat da.

Astelehenean egin zenuten prentsurrekoa, baina egitasmoa ez da berria.

Dagoeneko zazpi urte daramatzagu Euskal Soin Jarduerekin lanean. Atzera egiten badugu, orain dela 12 urte sortutako Ikaspilota egitasmoaren errelebua hartu du oraingo egitasmoak. Orduan pilota lantzen genuen, eta eskaintza hori zabaldu egin dugu orain.

Eta, nori zuzendutako egitasmoa da?

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleetatik hasi eta unibertsitate mailarainoko eskaintza daukagu. Hala, euskal joko eta jolas jaialdiak antolatzen ditugu, herriz herri.



Eguaztenean izan ginen Manexekin eta Jonerekin.

x.u.

"Euskara sustatzea, harremanak sendotzea, kirola egitea... dira helburuetako batzuk"

"Euskal Soin Jarduerak orain dela 12 urte sortutako Ikaspilotaren errelebua hartu du"

Adin bakoitzeko ikasleekin joko edo jolas ezberdinak lantzen dituzue.

Hori da. Gaztetxoekin jolasen ibiltzen gara: boloetan, soka

saltoan, zangaluzeeekin, toka-jokoa... Bosgarren mailan, berriz, pilotako hainbat modalitate lantzen ditugu, eta 6. mailako ikasleek boteluzean jarduten dute. Pilotako modalitate hori aukeratu genuen zaharrena delako. Ez da behar hormarik, eta diotenez, tenisa kirol horretatik dator.

Eskaintza zabala duzue Deba-goienarako.

Bai, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko ikasleekin jaialdiak egingo ditugulako. Oraingo ikasurtean guztira 19 jaialdi egingo ditugu, eta eskola orduetan izaten direnez, herrietako plazetan giro aparta jartzen dugu.

gehitu

EUSKAL HERRIKO GAY, LESBIANA, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA

Arrasate 51, 3. esk. Donostia 20005 943 468 516 www.gehitu.net info@gehitu.net

InfAsis
Informazioa eta Laguntza 902 200 096
infasis@gehitu.net

DANBAKA))))

DEBAGOIENENKO II. MUSIKA LEHIAKETA

1. KONTZERTUA

URRIAK

20

Egubakoitza | 22:30

Elgetako Kafe Antzokia

AZKAITER PELOX

BERGARA

DRAKES

OÑATI

KLAKSON

ANTZUOLA-ZUMARRAGA

OZEN

ARRASATE

KAMISETAK SALGAI!

INFORMAZIO +

www.danbaka.com



> **'ARTEA'**
Antzezlaren euskarazko bertsioa domekan Arrasaten > 44



> **DANBAKA**
Debagoieneko musika lehiaketa hasiko da gaur Elgetan > 45

> **ANA NEVADO**
Telebista zale amorratua da eta batzutan saio horietako protagonista bilakatu da gazte eskoriatzarra. *Date el bote* eta *Basetxea* lehiaketetan ikusi dugu > 50



Buztin Erti: zeramika indartzeko topaketa

Zeramika garaikidearen topaketa egingo da azaroaren 5era bitartean; ekitaldiak Eskoriatzan, Oñatin eta Arrasaten

Ceramistes catalans Euskal Herrian erakusketa jarriko dute Oñatiko kultura etxean

Bereziki profesionali zuzendutako mintegia izango da Eskoriatzan, urriaren 28an

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Buztin Erti zeramika garaikidearen topaketa ospatuko da gaur hasi eta azaroaren 5era bitartean. Hainbat ekitaldi izango dira Eskoriatzan, Oñatin eta Arrasaten. Gaur, egubakoitza, egingo dute topaketaren inaugurazioa, Arrasateko Harresi aretoan, 19:30ean.

Jabier Merkader arrasatearra dugu Buztin Ertiko bultzatzaile nagusia: "Orokorrean ezjakintasun handia dago zeramika garaikidearen gainean, eta berau ezagutzera ematea da Buztin Ertiren helburu nagusia. Europan beste edozein diziplina artistikorenean maila du zeramikak, baina gurean, zoritxarrez, diziplina txikitat jotzen da. Baina ez dago urrun joan beharrik zeramikaren benetako maila aurkitzeko: Iparaldean, zeramikaren gaineko galeriak, topaketak edo jaialdiak aurki ditzakezu. Hego Euskal Herrian, berriz, ez da horren erraza...".

LAU ERAKUSKETA

Aurreko bi urteetan Telleria Baserriko Jaia izan denak Buztin Erti izena hartu du aurten eta maiatzean ospatetik udazkene-ra ekarri dute, sasoi aproposagoa delakoan. Lau erakusketa antolatutako dituzte: Oñatiko kultura etxean, Santa Marina plazan, *Ceramistes catalans Euskal Herrian* izenburuko jarriko dute: gaur egungo zeramista katalan ezagunenek hartzen dute parte erakusketan: 20 bat lagun lanak ikusi ahal izango dira, tartean Jordi Serra, Mia Llauder, Ana Rosenzwei, Ramon Fort, Carles Vives edo Maria Bosch-enak.

GIB birusaren aurkikuntzaren 25. urteurrena dela eta, bi erakusketa izango dira Eskoriatzan: batetik Marta De Pablos andaluziarraren *Our fear* (gure beldurra), Ibarraundi museoan. De Pablosek zelula osasuntsu bat kutsatu eta gaixotu arteko faseak azalduko ditu Ibarraundin jarriko duen instalazioan, argazkilaritza eta zeramika uztartuz. Bestetik, kultura etxean, IHESaren aurkako Euskadiko batzordeek nazioartean egindako kartelak (30 inguru) jarriko dituzte.

Era berean, Arrasateko Harresi aretoan, *Polonia 3x4* erakusketa izango da zabalik azaroaren 5era bitartean. Paulina Pokorny-Ziembak, Adam Abelek eta Krystyna Cybinska artistek hartzen dute parte, lau lan aurkezten dituztelarik. Madrileko Poloniako enbaxadak apropos Buztin Erti topaketarako prestatutako erakusketa da. Wroclaweko Arte eta Kultura Okis zentroak ere hartu du parte.

DVD EMANALDIK ZAPATUAN

Zinemarako tartea ere egongo da Buztin Erti topaketan. Bihar, zapatua, DVD emanaldiak izango dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan.

Goizeko emanaldian, 11:00etan, *Mar de fang*. Miquel Barceló en la Catedral de Mallorca (55 minutuko iraupena), *Live ceramics* (4 minutu), *Jardín mineral* (14) eta *Instalaciones y performances* (30 minutu) ikusi ahal izango dira. Arratsaldean, berriz, 17:00etan hasita, *Mate y* (44. orrialdean jarraitzen du)



Buztin Erti: zerami- ka indartzeko topaketa

(43. orrialdetik dator)

arcilla. Zanon, una fábrica auto-gestionada (45 min.), *Proyecto Zero* (8 min.), *Chicle* (4 min.) eta *Chillida. El arte y los sueños* (63 min.) eskainiko dituzte. Chillidaren gaineko dokumentalean, artista donostiarrak, *El peine del viento* edo *Elogio del horizonte* lanetan artea eta natura zela batzen zituen aztertzen da.

Goizeko zein arratsaldeko emanaldietarako sarrerak 3 eurotan salduko dira.

MINTEGIA URRIAREN 28AN

Bestalde, hurrengo zapatuan, urriaren 28an, bereziki profesionalei zuzendutako mintegia izango da Eskoriatzan, goizez eta arratsaldez. Zeramika sektorea indartzeko eman beharreko urratsak landuko dituzte: merkatu azterketak, irudi korporatiboa edo marketing planak zeramikan zela aplikatu aztergai izango dute. Interesatuak 685 73 67 54 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.



ZERAMISTA Ibilbide luzea darama Jabier Merkaderrek. Gaur egun *ceramikarte.com* aldizkari editorea da.

MAIDER ARREGI

BUZTIN ERTI

Zeramikaren alde lanean buru belarri

Gironan ikasketak egin zituenetik, ibilbide luzea darama zeramikan Jabier Merkader arrasatearrak (42 urte): "20 urterekin hasi nintzen eta hor jarraitzen dut... Ea egunotan egingo dugun topaketa honen bitartez zeramikari bultzadaxo bat ematen diogun, horren beharra daukagu-eta". Lau urte darama *ceramikarte.com* aldizkari digitalarekin: urriaren 52. alea izango da sarean. "1.000tik gora harpide ditu aldizkariak, 44 herrialde ezberdinetakoak. Baina ez da erraza hilero aldizkaria lantzea". Buztin Erti topaketaz gain, uztailean Gasteizen ospatutako Lehi.Ke. izeneko nazioarteko jaialdiaren antolaketan hartu zuen parte: mundu osoko 135 zeramista elkartu ziren bertan. Eta 2007rako badute hitzordu garrantzitsu bat: zeramika garaikidearen estatu mailako kongresua egingo dute, non izango den oraindik zehazteke dagoen arren.

ANTZERKIA > TXALO PRODUKZIOAK

'Artea' antzezlan arrakastatsuen euskarazko bertsioa

Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Ramon Agirre aktoreekin domekan, Amaia antzokian

E.M. > ARRASATE

Aspaldian antzerkian arrakasta gehien izan duen lanetariko bat Arrasatera iritsiko da domekan. Txalo Produkzioak taldeak *Artea* lanaren euskarazko bertsioa eskainiko du Amaia antzokian, 20:00etan. Yasmina Reza frantziarrak idatzitako lana 35 hizkuntzataraz itzulia izan da; 1998an New Yorken estreinatua zenetik han eta hemen antzeztu da. Euskarazko bertsioaren estreinaldia joan den irailaren 29an egin zuten, Tolosan. Carlos Zabala-ren zuzendaritzapean, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta

Ramon Agirre dira *Artea*-ko protagonistak.

HIRU AKTORE

Hain zuzen ere, hiru lagun dira antzezlaneko zutabeak. Beraietako batek koadro bat erostearren dirutza bat ordaindu eta hortik aurrera etorriko da eztabaida, ordura arte lagunek izan duten harreman estua kolokan jartzearaino. Erosketa hori esnobismoa ala artea den da eztabaidaren mamia.

Carlos Zabala zuzendariak zera dio: "Testu bikaina da, azken hamarkadan sari ugari jaso ditue-

na. Josep Maria Flotats-ek zuzendutako bertsioa ikusi nuenean lan hori zuzentzeko gogoia piztu zitzaidan eta, egia esan, asko gozatzen ari naiz. Egokitzapena egiterakoan ukitu minimo batzuk egin ditugu eta jatorrizko testuarekiko ez dago aldaketa nabarmenik". Julia Marinek egin du testuaren itzulpena.

Emanaldia, esan bezala, domekan izango da, 20:00etan. Antzezlanak ordubete eta laurden inguruko iraupena dauka.

'BIDEAK', GAUR BERGARAN

Bergaran, berriz, Aukeran dantza konpainiaren eskutik, *Bideak* ikuskizuna izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Jose Antonio Vitoriaren gidioa oinarri hartuta, Garbi Losadak eta Edu Murua-mendiaraz dantzari bergararrak zuzendutako ikuskizuna da. Muruamendiarazekin batera, beste hamar dantzarik hartzen dute parte. Kritika bikainak jaso dituzte joan den udan estreinaldia egin zutenetik. Sarrerak 10 eurotan salduko dituzte frontoiko leihatilan bertan. Ordubete inguru iraute du ikuskizunak.



'ARTEA' Joseba Apaolaza da laneko protagonistetako bat.

GOIENKARIA

I A A R D C L Z M U S I K A B M O C P O I A A R D C L Z P L I
L R S E C E T R E L I B H E V G O I N A L R S E C E T R E L I
P A A I S O E L K A R Z R E A R O Ñ D E P A A I S O N C N B C
A S R T V P T Q B Ñ T D H E H L M N Q Q A S R T V P T Q B Ñ T
L N D L I B U R U A K E K V E O E T N O L N D T N A T R R Q H
V S H T E L K A R F M S S B Ñ D V L A I S I A L D I A A R F M
V S H Ñ I N L S N E A B A R A O B M I V V S H Ñ I N L S N E A
Z H K U L T U R A A Ñ R I G S S A A R R A S A T E N E P E A Ñ
T E H H Q L F P T A A Q E H L H Z F R C T E H H Q L F P T A A
E T V D L E T E S C Z M Z L A Ñ D A A M E T V D L E T E S C Z
I S Ñ V R F I H R T A N L U H L R Ñ K U I J O K O A K H R T A

Kultura eta aisialdian
gura duzun guztia

Erdikokale, 14 - ARRASATE
Tel.: 943 797 829

ekar
elkar ezagutzen dugulako

www.elkar.com

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

MUSIKA > DANBAKA DEBAGOIENeko II. MUSIKA LEHIAKETA

Zuzeneko txanda, erabakigarriena eta biziarena, hasiko da gaur Espaloian

Emanaldi bakoitzeko lau talde izango da, eta horietako bakoitza ordu erdiz arituko da

Jabi Ullak diseinatu du eszenatokia, eta bideo eta elkarrizketak izango dira ikusgai

IKER BARANDIARAN > DEBAGOIENA
Dagoeneko heldu da zuzeneko txanda Elgetako Espaloia Kafe Antzokira. Orain arte egindako pauso guztiek ere garrantzi handia izan dute, baina gaur, egubakoitza, hasten denarekin alderatuta atarikoak izan dira.

JAKIN-MINA ETA HARRERA ONA
Antolatzaileak oso pozik gaude orain arte lehiaketak izan duen harrerarekin. Hain zuzen ere, musika zale askok gustura hartu dute zuzenean aritu beharreko 20. taldea bozkatzeko aukera. Hala, lau bat egunetako epean ia 1.400 e-posta helbidetatik eman zuten botoa. Lehia gogorra izan zen, eta azkenean Arrasateko Anal Bag izan zen bozkatuena. Talde probokatzaile horrek izango du edizio honetako lehen txanpako azkeneko kontzertu ixteko ardura.

Horren aurretik, baina, beste hainbat talde ikusteko eta entzuteko aukera izango da hamabostean behin egubakoitzetan. Edizio honetan ere lau talde arituko dira kontzertuko, eta bakoitzak ordu erdiko emanaldia egin beharko du.

ESZENATOKIA ETA BIDEOAK
Jabi Ulla diseinatzailearen eskutik Espaloiko eszenatokia aldaturik ikusiko dute kontzertuetara gerturatutakoek.

Bestalde, oraingoan ere taldeek kontzertua eman aurretik euren gaineko bideo eta elkarrizketak egongo dira ikusgai.

GAURKO TALDEAK



AZKAITER PELOX
Bergara

Unai Azkarate bergararrak urte dezente darama musika egiten. Fly Shit hardcore taldean ibili zen, baina gerora hori utzi eta bakarkako bideari ekin zion Azkaite Pelox izenpean. Gitarra elektroakustikoa lagun duela, egunerokotasunean gertatzen zaizkion bitxikerien gaineko gogoeta egiten du. Gaztetxe, taberna eta bestelakoetan kontzertu asko egiten ditu, eta iaz Mahaster River taldea sortu zuen.



KLAKSON
Antzuola-Zumarraga

Orain dela 2 urte, Antzuolako eta Zumarragako lagun batzuek bat egin zuten musika talde bat sortzeko. Helburua zen emozio eta sentimenduak helaraztea, eta horretarako bidea aurkitu zuten. Horietako batzuk bluesa, soula eta rockaren klasikoak lantzen ibiliak dira, baina oraingoan rocka aukeratu dute euskarri moduan. Oinarritzko formazioarekin eta teklatuarekin jantzita, euskaraz rock irekia egiten dute ñabardura askorekin.



DRAKES
Oñati

2002an Oñatiko hiru lagun elkartu ziren egunerokotasunarekin pixka bat apurtzeko. Euren gustuko taldeen bertsioak jotzen hasi ziren. Handik gutxira, baxu jotzaile bat batu zitzairen eta punk-rock kantu propioak idazten hasi ziren. Orditik zuzenean jotzeari ekin diote, eta soinua indartzeko beste gitarra jotzaile bat batu diote taldeari. Gero eta kontzertu gehiago egiteko asmotan dabilta.



OZEN
Arrasate

Ozen taldea 1999 eta 2000. urte artean sortu zuten Arrasaten. Hasieran oporretan bakarrik entsetzen zuten, abeslari eta gitarra jotzaile Julen Rivas Bartelonan bizi zelako. Rivas Arrasatera itzultzera-koan, partaide aldaketa batzuk izan zituzten, baina dagoeneko taldea egonkortuta dago. Hard-rocka, heavy eta beste estilo batzuk uztartzen dituzte, eta iaz disko bat grabatu zuten Anestesiako Mikel Kazalisen laguntzarekin.

kontzertuak

Urriak 20

- > Azkaite Pelox. Bergara.
- > Drakes. Oñati.
- > Klakson. Antzuola-Zumarraga.
- > Ozen. Arrasate.

Azaroak 3

- > Matx. Elgeta.
- > Malenkonia. Oñati.
- > Belceblues. Bergara.
- > Aby-Kem. Bergara.

Azaroak 17

- > Igor. Aretxabaleta.
- > Mahaster River. Bergara.
- > Los Cretinos. Arrasate.
- > Yotox. Bergara.

Abenduak 1

- > Jim TNT & Amaia. Arrasate.
- > Raul Lasa. Arrasate.
- > Unnëa. Oñati.
- > Scam. Aretxabaleta.

Abenduak 15

- > Inalectrik. Aretxabaleta.
- > Little Little Much. Arrasate.
- > The 5 Twisters. Arrasate.
- > Anal Bag. Arrasate.

Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egingo dituzte, 22:30ean.

Sarrerak

Escuratzeko hiru aukera:

Danbakako sarrerak eta abonua erosteko hiru modu daude. Goienako egoitzetan, 902 36 38 51 telefono zenbakian eskatuta eta Espaloia Kafe Antzokian.

- > Sarrera arrunta. 4 euro.
- > Gaztekutxarekin. 2 euro.
- > Abonua. 18 euro.
- > Gaztekutxarekin. 10 euro.

Kamisetak

Edizio honetako berrikuntzetako bat da Danbakako kamisetak egin ditugula. 19 eurotan daude salgai. Horiek escuratzeko: Elgetako Espaloia Kafe Antzokian edo 902 36 38 51 telefonora deituta. Etxean ere jaso daiteke hiru euro gehiago ordainduta.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA!n!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENEKO GOIENKARIA:n:
kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak...
Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.
Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENEKO GOIENKARIA:n.

Erosi ASTELEHENEKO GOIENKARIA edo egin zaitetz harpidedun!

MEZA


Lumi Franco Miñón

Burgosen hil zen 2006ko urriaren 10ean, 52 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, urriaren 21ean, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bautista elizan.



Zure lagunak.
Arrasaten, 2006ko urriaren 20an.



Otxandioko **Lander** eta Bergarako **Ana** bihar, zapatua, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Bazkaria Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta Costa Ricara joango dira bidaian. Zorionak familiako partetik.



Aitor Ilarduia eta **Olatz Arteaga** bergararrak bihar, zapatua, ezkonduko dira Bergarako udaletxean. Bazkaria Etxe Berri jatetxean egingo dute. Familiako partetik, zorionak eta ondo pasa eguna.

URTEURRENA

Mikel Odriozola Igartua

Aixkirri

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

*Zuk landatako zuhaitz ta lorak
daude goibel baina zutik
aberek ere marruka dabitz
denak alde guztietatik
nun dago Mikel gure laguna
galdezka dirade betik
laguntza pixkat emaitzu
Artzanburuko puntatik*



Anai-arreba, ezkon anai-arreba, iloba eta bilobak.
Oñatin, 2006ko urriaren 20an.

ESKELA

Julia Gallastegi Urtzelai

Honorario Agirregabiriaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 14ean, 89 urte zituela.

*Uso zuria errazu
Amama ikusten duzu?
Lepotik helduz, eman zaiozu
Gure partetik bi muxu
Tristeak utzi gaituzu
Bainan jakin badakizu
beti maiteko zaitugu*



Maite zaitugunok.
Bergaran, 2006ko urriaren 20an.

URTEURRENA

Gonzalo Arregi Albizua

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urriaren 21ean, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bautista parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 18an, 15 urte zituela.

*Lagunen laguna
izan zinen benetan
usoa bezain airosa
ihes egin zenduan
15 urte bakarrikan eta
neska ederra zinen benetan
jatorra eta maja zinez
esan behar bada gaurkoan*



Lagun Aitor.
Oñatin, 2006ko urriaren 20an.

URTEURRENA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 18an.

*Gure artean utzitako hutsunea
zure irribarrea oroitzean betetzen da.*



Koadrilakoak: Arrate, Paula, Jone, Gladys, Itsaso, Haizea eta Olatz.
Arrasaten, 2006ko urriaren 20an.

URTEURRENA

Ainhoa Apaolaza Rekondo

Arrasaten hil zen 2005eko urriaren 18an

*Ezer esan gabe
joan zinen hemendik
baina gu inoiz ez gara
ahaztuko zure irribarrearekin*



Miriam, Leire, Eneritz, Ane Miren, Saioa eta Amaia.
Arrasaten, 2006ko urriaren 20an.

ESKELA

Andres Lareu Regueiro

Eskoriatzan hil zen 2006ko urriaren 10ean, 53 urte zituela.

*Ez zaude nire alboan
baina berdin-berdin maite zaitut.
Gauetan zerurantz begiratu eta hantxe ikusten zaitut.
Beti izango dut zure argia,
nire izarra zarelako orain.
Eta badakizu beti izango naizela
zure bihotzeko neskatosa.*



Aitziber, zure iloba.
Eskoriatzan, 2006ko urriaren 20an.


MEZA

Angel-Andres Lareu Regueiro

Eskoriatzan hil zen 2006ko urriaren 10ean, 53 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza zapatuan, urriaren 21ean, 19:00etan, Eskoriatzako San Pedro elizan.

*Zure lankideok
ez zaitugu ahaztuko*



Eskoriatzan, 2006ko urriaren 20an.

MEZA

Maria Augusta Ferreira Loreiro

Portugalcn hil zen 2006ko urriaren 5ean

Haren arimaren aldeko meza domekan, urriaren 22an, 12:30ean, Eskoriatzako Santa Pedro elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2006ko urriaren 20an.

ESKELA

Miren Gartziandia Muxika

Bergaran hil zen 2006ko urriaren 10ean.

*Gorde iezaguzu leku bat zure ondoan.
Leku handia gorde, asko gara eta.*



Zure lagunak.
Bergaran, 2006ko urriaren 20an.

HAURRENTZAKO MASAJE IKASTAROA

Urtebete bitarteko haurrak dituzten gurasoei zuzendua

- LASAITZEKO
- HOBETO LO EGITEKO
- KOLIKO ETA HORTZALDIETAKO MINAK BARETZEKO
- UMEAREKIN KOMUNIKAZIO EFEKTIBOA SENDOTZEKO
- IMMUNITATE-SISTEMA SENDOTZEKO


ANTOLATZAILEA
**MUGI, Psikomotrizitate
Prebentzio eta
Laguntza Zentroa**

TOKIA
**Araba etorbidea 3,
2-3. atea**



EGUNAK
Azaroak 8, 15, 22 eta 29

ORDUA
10:30etatik 12:00etara

INFORMAZIOA
**MUGI ZENTROAN
943 77 08 05**




bila-bila 7



hitz gezidunak

	Eguna	Ohola	IRUDIKO MENDIA
	Kristau sakramentu	Jauzia, dantza	Jariakin
Eraikin erlijioso	Tontor, gain	Arrantza tresna	Errepikatuz, gorotza
	Egon bedi		
Oharrak	Lehiaketa baten epaileak	Sortu zintuena	Toki hartan
Automobil	Nafarroako herria	Anperea	Anperea

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Bidea

Senar-emazteak ohean daude. Senarra kirol egunkari bat ari da irakurtzen eta emaztea, berriz, 600 bat orriko eleberrria. Bat-batean etxeko telefonoak jo du. Senarrak ezkerreko besoa luzatu eta hartu egin du:

- Bai, nor da?
- (...)
- Eta nik zer dakit!

Senarrak telefonoa zintzilikatu eta, hitzik ahoskatu gabe, "nor zen eta zer nahi zuen" galdera aurpegia duen emazteari:


- Jende eroa badabil oraindik ere munduan: tren-konpainia-ko norbait edo trafikoko arduradunen bat izango zen.
- Zer dela eta?
- Bidea libre ote dagoen galde-tu dit eta!

sudokua

	5		2	7	6		3
6			8	3			4
	1	7			2	8	
		9	5	1	3		
		8	7	9	1		
	4	5			8	2	
2			1	5			7
	3		4	2		6	

hieroglifoa

Zer atera du Natur Zientzietan?




hizki salda

Debagoieneko 5 auzoren izenak

A	B	B	E	D	O	Ñ	A	M
N	A	U	S	H	K	A	L	A
E	R	P	A	R	A	O	T	Z
R	A	U	O	R	R	O	I	G
R	J	D	A	T	K	E	N	O
T	U	E	J	O	Z	U	A	I
O	E	L	O	S	U	A	O	R
D	N	M	E	K	T	O	G	A
D	I	Z	N	I	Z	T	E	A

soluzioak



Z	I	N	A		O	T	A
T	R	A	V	A	K	L	
I	A	H	V	A	M	A	E
A	K		K	A	T	O	N
E	R	E	S		O	G	B
R	U	R	L	A	I	G	T
T	S	T	R	I			
O	A	I		B	A	T	B
B		T		D			

bono fotoa



Aramaioko zein auzotan daude argazkiko baserriak?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Don Rodrigo ardo beltza edo gorria
75 cl-ko botila

0,60 € 100 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
ASUN ALTUNArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Arrasate Argitan Kultur Elkartea.

9	6	5	2	8	4	1	3	7
7	3	4	5	6	1	9	8	2
1	2	8	6	3	7	5	4	9
6	1	4	9	3	7	8	2	5
2	5	9	8	4	6	3	7	1
8	7	3	1	5	2	6	9	4
5	8	2	4	9	6	1	7	3
1	4	7	3	5	8	2	6	9
3	9	6	1	7	2	4	5	8

Jeroglifkoa: bikain
bi-kal-n

A	E	Z	I	N	Z	I	D
A	T	O	K	E	M	N	D
O	R	A	S	U	L	O	E
A	I	A	Z	O	J	E	T
O	N	O	A	T	K	E	R
I	G	O	R	O	R	O	R
Z	A	R	A	O	T	Z	E
A	L	A	S	H	K	A	N
M	A	N	A	D	O	N	A



**ETA
PROBATZEAN...
GUSTATZEN
BAZAIZU?**



AURREIRITZIRIK GABE, BENETAKO GIPUZKOA

Ana Nevado > Tabernaria eta telebistako lehiakidea

"Telebistako lehiaketetara joaten naiz dirua irabaztera, ez ezaguna egitera"

Ana Nevado eskoriatzarra barraren atzealdean lanean ikusi izan dugu askotan, tabernari eta zerbitzari lanean urteak daromatزالako. Horrez gain, telebista zale amorratua ere bada eta batzutan saio horietako protagonista bilakatu da. Telebistan dirua irabaztea du helburu eta horregatik *Date el bote* eta *Basetxea* lehiaketetan esku hartu izan du, besteak beste.

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Ana Nevadok oso argi dauka telebista dirua errazago irabazteko gailu aproposa dela. Horregatik, hainbat lehiaketetara aurkeztu ohi da. Bitartean ostalaritzan dihardu.

Txikitzen zer izan gura zenuen nagusitzerakoan?

Orduan ez neukan ezer pentsatuta. Baina orain berriro ikasten hasiko banintz, irakasle ikasketak egingo nituzke, umeak oso gustuko ditut-eta.

Gazte hasi zinen lanean, ezta?

19 urterekin. Ikasteak ez ninduen askorik motibatzen eta lanean hasi nintzen. Urtebete egin nuen tailer baten. Ostalaritzan baino hobeto bizi nintzen orduan: zortzi ordu egiten genituen eta asteburuetan beti jai.

Gerora ostalaritzan eskarmendu handia hartu duzu...

Bai. Tailerrean ibili ostean, Eskoriatzako taberna baten urte betez egon nintzen. Horren ostean, beste urte bat Arrasateko Xaramelan egin nuen, eta iaiztik Eskoriatzako Mendigoia hotelean lanean nabil.

Zer dauka ona eta zer txarra ostalaritzan aritzeak?

Ona, jendearekin harremanetan egoteak eta jende asko ezagutzeak. Txarra dauka ordu asko sartu behar direla eta asteburuetan ere lana egin behar dela.

Zer nolako esperientzia izan zen *Basetxea* saioan esku hartzea?

Oso gogorra. Han hotza, gosea, hezetasuna... pasa genituen. Han barruan geundenean edozer egiteko prest geunden. Gero, kanpora irten eta birritan pentsatzen duzu egindakoa. Hilabete egin nuen han, baina orduetik gehiago baloratzen dut zelan bizi garen.

***Basetxea* saiotik irten ostean lotsa apur bat pasa zenuela aipatu zenuen...**

Bai. Jende guztia kalean galdezka neukan eta gogorra egin zitzaidan. Baina gerora ohitu egin nintzen. Egia esanda, ni lehiaketetara joan nintzen dirua irabazteko, eta ez ezaguna egiteko.

Telebistan lehiaketak ikustea gustuko duzu?

Bai, oso gustuko. Ia guztiak ikusten ditut, baita txutxumutxuen gaineko saioak ere. *Operación Triunfo*, *Gran Hermano*, *Erlatzea*... beti ikusten ditut.



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 26 urte. **Zaletasunak:** Arropa erostea, lagunekin eta mutilarekin egotea eta telebista ikustea. **Betetzeko daukazun amets bat?** Loteria irabazi eta etxea ordaintzea. **Gizateriaren asmakizunik handiena?** Hizkuntza. **Maniaren bat badaukazu?**

Etxetik irteterakoan beti kolonia ematen dut. **Zine zalea zara?** Ez. Beti lo gelditzen naiz. **Edari bat?** Edateko? Kafea. **Eta zerbitzatzeko?** Kafea ere. Bezeroek esaten dute ona egiten dudala. **Debagoieneko txokorik politena?** Aitzorrotz.

Zer gurago duzu, horren ikusle edo parte-hartzaile izan?

Ikuslea. Etxean zaude goxogoxo, eta saioa bukatzean telebista itzali eta etxean gelditzen zara.

***Date el bote* lehiaketan ere esku hartu zenuen. Konta egidazu...**

Bai. Hori *Basetxea* lehiaketetara joan aurretik izan zen. Dirua irabaztera joan nintzen eta aste horretan finalera heldu zen neska bakarra izan nintzen. Apur bat aspergarria izan zen. Egun bakarrean bost programa grabatu genituen, eta ordu ugari izan ziren.

Orain ere beste saioen baten esku hartzeko asmoa daukazu, ezta?

Bai, *Basetxea*-n egon ostean atsedena hartzea erabaki nuen, baina dagoeneko berriro animatu naiz. Antena 3ko *La ruleta de la fortuna* saioan esku hartzeko izena eman dut. *Gran Hermano* ra joateko prest ere banengoen, baina mutilak eta lagunak ez zidaten utzi.

Oso desberdinak dira saio horiek barrutik eta kanpotik?

Bai. Telebistan ematen dute bakarrik gura dutena, saltzen duena. Gero telebistan ikusten dudanean harrirituta gelditzen naiz.

Eskoriatza gustuko duzu? Falta bota duzu beste nonbaiten bizi ez izana?

Eskoriatza oso gustuko dut eta hemen bizitzen jarraitzeko asmoa daukat. Ez dut falta igaritzen kanpora joan ez izana. Gustura bizi izan naiz etxekoekin.

Aldatu zara *Basetxea*-n egon zinenetik?

Ez. Berdina izaten jarraitzen dut. Aldatu dudana apurra da lotsa txikiagoa daukadala. Baina, berez, oso lotsatia naiz.

Kiroletan ere ibilia zara...

Bai. Orain dela hainbat urte Eskoriatzako nesken saskibalo taldean ibili nintzen, baina denbora faltarengatik utzi behar izan nuen. Batzuetan entrenatzera joaten naiz kirola egitearren, baina aspaldi ez dut aukerarik izan.

Baina, bestalde, kirol zalea ere bazara...

Bai, saskibaloia eta futbola ikustea oso gustuko dut. Batzuetan TAUREn norgehiagokak ikustera joaten naiz Gasteizera, baita Eskoriatzako nesken taldeenak ere. Eta Athletic telebistaren bidez jarraitzen dut.

Edozein premiatarako:


- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG

**CONSULTORIO
GINECOLOGICO**



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE

**Zerkaosteta 17
943 79 20 18**

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 2

Irun: 943 61 78 88

Debagoieneko
**PROFESIONAL
LIBERALAK**



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

BIDEO EKOIZPENAK

ISLADA MULTIMEDIA

BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegarieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA

ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

JUAN MARI OSINAGA

ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ASEGURUAK

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA

ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

DISEINU GRAFIKOA

ISLADA MULTIMEDIA

BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegarieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

berriak

> GOITB

Norbait zoriondu nahi baduzu argazkia bidalita nahikoa

Goiena Telebistan badute tar- te bat hamabi urtera arteko gaztetxoak zoriontzeko. Egu- nero 13:15ean, 15:15ean eta 20:15ean ikus daiteke zorion agurren tartea. Zeuk ere zure etxekoren bat edo lagunen bat zoriondu nahi baduzu argazkia helbide honetara bidali besterik ez duzu: *aste- lehen@goiena.com*. Izen-abi- zenak, betetzen dituen urte- ak eta nork zoriontzen duen jarri ere bai eta listo.

> GOITB

Asteburuan Igantziko artzain txakur txapelketa

Larunbatean 11:00etan eta domekan 17:30etan eskainiko digute Goiena Telebistan Igantziko 27. artzain txakur txapelketa. Txapelketa hau irailaren 24an jokatu zen Makandiko zelaian. Lehian zortzi txakur izan genituen, eta denetan azkarrena Jose Antonio Arrillagaren *Txuki* txakur gaztea izan zen. Ttipi- Ttapa Telebistak ekoiztutako saio dugu asteburuan ikusi ahal izango duguna.

> ARRASATE IRRATIA

Konposta egiten ikasteko aholkuak asteburuan

Aste honetako lorategiaren geltokian, Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiak, konposta egiten erakutsi digu. *Asteko gainbegiratu*-n berreskuratuko dugu lorazainarekin izandako solasaldia.

Bestalde, erakundeen geltokian, Iñigo Garitano Arrasate Udaleko Gizarte Zerbitzuetako buruak, sail horrek egiten dituen lanen berri ere emango digu.

> ARRASATE IRRATIA

Eguazteneko merkatu txikiaren geltokia Arrasate Irratian

Edozer izanez gero saltzeko, edo erosteko, lan bila bazabil- tza edo alderantziz, lana badu- zu eskaintzeko, hauxe duzu geltoki aproposa zure ohar- rarak igortzeko.

Eguazteneko izaten da, Arrasate Irratik autobusa merkatu txikiaren geltokian. Zure oharrek ere jaso gura ditugu. Bi modu dituzue zuen mezuak helarazteko: 943 71 17 31 telefono zenbakia edo *irratia@goiena.com* posta elektronikoa.

'DANBAKA' > MARTITZENA ETA EGUENA, 21:45

Martitzenero eta eguenero, Danbaka musika lehiaketa

Gaur izango da Danbaka Musika Lehiaketako lehenengo kontzertua Elgetan

GOIENKARIA > ARRASATE

Danbakako lehen kontzertuan, gaur, Azkaiter Pelox, Drakes, Klakson eta Ozen izango dira. Elgetako Espaloia Kafe Antzoki- ra hurbiltzeko aukerarik ez baduzue, GOITBk martitzene- tan eta egueneroan eskainiko dizue gaueko 21:45ean. Datorren martitzenean, Azkaiter Pelox bergararraren kontzertua eskai- niko digute eta egueneroan, punk- rock doinuak Drakes taldearen eskutik. Gainera eguenero jarrai- pen zabala egingo diote lehiaketa- ri: ikuslearen botoen zerbaketa, taldeen aurkezpena eta bes- te hainbat kontu.



'DANBAKA' Amagoia Lasagabaster izango da saioko aurkezlea. IKER BARANDIARAN

IRATI SENAR, 'DIDJERIDU' > ASTEBURIAN

Irati Senar 'rider' lazkaotarra hurbiletik ezagutzeko aukera

GOIENKARIA > ARRASATE

Hemezortzi urte bete ditu aurren Irati Senarrek eta horietako asko zaldi gainean pasa dituela esan genezake. *Riderra* da, zaldi lasterketetan zaldiko lanak egiten dituen. Horixe da Iratiren zaletasunik handiena.

Lazkaomendi auzoan, Alarpeko zalditegian egiten ditu entrenamenduak Irati Senarrek, Martin Garmendiaren gidaritzapean. Ordu asko eta sakrifizio handia eskatzen dion zaletasuna, zalantzarik ez. Horixe *rider* gaztearen bizimodua. Iratiri

baina, ez zaio axola. Horrek egin du zoriontsu. Hurrengo lasterketa Frantziako Pou herrian izango du. Munduko txapelketan sartu ahal izateko, proba gainditu beharko dute Iratik eta bere lagun leiala den *Ilargi* zaldiak. Urte amaieran berriz, Bartzelonan jokatu- ko den nazioarteko zaldi lasterketan parte hartuko du. Iaz, maila nazionalen zazpigarren postua eskuratu zuen eta aurreneko marka hori hobetzera joango da gazte lazkaotarra. *Didjeridu* saioan ezagutzeko duzue Irati.

telebegi

Leire Kortabarria

Albiste estatikoak

Telebistako albistegiak ez nago batere pozik azkenaldi luze honetan, eta horrek gogorazten dit kantitate eta kalitatea alderantzizko proportzioan mugitzen direla. Hala, gaur egun, orain urte batzuk baino kate gehiago ditugu, baina albistegiak lehen baino askoz ere pobreakoak dira.

Eguenean kate bereko albistegi bat baino gehiago ikusteko ohitura duenak igarriko du hori. Izan ere, goizean eta gauean eskaintzen dituzten albisteen kontak- zuna ez da ia inoiz aldatzen. Goizean eman dituzten bideoa eta gauean ematen dutena berbera da, eta ia berbera izaten da esatariak kontatzen duena. Hori ikusita, batek esango luke egunean zehar gertakizuna ez dela aldatu, ez dela berritasunik egon. Baina nik uste dut kate handiek badutela nahikoa baliabide albistea goizetik gauera aberasteko, gertakizun gehiagorekin ez bada, eurek gehitutako zerbaitekin: analisia, ondorioak, erreportajeren bat. Baina ez dago horrelakorik. Hala, informazioa oso eskasa da. Eta kontuan hartu behar da informatzea dela telebistaren eginkizun nagusia.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Aitor Uriarte, UNE musika taldeko kidea; Iñigo Trueba, Zero Pobrezia plataformako kidea; Iñigo Garitano, Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako saileko arduraduna; Joxe Antonio Axpe, Caritas-eko kidea...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegi
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Arrasate Irratik albistegi laburra.
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratik albistegi.
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratik albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

GOITBko programazioa

Egubakoitza, 20

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Igantziko artzain txakur txapelketa. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Hitz bitan. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Nafarroa Oinez 06. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:15 Erreportajea: Adopzioa. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 20:45 Berria. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Mandio. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berria. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazzmina. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 21

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorak eta Snorkeldarrak. 11:00 Igantziko artzain txakur txapelketa. 11:30 Didjeridu. 12:00 Eltze beroa, sukaldaritza saioa. 12:30 Nafarroa Oinez 06. 13:30 Berbaire. 14:00 16mm. 14:30 MKT 14:45 Gatza eta berakata. 15:00 Aste-koak 15:30 Marrazki bizidunak. 17:30 harmailatik. 18:00 Didjeridu. 18:30 Nafarroa Oinez 06. 19:30 Ilunpean. 20:00 Elkartasunaren bideak 20:30 Hitz bitan. 21:00 Berbaire. 21:30 Erreportajea: Adopzioa. 22:00 Aste-koak. 22:15 Bideo klipak. 22:30 Jazzmina. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ikusmira. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 22

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorak eta Snorkeldarrak. 11:00 Aste-koak. 11:15 MKT. 11:30 Ikusmira. 12:00 Jazzmina. 12:30 Elkartasunaren bideak. 13:00 Ilunpean. 13:30 Berbaire. 14:00 Erreportajea: Adopzioa. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Bideo Klipak. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:15 Aste-koak. 18:30 Igantziko artzain txakur txapelketa. 19:00 MKT. 19:15 Gatza eta berakata. 19:30 Hitz bitan. 20:00 Teknopolis. 20:30 16mm. 21:00 Berbaire. 21:30 Didjeridu. 22:00 Ilunpean. 22:30 Nafarroa Oinez 06. 23:30 Erreportajea: Adopzioa. 00:00 Emisio amaiera.

Astelehena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Mandio. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bizitegia. 16:00 Bideo klipak. 16:15 Jazzmina. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:00 Errugbia. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 20:45 Berria. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea: NI, Goierri alderik alde. 22:15 Erreportajea: Artzain txakur txapelketa. 22:45 Berria. 23:15 Didjeridu. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ikusmira. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 24

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmailatik. 14:15 Erreportajea: NI, Goierri alderik alde. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Didjeridu. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportajea: Artzain txakur txapelketa. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Bideo klipak. 18:30 Bizitegia. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berria. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Azkaiter Pelox. 22:15 16mm. 22:45 Berria. 23:15 Mandio. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Harmailatik. 00:15 Emisio amaiera.


Eguaztena, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 16mm. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Elkartasun bideoa. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmailatik. 18:15 Hitz bitan. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:15 Danbaka. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Bihurkorak. 20:45 Berria. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Teknopolis. 22:15 Elkartasun bideoa. 22:45 Berria. 23:15 Berbaire. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 16mm. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Erreportajea. 16:15 Ikusmira. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 16mm. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:15 Bideo klipa. 19:30 Bizitegia. 19:45 Berria. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berria. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Danbaka: Drakes. 22:15 Didjeridu: Kepa Errasti. 22:45 Berria. 23:15 Erreportajea: NI. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

LORENZO MARTIN RAFAEL

Arrasate / Zarugalde 16-1. esk. / 943 77 12 63

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk. / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

TRIPALDI ENRIKE

Bergara / Justo Garate 1 / 943 76 70 76

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Munar 10 / 620 124 843

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDOS

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 5 / 943 08 21 89

ORMAZABAL FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Telleria 6 bis, 11 bulegoa Labegaraieta ind. / 943 76 53 35

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. esk. / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian

943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

ZUBILLAGA ZABALA MARISA

Bergara / Psikologo klinikoa / 943 76 30 76

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

Urriak 20-27

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Kontzertua



OÑATI

> Ganbara Abesbatzak kontzertua egingo du Tolosara joan aurretik

Oñatiko Ganbara Abesbatzak Tolosako lehiaketa ospetsuan parte hartuko du azaroaren 1ean, baina herrian entzuteko aukera izango da aurretik: etzi, domeka, kontzertua egingo dute Santa Ana antzokian, 19:00etan.

Antzerkia



ARRASATE

> 'Artea' antzezlanaren egingo dute hiru aktore ezagunek etzi, domeka

Yasmina Reza egilearen *Artea* antzezlanaren egingo dute Joseba Apaolazak, Ramon Agirrek eta Asier Hormazak etzi, domeka, Amaia antzokian, 20:00etan. Hiru lagunengan margolan berezi batek sortzen duen eztabaida kontatzen du.

Kontzertua



BERGARA

> 80ko hamarkadako doinuak, elektroa, popa eta beste asko Cycle taldearekin

Cycle taldeak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:30ean, *Weak on the rocks* diskoa aurkezteko. XXI. mendeko tresnak erabilia, denetari-ko eraginak dituen musika egiten dute: 80koa, punka, popa, technoa...

Antzerkia

ARETXABALETA

> 'Ugaztun eme baten irrikak' bakarrizketa izango da

Ugaztun eme baten irrikak izeneko bakarrizketa antzeztuko du Teresa Andonegi aktoreak hilaren 27an, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 22:00etan.

Topagunearen Kultur Errota programaren barnean antolatu dute.

ELGETA

> 'Erreka Mari' antzezlanaren egingo dute etzi, domeka

Erreka Mari delako antzezlanaren emanaldia antolatu du Elgetako Udalak. Etzi, domeka, antzeztuko dute Espaloian.

22:30ean hasiko da emanaldia.

Bestelakoak

ARRASATE

> 'Rock'n'roll' liburua berbera Literatur Solasaldietan

Aingeru Epaltzaren *Rock'n'roll* liburua komentatuko dute kultura etxeak antolatutako Literatur Solasaldietan. Hilaren 24an, martitzena, batuko dira kultura etxean, 18:30etik 20:30era.

Iban Zalduak koordinatuko du solasaldia.

ANTZUOLA

> Patata tortilla lehiaketa egingo dute gaztetxean

Patata tortilla lehiaketa antolatu du Gazte Batzarrak gaurko, egubakoitza. Edozeinek parte har dezake. Irabazle-arendako saritxo bat egongo da, eta parte hartu duten guztiendako afaria.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:30ean.

BERGARA

> Hainbat ekitaldi San Joxepeko kultura hamabostaldian

Honako ekintzak izango dituzte datozen egunotan: Elosura ibilaldia (gaur, egubakoitza), jolasak eta jokoak (astelehenean), ONCEren antzerki emanaldia (martitzena, 24), eta Gasteizera kultura ibilaldia (egunean, 26).

Ekintza gehiago izango dituzte hilaren 27an eta 28an

OÑATI

> Kalekka programaren aurkezpen jaialdia egingo dute

Kalekka kale-heziketa programa martxan jarriko dute Oñatin. Hezitzaile batzuek gazteendako baliabideak aztertuko dituzte eta gazteekin eurekin berba egingo dute. Horren aurkezpen jaialdia egingo dute bihar, zapatua, Herriko plazan, 16:30ean, 12-16 urte bitarteko umeendako.

Tirolina, eskalada, skate, herri kirolak eta beste batzuk egingo dituzte jaialdian.

Ikuskizunak

ESKORIATZA

> Umeendako ikuskizuna egingo dute datorren egunean

Umeendako ikuskizuna antolatu du udalak, Kutzaren babesarekin. Egunean, hilak 26, izango da emanaldia.

Liburutegian izango da, 18:00etan.

Lehiaketak

ANTZUOLA

> Antzuolarrendako XI. Argazki Lehiaketa antolatu du udalak

Antzuolan jaio edo bizi direnendako argazki lehiaketa deitu dute. Gehienez ere, hiru argazki aurkez ditzake norberak, gai librean, paperean –udaletxera– edo digitalak –kultura@antzuola.net helbidera. 150, 100 eta 90 euroko sariak daude.

Mugaeguna, urriaren 27a.

ARETXABALETA

> Datorren urteko egutegirako argazki bila dabil Murruxio

Datorren urteko egutegirako argazkia lehiaketa bidez aukeratuko du Murruxio Mendizale Elkarteak. Aukeratatuko argazkia egutegian agertzeaz gain, 150 euroko saria izango du irabazleak. Argazkiak euren egoitzara, Durana kalera, eraman behar dira, martitzenetan, 19:00-20:00, edo Aretxabaletako 34. posta kutxara bidali.

Urriaren 31 da mugaeguna.

Musika

OÑATI

> Legen Beltza eta Denial taldeek kontzertua egingo dute

Honako taldeen kontzertua izango da: Legen Beltza (trash bortitza, Azpeititik) eta Denial

(death metala, Arrasatetik). Sarrera 5 euro da.

Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

ARRASATE

> Motociclón taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan

Motociclón trash-rock taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Oso talde berezia da, eta doinuak eta letrak umorez lantzen ditu. Bultaco eta Cleopatra Jones taldeek ere joko dute.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

BERGARA

> Disko-jartzaileen emanaldiak egongo dira Ziripot tabernan

Gaur, egubakoitza, DJ Alkate (Klorofilagrow) disko-jartzaileak egingo du emanaldia Ziripoten; bihar, zapatua, DJ Papik (Soraluzetik).

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

ESKORIATZA

> Aitor Pedrejonek eta Garatek kontzertua egingo dute

Aitor Pedrejon bakarlari bergararrak pop-rock kontzertua egingo du Garate musikariarekin batera gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan.

23:00etan hasiko da kontzertua.

BERGARA

> Landarbaso abesbatzak emanaldia egingo du

Errenteriako Landarbaso abesbatzak emanaldia egingo du. 18 eta 29 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Besteak beste, Espainiako Gazte Orkestrako musika-joleak eta beste orkestra, ganbara-abetesatza, musika banda eta abarreko kideak izan dira taldeko partaide. Oraingoan, 45 minutuko emanaldia egingo dute.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

PROPOSAMENA

BERGARA

> 'Bideak' dantza ikuskizuna egingo du Aukeran taldeak

Aukeran dantza taldeak *Bideak* muntaia aurkeztuko du Bergaran, orain aste batzuk Elgetan Debagoieneko estreinaldia egin ondoren. Hala, Edu Muruamendiartz bergararrak herrikideen aurrean erakutsiko du euren azken lana. Sarrerak salgai daude kultura etxean.

Berritasunak ditu ikuskizun honek: ez dute zuzeneko musika erabiltzen; *acrosport* teknika sartzen dute...

Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 22:30ean.



Danimarkatik Aretxabaletara

HELBURUAK Derrigorrez ingelesez jardutea eta gure inguruko beste bizimodu batzuk ezagutzea

INGELESA Danimarkan askoz samurrago ikasten dute ingelesa, filmak zein liburuak ez dituztelako itzultzen

TXIKITEOA Koadrilak eta senideak kalean elkartzeak harritu du, eta lagunek ondo erakutsi diote txikiteoa zer den

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Danimarkatik etorritako hizkuntza laguntzailea daukate Kurtzebarri eskolan. Europan abian dagoen Socrates programak elkartu ditu Jutland uharteko -Kopenhagetik hiru ordura- Luise Brogaard Rasmussen eta Aretxabaletako eskola. "Guk ez genuen eskatu daniarrik, ezta berak Euskal Herrira etortzerik ere, baina benetan gustura gauden", diosku lankide duen Ibone Amorrortuk. Frantsesa, alemana eta heziketa fisikoa irakasten ditu bere herrian, baina ingelesa ere badaki, eta DBHko ikasleei ingeleseko ikasketetan egingo die lagun. "Ingelesa erakusteko metodo berri batekin gabiltza eta 14 urtekoen gelan landuko du".

Hainbat helburu ditu lankidetzak horrek Ibonek dioskunez: "Luiserekin ikasleek derrigorrez ingelesez jardun behar dute. Era berean, ikusarazi gura diegu ikasleei geure inguruan badaudela beste bizimodu eta pentsaera batzuk. Gainera, kanpotarrei norberaren herria ezagutaraztean

geure burua hobeto ezagutzen dugu". Hezkuntza sistema ezberdina da Danimarkan: irakasleek oso hurbiletik egiten diete jarraipena ikasleei, eta saiatzen dira adin berekoak batera mantentzen errepikatu barik. Ingelesa, bestalde, askoz samurrago ikasten dute filmak zein ikasliburuak ez dituztelako itzultzen. Ezberdintasunak ezberdintasun hango eta hemengo ikasleak eta irakasteko metodoa oso antzekoak direla konturatu da Luise.

TXIKITEOA GUSTUKO

Abendua bitartean egongo da gure artean, baina luzapena eskatzeko asmoa du. Gaztekeraz ikasteko Helduen Hezkuntzako gelara joaten da, eta Eskoriatzan pisu-kide dituen lau beasaindar euskara erakusten dabilta. Gure herriaz galdetutakoan ez dauka zalantzarik: "Oso polita da, menditsua, eta ondo jaten duzue. Txikiteoa gustatu zait, asko gustatu ere; lagunok, senideok kalean elkartzen zarete, nire herrian, ostera, etxetan egiten dugu guztia".



TRUKEA Danieraz ez, baina ingelesez egiten irakatsiko die Luisek ikasleei; bide batez euskaraz ikasiko du danimarkarrak. M.A.

ahobero

"ETak Joseba Pagazaurtundua hil zuenean, Zapaterok Batasunarekin elkarrizketa baimendu, Terrorismoaren Aurkako Ituna sinatu eta Alderdien Legearen alde bozkatu zuen"

Pio Garcia Escudero > PP

Hitzokin sutan jarri dira sozialistak. PPkoek bakearen alde lanean jarraitzen dute.

iturri onetik

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia, abenduan Oñatin

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoia kontzertua eskainiko dute Oñatiko San Migel Parrokian, abenduaren 15ean. Aipatutako kontzertua Aita Madina konpositore oñatiarraren jaiotzaren urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan kokatzen da. Hain zuzen ere, urtarrilaren 29an 100 urte beteko dira Aita Madina jaio zela.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Danbaka, Goiena eta loreak

Debagoieneko musika lehiaketa hastera doala, gogoratu nahi dut joan den asteko aurkezpena. Kutzak eskatu zidan bere ordezkari gisa mahaian egotea; eta nik galdetu ea zer esan behar nuen Kutzaren izenean. Ba, lore ederrak entzun nituen Goienari buruz.

Kutzak Danbaka babesteko arrazoi nagusia da sustatzailea Goiena izatea. Urte batzuk daramatza Kutzak Goienaren bezero, eta badaki Goienak ondo egiten dituela gauzak, serio demonio. Berme handia da hori ekimen berrietarako. Gainera, Goienak ziurtatzen du ekimenaren oihartzun mediatikoa, bere hedabide guztietan eta besteenetan.

Bertako intxaurrak ere hamalau direla sinesteko, mesedegarri suertatzen dira kanpoko eta goienekoen loreak. Gustura egin nuen enkargua.

ai, ene!



Artxiboen tamainaz abisatzen dute gainera!

Argazkiak eta bestelako dokumentuak deskargatzeko diseinu dotoreak, kapazitatearen arabera tamainaz aldatzen direnak.

<http://tinyurl.com/zt9em>



Denentzat...

Maalako Errabala 13
ARRASATE
943 79 92 76

UNITED COLORS
OF BENETTON.